

**LATIEGI'TAR BIXENTE  
ONATIBIA'TAR DUNIXI**



**EUSKALTZAINDIARI  
EPAIKETA**

**EUSKALTZAINDIARI  
EPAIKETA**

2

3

Latiegi'tar Bixente  
Oñatibia'tar Dunixi  
Euskaltzaindiari  
Epaiketa

Liburutxo onen argiltapen  
au, Eusko Alderdi Jeltza-  
leko abertzale euskaldunei  
eskeintzen diegu bereiziki.

Egilleek.

*Irakurle:*

*Au bezelako idazti batean, dokumentuak, lekuko-idazkiak, dituzu gauzarik garrantzitsuenak. Emen aurkituko dituzunak, guztiak —edo, beintzat, ia guztiak—, Oñatibia'tar Dunixi'k jasoak dira, ta berak erantzungo die jasoketa orren zintzotasunari buruz egin nai dizkiozun galdera guztiei <sup>(1)</sup>.*

*Idatzi berriz, —Dunixi'k jasotako idazki oiek oñarritzat artuta—, nik, Latiegi'tar Bixente'k, idatzi dizut eskuetan daukazun idaztiño au. Nik erantzun bear-ko dizut beraz, emen dokumentu ez dan guziaren egokitasunaz <sup>(2)</sup>.*

<sup>(1)</sup> Zuzenbidea: Oñatibia'tar Dunixi. Sendagillea. Urretxu (Gipuzkoa).

<sup>(2)</sup> Latiegi'tar Bixente. Instituto Politécnico Diocesano. C/ Nieves Cano. Gazteitz-Vitoria.

## OTEIZA'tar GORKA'ren

### ITZAURREA

*Idazkiño onentzat Oteiza irudigilleari itzaurre bat eskatzera, Alzuza'n izanak gera. "No me siento capacitado para escribirlo —esan zigun apalki munduko irudigillerik onenetako onek—, pero si queréis algo mío para vuestro librito, tomad este artículo que acabo de escribir y entresacad de él todo lo que pueda conveniros".*

*Oso ederra da Oteiza'ren idazlan ori. Ez errez ulertzekoa, Oteiza'k era naasian idazten bait ditu bere lanak. Era naasian, baiña berak orrela idatzi nai dualako. Esan zigun zergaitik egiten dun ori. Nik, ordea, ezin esango dizut zuri, ortarako aren baimenik ez dedalako, lendabizi; baiña, baita, nik ori esango ba'nu jende asko Oteiza'rekin asarretuko litzakelako ere.*

*Irudigille ospetsuaren idazlan ontatik ("Oteiza es uno de los cuatro escultores más importantes del mundo", Unzueta'k. "Oteiza es uno de los cuatro o cinco escritores fundamentales del mundo", Moreno Galvan'ek), gizon ospetsu orren idazlan ontatik, bada, Nik iru-lau esaldi auek aukeratu ditut itzaurre au tajututzeko:*

—“Nuestra crisis cultural en profundidad afecta a toda nuestra sociedad, estamos viviendo y sufriendo sus resultados, y serán más visibles y negativos e irreparables en los próximos años.”

—“No se arregla esto, no, con cataplasmas lingüísticos al niño y al escritor euskaldun, escritor niño en todo caso, y en el caso peor, batueco (no es **en esta ocasión** que pienso en el batua <sup>(1)</sup>), pienso literariamente en las Batuecas), no se arregla empapelando nuestra ruina y confusión cultural, empapelándonos por fuera de vascofonía. En mi propuesta (por todos desoída) de un ministerio autónomo de Arte Vasco, es donde Cultura y Educación, en cuanto corresponsabilidad estética de identificaciones, son inseparables para funcionar en vasco, y base fundamental, fundamental garantía para una **de verdad** Universidad Vasca, para una **de verdad** recuperación del Euskera con su propia e inseparable cultura.”

—“Nos sentimos como familiares que hemos vivido muy distanciados, como en países muy distintos, y ahora que nos reunimos en el nuestro, que nos podemos reunir, éste ya no es ninguno de los países que habíamos pensado. Y me atrevo ahora a decir esta tontería: que tendríamos que intentar un esfuerzo todos por tratar de reconocernos como familia, reunirnos en reflexión, prescindiendo cada uno (ya está aquí

(1) Idazkiño onen barruan ikusiko duzu, irakurle, Oteiza'k “el batua”ri buruz zer pentsatzen duan.

la ingenuidad, esto además hubiera sido antes, mucho antes) de nuestro bagaje ideológico más separador o viejo, para repensar como aliados simplemente abiertos, Política 2, ya tendremos luego, cuando entre nosotros, la oportunidad política y la conveniencia de dividirnos, de clasificarnos y sacudirnos. Ya dije la tontería, me avergüenza pero no me creáis un tipo blando, no volveré a caer en simplicidad (pero sé que no existe lo complejo, todo es simple, solamente nuestra incapacidad pone irresolución, complejidad en todo).”

—“Después de Roncesvalles (Orreaga 778) no hemos sabido combatir, lo hacemos por separado, individualmente, impulsivos, sin inteligencia, con la exacta imagen que nos dio Cervantes de nosotros con el Vizcaíno, modelo de Quijote vasco mal armado y peor montado en su mula coja, da igual que en combate de espadas en alto o de gramáticas (esto no tiene remedio).”

—(“Siento que esta falta de poder cultural, que esta **incultura revolucionaria al alcance gestual y escritural de todos**, al barullo de todos, tiene mucho de desorden intelectual y desmadre fascista, quiero decir que el enemigo con nuestro comportamiento gana.”)

Gure eskerrik aundiena Oteiza'ri. Gauz eder asko dago berak eman-berri didan idazlan ontan. Nik aletxo oiek bakarrik jaso ditut itzaurre ontarako. Zergaitik? Ulerterrezenak diralako; eta Euskaltzaindiak bere jo-

*kaera okerrarekin Euzkadi'n sortarazi digun anaiarteko ezin-ikusia (eta gorrotoa, eta borroka), ederki azaltzen dizkigutelako <sup>(2)</sup>.*

<sup>(2)</sup> Oteiza'ren idazlan au, gero, "Muga" aldizkarian izan da argitaratua. (1981. 18 gn. zenbakia: 70-82 orrialdea.)

## EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA

1978'garren urtea zan.

Amaitu-berria zuan EUSKALTZAINDIAK Bergara'ko Biltzarra, eta Biltzar artako erabakiak aztertzeko, Tolosa'ko Iparragirre Antzokian bildurik zeuden KARDABERAZ Bazkuneko bazkideak.

Aundia zan billera aren altzoan asarrea: Euskaltzaindiak azkeneko amar urteetan erabillitako jokaerak sortarazten zuan asarrea! Euskeraren Akademi berri baten bearraz ari ziran Kardaberaztarrek mintzatzen. "Aurretik, ordea, 'Expediente' bat egin bear diogu Euskaltzaindiari", oles egin zuan billera artako jaunik ospetsuenetako batek.

Euskaltzaindikoa zan bera. Euskaltzaindikoak, bat, bi, iru eta lau baiño geiago ziran billera artan. Euskaltzaindikoa zan oles ori egin zuana ere. "Expediente bat! Liburu gorri, edo urdin, edo zuri bat egin bear zaio Euskaltzaindiari"! Eta iru-lau aldiz ber-esan zuan itz bera: "Expediente bat!, Expediente bat!, Expediente bat...!"

Bi gauzak artu-zituan ontzat, Batzar Orokor artan, Kardaberaz Bazkunak: Euskeraren Akademi berri bat sortzea, eta Euskaltzaindiari 'Expediente' bat egitea. Akademi berria bizira erakartzeko BAZKUN ERA-



TZALLE bat autatu zuan antxe bertan, eta Euskaltzaindiari 'Expedientea' egiteko, billera artan zegoen idazle bat aukeratu.

Billera ospetsu artan artu ziran erabakietatik jaiotako Akademia, EUSKERAZAINTZA da, Erriaren Euskal-Akademia. Billera artako erabakietatik jaiotako bear zuan 'Expedientea', ordea, argirik ikusi gabe dago oraindik, ortarako aukeratua izan zan idazleak — politika eta elerti-ekintzetan lanpetuta—, astirik naiko izan ez dualako. Eta utsune ori betetzera dator gaur idazkiño au. Laburregia da 'expediente' bat, salaketa-agiri bat, izateko. Baiñan, erriarentzat idatzia dalako, ez zitekean luzeagoa izan ere, gure erriak, tamalez, idazti luzerik ez bait du euskeraz irakurtzen. Ala ta guztiz, naikoa dala uste dugu bere laburtasunean idazti au, Euskal-Erriari argi ta zeatz Euskaltzaindiko jokaera okerraren berri emateko. Eta baita Euskaltzaindiaren ume kuttuna dan "BATUA" izeneko izkera zatar orren akatsen berri emateko ere, naiz azkeneko punttu au, gure ustez, bearrezkoa ez izan..., euskeraz mintzatzeko gai diran guztiek ondo ezaguna bait dute "el batua"ren mordolokeria.

## "EL BATUA"REN JAIOTZA

Ara nola azaldu zion 1974'ean Latxaga'ri "el batua"ren sorkuntza Lekuona'tar Imanol'ek. Prantzeraz dakar Latxaga'k, eta prantzeraz ipiñiko dut nik emen aurrena. Emango dizut gero euskeraz bere mamia (1).

"Après la guerre mondiale, un groupe de Basques militants essaient de se rassembler en vue d'une action patriotique. Txillardeggi participe à ces réunions et lutte pour qu'on élimine "Dieu" de l'emblemme du parti nationaliste basque et pour qu'on introduise le courant socialiste. Celui-ci après des agissements activistes doit s'exiler à son tour. Il est à l'origine de la formation du groupe clandestin ETA. Il manifeste des options contraires au fondateur du parti nationaliste basque; en fait, il s'agit d'un anti-sabinien. Il suit de près l'évolution de celui-ci mais en la corrigeant. Sabino Arana-Goiri sut associer trois éléments dans son mouvement: Dieu, la fidélité à l'Eglise et l'unification de l'orthographe. Txillardeggi élimine Dieu, introduit le

(1) Itz larriak dira Lekuona'k emen esaten dituanak, baiña Lekuona' ren aburu ber-berekoak dira, idazkiño ontan ikusiko duzunez, Labayen'dar Andoni; Onatibia'tar Dunixi, Gaztañaga'tar Yosu, Urrestarazu'tar Andoni, Arenaza'tar Yosu, Zubiri'tar Iñaki, Pelay Orozko'tar Mikel, Antonio Tovar, Zaratain'dar Anbroxio, Azurza'tar Josejoakin "Pertinax", Estornes Lasa, eta ainbeste eta ainbeste abertzale, idazle eta jakintsu.

socialisme et adopte le H dans l'orthographe. Le H se transforme ainsi en emblème du nouveau courant. De Bayonne, Txillardegui lance un appel aux fils des anciens militants basques et il leur suggère l'idée de l'unification linguistique à réaliser. Tout le mouvement de l'unification, sous l'étandard du H, est né d'une option "anti" (2). Il est impossible de construire quelque chose de solide sur une position anti. Laissons donc les choses où elles en sont parce que nous ne sommes pas partisans du mouvement pendulaire. Rien de durable ne se fait dans les situations de force. La constitution de la double commission pour la traduction des textes liturgiques paraît inutile. Cela peut accentuer la division. Il est difficile de trouver des

(2) Entzun, "el batua" zaleek Arana Goiri'ri zioten gorrotoari buruz Txillardegui'k berak diona, Urrestarazu'tar Andoni "Umandi"ren itzetan: "Ha habido (no dice Txillardegui dónde ni cuándo) una especie de discusión entre varios partidarios del "batua" para decidir sobre la mejor traducción al euzkera de la palabra "escritor"; mientras unos opinaban que sería adecuado decir "eskritore", otros estimaban que sería mejor "izkribatzalle"; y —destaca Txillardegui— no se aceptaba el neologismo "idazle" por odio (soy yo quien subraya) hacia la persona que lo creó. ¿Quién fue esa persona? Todos lo sabemos, Arana Goiri'tar Sabin; y sabemos también que D. Resurrección María de Azkue, que tanto impugnó algunas de las opiniones de Arana Goiri sobre el euzkera, aplicó a ese neologismo un adjetivo laudatorio en extremo: "El lindo neologismo de Arana Goiri **idatzi**". (A. Urrestarazu: "Euzkera"; 30 orrialdea.)

Ona berriz Txillardegui beraren itzak: "Euskera Batua Zertan den", 77.gn. orria): "**Idatzi** hitz berriak (berria dalako, nunbait, eta nork asmatua den jakin delako, areago nik uste), gorroto bi-ziak sortzen bide ditu oraindik batzuegan; eta beste hainbeste **idazle**" hitzak".

membres pour la dite commission qui soient étrangers aux disputes. Est inopportun le rôle de certains membres de l'Académie qui veulent être arbitres et juges dans cette dispute. Il semble dangereux pour l'Eglise de se prêter à leur jeu (3)."

Iru gauza burutu zituala Arana-Goiri'k —dio Lekuona'k prantzerazko esaldi luze ortan—, eta iru gauza oiek auek dirala: Jaungoikoari dagokion sinismena, Elizaganako leialtasuna, eta Euskal-idazkeraren batasuna. Iru gauza oien aurka jeiki zirala ETA'ren asieran iraultzalleak Laburdi'n, Jaungoikoa kenduta Euzkadi'ra sozialismua ekarri naiean. Eta iraultza berri onen ikurrintzat H'a artu zutela. Gorrototik jaioa dala, beraz, euskeraren barruan sortu zaigun iskamil au guzia: Arana-Goiri'tar Sabin'eri iraultzalari aiek zioten gorrototik jaioa.

Gero, izkuntza-baitako nasketa ori elizgizonen artera ere sartu dala, dio Lekuona'k; Elizkizunetan Elizak erabili bear duan Euskerak nolakoa izan bear duan ezin erabaki aal izateraño sartu ere! Akademia ez dala iñor gai ortaz mintzatzeko, eta Elizarentzat oso arriskugarria izango litzakela Eliza bera izkuntza-nasketa ortan sartzea.

Orixe bera esan zuan izkera zorrotzagoaz Gaztañaga'tar Yosuk ere (4).

(3) J. M. de Lachaga. "Minorités Nationales et Liturgie Romaine. L'exemple de la Liturgie en Basque". 196.gn. orrialdea.

(4) Ikus idazkiño onen azkenean, Donosti'ko Gotzaiari egin zion eskutitza.

Arazo ori epaitzeko Akademia iñor ez ba'da, eta Elizak berak ere arazo ortan sartu bear ez ba'du, nork askatu lezake eta nork askatu bear du korapillo ori? Iñork ez? Zer egin orduan?

Ara, zipozkeritik sortutako "el batua" k ekarri digun emari zipotza: Euzkadi'ren zatiketa, Eliza beraren zatiketa, eta azkenean, eskierki, Euskeraren eriotza.

Agian, irakurle, ikurrintzat H'a zergaitik artu zuten jakin naiko duzu. Bâ..., H'ari eleneraz ETA esaten zaiolako. ETA'rak bait ziran, ain zuzen, "el batua" ren sortzaille aiek danak!

Ona "el batua" onen jaiotza-aroko egunik aipagarrienak:

— 1963'garren urtea. "Euskeraren Batasunerako Idazkaritza" bat eratu zuten Baiona'n Eusko Alderdi Jeltzaletik igesegindako sozialismu-zale aiek (5). Zazpi gizonek osatu zuten Idazkaritza ori.

— 1964. "El batua"-zale guztien Billera Baiona'n: Len aipatutako Idazkaritza orrek sortutako Billera (6).

— 1965. "Zeruko Argia" k, Urrilleko zenbakian, argitaratu zuan, aurreneko aldiz emen, H'z jositako

(5) Txillardegi. "Yakin", 1968. V zenbakia. 66-67 orrialdea. Agian, asiera artan ez ziran marxi-lenindarrak izango ETA'tar aiek danak, baiña Sabin'en etsai ba'ziran eta gero... ondo ezaguna da euskaldun guztientzat ETA'k marxikeri ertzakoiaren arloan zer bidetik jo duan.

(6) Txillardegi. L.c.

idazlan bat. Saizarbitoria'k idatzia. (Saizarbitoria au "Lur" izeneko irarkola ezkertiar-ertzakoiaren sortzaille-  
etako bat da.)

— 1968'aren uztaillean, Ermu'ko Billeratik H'a non jarri bear zan galdetu zioten "el batua"-zaleek Euskaltzaindiari. Orrela, Euskaltzaindia izkuntza-borrokara amildu nai zuten.

— 1968. Urrillean Arantzazu'ko Billera tamalgarrria. Billera ortan iriki zizkion ateak H'ari Euskaltzaindiko Batzorde batek, eta H'aren estalkipean, une berean iriki zion sarrera "el batua" guztiari. Mitxelena'tar Koldobika dugu ekintza aren errudunik aundi-ena. Ortarako erabilli zuan "ez-arrazoia", gero ikusiko dugu.

— 1970. Baiona'n aurrena, Ermu'n gero, "el batua"-zaleen zin-egitea. Euskaltzaindiari jaramonik egi-teke, beti "el batua" erabiltzera beartzen zituzten beren buruak, zinketa aren bidez, zin-egilleek.

— 1970. Bereala, Euskaltzaindiaren zuzendaritza-tik jaurtia izan zan Lekuona eta Villasante, aren orde zuzendatua.

Laister ekin zion Lendakari berri onek, itxu-itxuan, "el batua" ren alde borrokari. Ortarakoxe, izan ere, izan bait zan aukeratua! (7). Bai ederki etorri zaiela Villasante prantziskotarrá, "el batua"-zale marxitar ezker-tiarrei!

(7) Ikus, Lekuona. "Arantzazu", 1970; 181 or.

## ANTZIÑAKO EUSKALTZALEEN IRITZIAK

H'a artu bait zuten "el batua"-zaleek ikurrin, ikusi dezagun zer pentsatzen zuten H'az, Bidaso'z ununtzko euskal idazle zarrek:

— 1690'ean jaio zan Andoain'en Aita Larramendi josulaguna, lateraz, gazteleraz eta euskeraz idatzitako Iztegiaren egillea: "Diccionario Trilingüe". Ara zer dion H'ari buruz Iruizkuntzeko Iztegi ospetsu ortan:

"Laburdi'n H izkia, bearrezkoa ez duten itzetan ere erabiltzen dute".

— 1703'an Ernani'n jaiotako Aita Kardaberaz josulagunak berriz onela dio gai berari buruz:

"Gure eusqueran H alperrikakoa da, servitzen ez duan gauza da. ¡Quen ortic! Gure eusquera eztizko-arentzat soñu ori ezta (1).

— 1856'garren urtean, beste onako au idatzi zuan Lardizabal'ek bere "Gramatica"n:

(1) Kardáberaz. "Eusqueraren Berri Onac", IV-8.

“Euskalerrian H ez da erabiltzen cha, che, chi, cho eta chu dauzkaten itzetan ez ba da.”

1896 urtea urte ospetsua izan zan euskeraren edestian, urte ontan eman bait zizkigun Arana-Goiri'tar Sabin'ek bere “Euskeraren Idatzarauak”, “Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino” deritzan idaztian. Pozik artu zuten idazti ori orduango euskaldunek. Baita edertzat eta bikaintzat etsi eta goratu ere. Idazti ori, “urrezko 300 orrialde zituan idaztia” zala esanaz goi-agurtu zuan Azkue'k berberak. Ba-zan orixe naikoa esatea.

“La H es inútil y parásita” oles zegian bere aldetik Azkue maixua!k!

— 1913'an onela idazten zuan Ayerbe'tar Jon Joseba apaizak:

“**Letra H.** — He aquí una letra completamente inútil, que es el tormento de todos cuantos escriben en castellano. Escribamos “ahora” o escribamos “aora” se lee lo mismo. ¿A qué pues la H? Por eso los vascos hemos desterrado esa letra de nuestro alfabeto. Lo usan los vascos de allende el Bidasoa, y no todos, para representar un sonido especial que ellos emplean. Es decir, la usan porque la pronuncian. Pero nosotros sólo la usamos en algún especialísimo caso que no merece ni mención. Aconsejo a quienes pretenden aprender a escribir en euskera que **jamás** la usen. Ya nadie la usa por acá (2).”

(2) “Euskal Esnalea” Aldizkaria. 1913. Jorrraillak 13.

— Azkue aipatu degu aitzintxe. Azkue'ren aurretik, eta Arana-Goiri'ren aurretik gure euskal idazle geienak, zearo bazterturik utzi zuten H'a. Ez zuten erabilli, eta erabilli zuten bat edo beste aiek ere oso itz gutxitan erabilli zuten. Eta orduan ere, argi nabari zaie erderek-tako ortografien kutsua.

Ala ta guztiz, oien omenez eta iparraldeko euskal-idazleen omenez amore-eman-zale agertu zitzaigun Azkue bere Iztegian, itz batzuetan H erabilli litekeala esanaz. Bañan, “fuera de estos casos —dio—, puede considerarse inútil el uso de esta letra (H). Añadamos para terminar —jarraitzen du— que aún para la distinción de los homónimos, por más que haya que reconocer su utilidad, su necesidad es muy relativa. En efecto, en todas las lenguas hay homónimos; en muchas de ellas más que en la nuestra, y la confusión de acepciones, que raras veces ocurre, se evita en ellas sin recurrir a elementos no significativos. Nada sensible es tampoco el embarazo de los dialectos vascos que no recurren al uso de la letra H (3). Itz bitan esateko “H”aren bearrik ez dala: “Es inútil y parásita”.

— 1918'an sortu zan Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza Bazkunak ortarakoxe Oñati'n egindako Batzar Nagusi batean, Bizkai'ko Aldundi'ko Jeltzaleen eskari-ari erantzunaz.

(3) Diccionario de Azkue. Letra “H”.

— 1920'ean, Ilbeltzaren 8'an, ao batez onartu zituan Euskaltzaindiak, ogei ta lau urte lenago Arana-Goiri'tar Sabin'ek emandako Idatz-Arauk. Bere amargarren billera zuan ua Euskaltzaindiak, eta auek izan ziran batzar artan bildutako euskaltzainak: Bidaso'z aruntzik etorriak, Broussain, Landerretxe eta Lhande; Bidaso'z onuntzkoak berriz, Azkue, Kanpion, Eguskitza, Eleizalde, Intzagarai, Olabide eta Urkixo. Itzal aundiko gizonak guztiak, benetan.

Ikusi daitekenez zearo ezereztuak zeuzkan ordurako Azkue'k, H'ari buruzko, zalantzak; eta, Iztegiko sarreran erakutsi zizkigun "amorekoitasunak" zapaldurik, Arana-Goiri'ren aldera igaro zan erabat Azkue maixua betirako H'ari uko egiñaz. "La letra H es inútil y parásita".

1933'an Euskaltzaindiaren Lendakariak berak, Azkue Jaunak, argitara atera zuan, Arana-Goiri'ren idatz-arauetan oñarrituta, "Gipuzkera Osotua" izeneko Idazkia.

— 1936'ean anai-arteko guda sortu zanerako, Azkue'ren Gipuzkera Osotua, zearo onarturik zeukaten emen Ego-Euzkadi'ko idazle guzti-guztiek; "nullo dissidente: iñor ere aurka ez zala (4)".

(4) "Ego-Euzkadi" esan dut. Ba-dakit itz orrek atsegin gutxi ematen diola Oteiza'tar Gorka irudigille adiskideari. "Lo peor que le puede pasar a algo, es el sur de algo —esan oi dit arek—, y lo peor que ha podido pasar a Euzkadi Continental es el haber sido el sur de Francia" esaten zidan 1981 ontako Dagonillaren eguerdi batean Alzuza'ko bere etxean. Baña "Ipar-Euzkadi" eta "Ego-Euzkadi" gure izkeran sarturik daudelako, itz oiek erabilliko ditut nik ere.

Ala jarraitu zuten gauzak pakean, Arantzazu'ko Billera arte, urte-mordo luzean. Idazleak eta Erria, danak zeuden emen pozik Azkue'k eskeiñitako Euskera Osotuarekin, 1968'an Arantzazu'ko Billera doakabea egin zan arte. Munduan gauza zalilik ba'da, euskaldun danok zerbaitean batera etortzea da benetan gauza zalla. Izan al gera iñoiz euskaldunok, zerbaiteri-buruz, aburu bateko? Bâ..., Azkue'k lortu zuan Euskaldunok bateratzea. Azkue'k burutu zuan —eta ez Larramendi'k—, "el imposible vencido"; danak onetsi, eta danak onartu bait zuten emen Azkue'ren Euskera. Politikazko bereizketa guztien gaindik, bat egin zuten euskaldunek Euskeraren arloan! (5)..

Argi eta garbi daukagu beraz Arantzazu'ko Billera orren aurretik Euskeraren BATASUNA lortua bezelatsu zegoala, Egoaldeko idazleek eta Euskaldun Erriak ez ezik, laister esango dugunez, Ipar-aldeko idazle askok ere begi onez ikusten bait zuten Azkue Maixuaren ekintza.

(5) Orregaitik, gezurra (?) esan du, edo lotsagarriki ez jakiña agertu du bere burua Etxenike Eusko-Jaurilaritzako Ezikuntza-Arduradunak "el batua"z mintzatzean. Ez digu bâ, lasa-lasai esan, "el batua" izan ezik, Euzkadi guziraiko balio lezakean Euskera bat ez dala? "Hasta ahora la única oferta construida y desarrollada es la que todos sabemos; si existiera otra mejor todos la adoptaríamos con sumo agrado, pero no la hay. Esto es algo parecido al Estatuto de Herri Batasuna, que ellos afirman que es mucho mejor, pero que aún no ha llegado" ("Deia", 31-VI-81). Etxenike'k ez ote du Azkue'ren Euskera Osotuaren berririk?, Alderdi Jeltzaleak —Etxenike beraren alderdiak—, bere-egiña daukan Azkue'ren Euskeraren berririk? Mintza al diteke orrela Ezikuntzako Ministro bat? Zer eziketa eman lezaieke orrek gure umeei? Azkeneko orduetan —ordu alaietan— Alderdi Jeltzalera iraduz sartutako "jeltzale" berri auek, zer egin nai ote digute gure Euskerarekin eta gure Euzkadi'rekin?

Lizardi'k, Orixe'k, Lauaxeta'k, Lekuona'k eta garai artako Eusko-Elertiaren zeruko izar dizdiratsu guztiek onetsi zuten, eta beren idazkiekin indar berri sendoa eman zioten, Azkue'ren jokaerari; ez Gipuzkoa'n, ez Bizkai'n, ez Araba'n, ez Naparroa'n, ez zion iñork ukorik egin Arana-Goiri'rengandik zetorkigun Idaztarauari; Euskaldun guztiek begiratzen zioten gozo eta itxaropenez beterik Azkue'ren Euskera Osotuari.

Eskuetan genduan Euskeraren Batasuna...!

Orduan sortu zitzaigun, Euskeraren ondamenerako, eta Euskaldunok zatitu eta Euskaldunon artean gorrotoa sortarazteko, gaur-eguneko "el batua" mordollo au.

## ARANTZAZU'KO BILLERAREN GIROA

Arantzazu'ko Billeran gertatutakoaz ondo jabetzeko, ez zaigu noski gaizki etorriko Billera orren aurreko zenbait gertakizun gogoratzea; adibidez, Aita Villasante'ren eta gaiñerako Arana-Goiri'ren etsaien jokaera laburki bederen ikustea. Aurretik, ordea, zillegi bezait Arana-Goiri'ri buruz itztxo bat edo bi lotsarik gabe euskaldunei esatea. Gure Sabin, abertzaletasunean bezain aundia izan bait zan Euskeraren arloan. Beste edozeiñek bezela, izan zituan akatsak, baita Euskeraren arlo ontan ere, baiña on aundia egin zion Euskerari; eta oso-osoan Euskadi'ren kalterako eta Euskeraren ondamenerako ari dira lanean, aren aurka amorraturik jokatzearren, Euzkadi'rentzat gizarte-bide berriak, eta Euskerarentzat "era" eta "arau" ez-ezagunak sortu-nairik dabilzan gaurko Sabin-arerio guztiak.

Euskera-gaietan ere goien-mailleko jakintsua izan genduan Arana-Goiri maitagarria. Ba-dugu ori esateko arrazoirik naiko! Ikus:

— Euskaltzaindi osoak onartu zituan, len esan dugun bezela, 1920'ean Sabin'en idaztarauak.

— Sabin izan zan euskaldun txepelen biotzetan Euskerarenganako maitasuna piztu zuan gizona.

— Jakintsu guztiek begiratu zioten eraspenez, naiz punttu batean edo bestean berarekin batera etorri ez. Ara zer dion Azkue'k bere Iztegiaren itzaurrean: "Para completar mi diccionario trilingüe, euskera, castellano, francés, pedí la colección de neologismos de Sabino" (1). Beste auxe dio berriz "Morfología Vasca" deritzan idazkian: "Es acertadísimo su vocablo "irazan" o crear, genuino neologismo de Arana Goiri" (2). Eta idazki ortan bertan geroxeago: "el lindo neologismo "idatzí" o "escribir" de Arana" (3). Edo, "Arana con muy buen criterio propuso que con todos los verbos en "tu" se usara "tze" (4). Edo ta geroago: "Arana Goiri, para quien en conferencia pública tuve el honor de pedir una estatua por haber proporcionado sólo él, a nuestra lengua, por lo menos en Euskalerría, más lectores y escritores que todos los vascólogos juntos" (5).

Arana Goiri'ri, eta onen atzetik Azkue'ri eskerrak, egiña geneukan Euskeraren Batasuna. Eta espaiñiarrek berak ere —nork, eta espaiñiarrek!—, gure Euskera Osetu orren idazkera artu zuten eredutzat, gaztelararen idazkera erreztu eta arrazoizko arauetara era-

(1) Azkue. "Diccionario". Prólogo.

(2) Azkue. "Morfología Vasca". 162 or.

(3) lbdm. 182 or.

(4) lbdm. 280 or.

(5) lbdm. 295 or.

kartzeko. Bai bait da Espaiñi'n ori lortu naiean dabillen Bazkun bat. Bazkun ortakoak dira Palacios, Muñoz Alonso, Gálvez..., eta Bazkun ortakoa izan zan il arte Zaragüeta filosofilaria ere. Gálvez'enak dira onako itz auek:

"La ortografía castellana es irracional y causa estragos a lo largo de la vida, por el tiempo que hace perder en el aprendizaje y en aplicar esa engorrosa ortografía vigente, lo que supone un gran retraso en el progreso de la cultura. Para redimirnos de tan catástrofica pesadilla bastaba que una persona con autoridad lo insinuara, porque la misma Academia de la Lengua Española reconoce en sus publicaciones la conveniencia de hacerlo, los profesores del idioma lo piden en sus congresos, el pueblo lo está deseando y la prensa siempre ha respondido favorablemente.

"Debemos suprimir la "ge" y "gi" por "jota" (que ya aplicaba el lingüista Andrés Bello, y también el Premio Nobel Juan Ramón Jiménez); suprimir la letra "u" de "gue" y "gui"; la "zeta" y "ka" deben reemplazar a la "c" y "q". También deben de desaparecer la "v" y la "h" del idioma español. Hay que llegar a que en nuestra lengua, cada grafema corresponda a un fonema y no existan en absoluto grafemas que no tengan sentido fonético". Geroxeago onako au dio idazle espaiñiarrek: "Muchas veces se ha propuesto la actualización de la ortografía sin llegar a llevarla a la práctica. A pesar de los buenos deseos, parece que el ambiente no está preparado pero la posibilidad de hacerlo es innegable,



porque recientemente, en casos análogos se ha hecho con éxito ya, en parte en el italiano y en el japonés, y conseguido totalmente en el VASCUENCE, en el ruso y en la lengua turca (6).

Ez zitzaigun emen aburu berekoa izan Aita Villasante, "Historia de la Literatura Vasca"ren egilea. Edesti ortan aipatu, bai, aipatzen du Arana-Goiri'ren izena; Arana-Goiri'tar Sabin Euzkadi'ren edestian eta Euskeraren edestian garrantzi aundienero gizona izan dalako, aren izena naitanaiez aipatu bearrekoa bait zuan Villasante'k. Baiñan ez zuan, ez, goratzeko aipatu, beeratzeko baizik.

Eusko Alderdi Jeltzaleko epai-maiaren Buru zala il-berria dugun Josu Solaun'darrak eman zion Villasante'ri erantzun gogorra:

"Sinceramente no esperábamos del P. Villasante que, después de sus graves omisiones y silencios respecto a la labor euskérica de Sabino, se permitiera tratar a Sabino y sus seguidores en la forma que lo hace. Creíamos que todos y especialmente Arana Goiri, son bien acreedores a otras consideraciones y respeto. El P. Villasante conoce perfectamente la opinión del primer lendakari de Euskaltzaindia, con respecto a Sabino. Sabe también el P. Villasante, lo que la memoria de Arana-Goiri, que sacrificó a la Patria su talento, su hacienda y su vida, supone para la mayoría de los vascos. Si Arana-Goiri ha ganado la veneración

(6) Gálvez: "Heraldo de Aragón", 1971. Jorruak 13. Zaragoza.

de tantos de sus compatriotas, es bien acreedor también al máximo respeto y consideración de quienes no aceptan sus ideas ni tengan su misma Patria. Proceder de otro modo **puede dar lugar a pensar** que hay algo más que un precio obligado de silencio y omisiones. El P. Villasante denuncia insistentemente los neologismos y el purismo de Sabino. El P. Villasante multiplica los ataques y censuras contra Sabino por sus neologismos, recurriendo a expresiones como "y fabricar algún vocablo feo, ininteligible y ridículo". Usa también el P. Villasante términos peyorativos un tanto ordinarios, adoptando una actitud definidora, que parece negar todo valor a la capacidad intelectual de un par de generaciones de **idazles**. Persistir como lo hace el P. Villasante en acometidas y reprobaciones, nos parece es romper lanzas contra molinos de viento. Como contrapartida, hay que destacar el silencio del P. Villasante ante la nueva tendencia al "mordollismo" imperante..." (7).

(7) "Alderdi" .179 zenbakia. 1962. Otsaila. Miñgarria da oraingo "el batua"zaleok Arana-Goiri'ren ondorengo idazleei —Euskerak izan dituan idazlerik aundienero—, dieten gorrotoa ikustea. Era berean miñ ematen digu "el batua"zele oiek laisterka eta ostikoka Euzkadi euskalduntzeko darabilkiten presa ikusteak, Arrazoi du Oteiza'tar Gorka'k: "Euzkadi nuestra patria vasca es este país para convivir vascos con muchos que no lo son ni tienen por qué aparentar ni hay por qué empujar para que lo sean (...). Cuando veo que al lado de los nombres de nuestros pueblos en Euskera, se han tachado con un sucio e irresponsable brochazo el nombre en castellano, es un ejemplo de lo fanáticamente cortos de inteligencia que somos o políticamente de mal aconsejados." ("Muga", 18 gn. zenbakia, 80 orrialdea). Oteiza'k, guk bezela Euzkadi guzia euskalerrri nai luke. Baiñan ba-daki, presaka ta oro, indarkeri guztiak, kaltegarri zaizkigula. Irakurri ezazu Oteiza'ren idazlan eder ori.

Villasante baiño gogorrangoak ziran oraindik, Sabin'en aurka, Txillardegia, Krutwig <sup>(8)</sup>, Kintana...; gizon auek Sabin'en aurka egitearren sortu zuten ETA; Sabin'en aurka egitearren asmatu zuten gaurko "el batua" berri au. Sabin ez ba'litz euskerari buruzko lanetan sartu, edota —naiz Sabin lan oietan sartu—, Azkue'ren Euskera Osoa Sabin'en idazkeran oñarritua egon ez ba'litz, gaur ez genduan "el batua"rik izango. Ezta ETA'rik ere Sabin marxikerizalea izan ba'litz. Sabin kristaua izaki ordea-ta, ezereztu bearra zan aren izena, apurtu bearrak aren Alderdia eta aren Euzkadi; sortu bearra alderdi iraultzalle marxizale berri bat, eta asmatu bearra Euskera berri bat, Euzkadi komunista eta lenindar berri bat tajutu aal izateko.

<sup>(8)</sup> Esku aundia izan zuan, dirudianeaz "el batua"ren sorkuntzan. Krutwig, "Vasconia" izeneko liburuaren egilleak, Mitxelena'ren itz auek oso-osoan egiak ba'dira: "Nori berea eman behar baldin bazaio, eta hori omen da zuzenbidea, Sarrailhe izan genuan aintzindari bide horretan eta haren inguruan bildu ziren "axulartarrak" ("Zeruko Argia", 2-II-1975). "Sarrailhe" Krutwig da, eta "axulartar" "batustanoei" deitzen die Mitxelena'k. Lenen orduko izkuntza-maxiatzalle aien artean sartu nai du Kintana'k ere bere burua; eta mingarriagoa dana, an sartzen du, zuzendari lez gañera, Mitxelena'tar Koldobika ere. "Varios escritores jóvenes, basándonos en los dialectos centrales, fuimos dictando una serie de normas sobre morfología, sintaxis, perfecta utilización del verbo, etc., dirigidos por el Dr. Mitxelena" ("Hiero", 7-III-1979). Euskaltzaindiaren aurka zebiltzan; edo obeto esateko Euskaltzaindiaren aurka zebiltzkan Mitxelena'k, "varios escritores jóvenes" iraultzalari aiek danak, Kintana'k diona egia ba'da.

Entzun Lizundia'k esana: "Euskaltzaindiaren giro motela ikusirik, Euskal Idazleen Elkartearen Babespean, aditzaren batasuna lorturik, Baiona'n asi zan 1964 urtean Euskeraren Batasuna, Ermua'n ta Arantzazu'n jarraitu, ta orain, berriz, Baiona'n amaitu". Ai Mitxelena...! (Nik azpimarratua: "Euskaltzaindiaren giro motela ikusirik". Euskaltzaindi u ez bait zan oraindik Villasante'ren Euskaltzaindia! Ai Mitxelena!!!)

Ez al didazu sinisten, irakurle? Irakurri itzezu Krutwig'en "Vasconia" edo Kintana'ren "Ukronia". Bai batean bai bestean, arkituko duzu gauza jakingarririk! Zer ari zan Mitxelena Sabin'en etsai aien artean?

"El batua", len esan dugunez, 1960'tik 1964'a artean sortua da, eta izkera trakets orren Liburu Santu lez, "Batasunaren Kutxa" izeneko idazkiño bat argitaratu ziguten izkera berri orren gurasoek: "Batasunaren Kutxa! Orrenbeste tonto lilluratu dituen liburu tontoa!" <sup>(9)</sup>.

Tolosa'ko Labayen'dar Andoni jaiki zan aurrena liburu aren aurka. Labayen: jakinduri aundiko gizona, euskaltzain osoa, euskal-antzerki idazlerik nagusia. "Batasuna'ren Kutxa" eta "Pandora'ren Kutxa" alkarrekin kidatzen ditu Labayen'ek <sup>(10)</sup>.

Bai-omen zan garai batean alako kutxa beldurgarri bat "Pandora-Kutxa" izenekoa, gaitz guztiak bere barruan zeuzkana; ta bein batean kutxa ura ireki ta zabaldu zutenean, bat batean erten omen zuten kanpora barruan zeuden gaitz guztiak, kiraztuz ta ondatuz bere aurrean arrapatu zituan gauza guztiak.

Euzkadi zarra eta Euskera zarra deseginda, Euzkadi berri batentzat izkuntza berri bat sortzea izan zan, Baiona'ko Billeretan, "el batua" asmatu zutenen lenengo asmoa. Entzun aietako batek, Harañburu Altuna'k

<sup>(9)</sup> Zatarain'dar Anbroxio. Latiegi'tar Bixente'ri egindako eskutitzean. 1981; II, 11.

<sup>(10)</sup> "Sasi Batasuna"; 38 or.

diona: "H'a da euskal iraultzaren simbolo plastikoa (11)".

Orixe ber-bera esango digu geroxeago Haranburu Altuna'k Donosti'ko "La Voz de España"n Castellanos izparringilariak egin zizkion galdera batzuei erantzunaz. Ikus, bi gizonen alkarrizketa:

—Castellanos: "¿Cree Haranburu Altuna, de veras, que esas mutaciones fonéticas que propugnáis con el batua tienen una importancia o incidencia políticas?"

—Haranburu Altuna: "Reconozco que el cambio ortográfico tiene no sólo incidencia, sino trascendencia política (12)."

Ez bide zan Castellanos ua ain gizon zozoa, eta bazuan, baita ere, "el batua" berri au mordollokeri utsa dalaren jakitea, itz bikain auek eman bait zizkion Haranburu Altuna'ri aren erantzuna entzun bezain laister:

"Está visto que nuestros académicos de la Lengua Vasca no estarán en la Historia encasillados como inmortales."

Laister artu zion Andoni Labayen'darrak ere politika-usaia "el batua" asmatu-berriari. Bereak dituzu itz auek:

"No andan muy errados los que afirman que en estas reformas lingüísticas innecesarias prevalecen los signos de una política partidista (13)."

(11) Haranburu Altuna: "Literatura 72". Edit. "Lur". 11 orria.

(12) "La Voz de España", 5-V-1978.

(13) Labayen, Andoni. "La Voz de España", 5-V-1978.

Aurrerago dijoa oraindik Zatarain'dar Anbroxio: "El P. Villasante es un instrumento inconsciente (así lo quiero suponer) de una maniobra de los conjurados del "Batasun-Kutxa" para imponernos una reforma que juzgamos perjudicial. A mis razones lingüísticas (no políticas ni religiosas) aportadas por mí para combatir la ortografía que el P. Villasante defiende, sigo esperando se opongán otras razones, que no han llegado a mis oídos ni han aparecido ante mis ojos. Si tengo que decir que, si todos los que usan tal ortografía no son ateos, por lo menos es cierto que todos los ateos que escriben en Euskera, la usan con exclusión de toda otra (14).

Orixe bera esan izan det nik ere bein baño geiagotan eta baita idatzi ere. Ara zer erantzun nion bein "El Correo Español-El Pueblo Vasco"ri, Jerez'ko nere adiskide batek Kadiz'koei buruz esan oi zuana gogoratuaz:

—"Correo Español-Pueblo Vasco"k: "¿Por qué el batua nació fundamentalmente entre los exiliados más o menos afines a ETA, como Txillardegi?"

—Pues..., porque todo grupo revolucionario ha tendido siempre a crear su propio lenguaje. "El batua" fue creado por Krutwig, Aresti y el fundador de ETA, Alvarez Emparanza, "Txillardegi", que hizo de él la lengua oficial de ETA."

(14) Zatarain. "Diario Vasco", 1973. Ilibeltzak 24.

—“La gente dice que la utilización de la H en el euskera es comunista. ¿Cree Vd. que los que la utilizan en sus escritos son de tendencia comunista?”

—“No sé si la gente dice que la utilización de la H es comunista. Lo que sí sé es que la gente dice que la utilización de la H es absurda; no es cierto que todos los que utilizan la H sean comunistas, aunque sí es cierto que todos los marxistas-leninistas la utilizan. En broma, claro, un amigo mío de Jerez solía decir: “Yo no digo que todos sean de Cádiz, pero que todos los de Cádiz lo son, sí.” Lo mismo cabe decir en relación a “el batua”: que todos los extremistas en política marxista son furiosos partidarios suyos; cuanto más extremistas más (15).”

Ara, berriz, Lekuona'tar Imanol'en iritzia:

“La unificación del Euskera se enturbió y se ha convertido en cosa de mala fe y mala voluntad, con sectarismo extraacadémico (16).”

Guda aurretik ere gai maitea izan zuan beti Euskaltzaindiak Euskeraren Batasuna. A!, baña nolako arretarekin, nolako begirunearekin eta nolako bildurra-  
rekin artu zuan bere eskuetan eginkizun ori. Jakintsu  
utsen billera eta egiazko Akademi bait zan orduango  
Euskaltzaindia! Asmoz eta izpirituz, EUSKERAZAIN-  
TZA da gaur orduan Euskaltzaindia zana.

(15) Latiegi'tar Bixente. “Correo Español-Pueblo Vasco”, 1979. Iraillak 7.

(16) Lekuona'tar Imanol. “Hoja Oficial del Lunes”, Bilbao, 1978. Urrillak 16.

Orduango Euskaltzaindi aren altzoan mamitu zan Azkue'ren Euskera Osotua, eta Euskaltzaindiaren altzoan ari izan ziran euskaltzaiñek, Kanpion, Broussain eta Elizalde bereiziki, Azkue beraren zuzendaritzapean Euskera Osotua “osoagotzen”.

Ondo zekian Lekuona'k ori dana, lan ederra eginen bait zuan berak ere arlo berean geroxeago. Bañan eginkizun ua patxarazko lan geldia zan, lan sakona, laisterketarik, eta batez ere, indarkeririk gabeko lana, Akademi bateri zegokiona, jakintza-lana. Ez zan ua, Baiona'ko borrokalarien billeretako giroa; ez orixe! Giro aldaketa ori zeukan Lekuona Maixuak gogoan irakurri dituzun itz gogor oiek idatzi zituanean.

Ba-zekian, bai, Lekuona'k ondotoxo, zertaz mintzatzzen zan! Bera bait zan Euskaltzaindian Lendakari, Euskaltzaindiak bere itxura eta bere izatea —azala eta mamia—, “el batua” berri onen erruz, zearo aldatu zituanean. Aldaketa ortan aurrera jarraitzeko bota zuten, ain zuzen, era lotsagarrian, Lendakaritzatik Lekuona zarra. “Me echaron...”.

Ordurarte, Euskeraren Akademi izan zan Euskaltzaindia. Orduan, Euskeraren Akademi izatez utzita, “el batua”ren Buru Batzarra biurtu zan. Ara zer zion Joxejoakin Azurza'tarrak Donosti'ko izparringi batean:

“Detrás de la pantalla lingüística, se oculta desde el principio de este movimiento reformista del euskera, una ola de fondo político; de política vasca de

sectarismo y división. En política hay una estratagema a la que nos tienen acostumbrados los disidentes, quienes suelen ser, al día siguiente de una escisión, los primeros en levantar la bandera de la unificación. La unidad, o batasuna, es palabra mágica, especie de red caza-incautos que esgrimen las fuerzas que primero dividen y separan lo que ya existe para, basándose en los sentimientos de solidaridad y sensibilidad, atraer a su escisión a quienes no estaban enterados de la causa fundamental de separación (17)."

Ezin sinistekoa da "el batua"ren sortzalleak Arana-Goiri'ri dioten gorrotoa. Españi'ko "españikeri"-zale gogorrenak iñoiz izan diotena baiño askoz aundiagoa. Entzun:

Zoritxarreko Arantzazu'ko Billera ua baiño lenago Ermu'n alkartu ziran billera zaratatsu batean "el batua"ren aldeko gurutzadaren buruzagiak. Aietako batek ABIZENA itza erabilli zuan billeran. Laister erantzun zion beste batek asarre beroan:

"Ez aitatu eta ez erabilli emen "GIZON MADARIKATU" arek asmatutako itz ori" (18). Gaur Euskaltzaindikoa da, Arana-Goiri'tar Sabin'eri "gizon mada-rikatu" esan zion "abertzale" (?) ua: San Martin'dar Jon. Eta Euskaltzaindikoa zan ori esan baiño len ere: Euskaltzain osoa, eta Euskaltzaindiaren idazkaria.

Agian ardi galdu oiek ostera artaldera erakarriko

(17) Azurza. "Diario Vasco". 1978. Dagonillak 31.

(18) Arenaza'tar Josu: "El mito del batua". 54 or.

dituztelaren ustean, asko izan dira jeltzaleen artean, batere arrazoirik gabe burua "el batua"-zaleen arau-  
etara makurtu dutenak. Auen artean bat, Mitxelena'tar Koldobika Baiona'ko eta Ermu'ko billera oien ondorean Arantzazu'n 1968'ko Billera ospetsuan itz auek esan zitua:

"Nik emen, 1964'ean Baiona'n egindako Batzarrean artutako erabakiak artzen ditut oñarritzat (19)". Amoremate orri buruz onako itz auek idatzi nituan nik, Bilbo'ko izparringi batek eskatu zidan alkarrizketa batean:

"¿Cree Vd. que el PNV tiene menos interés por el Euskera que HB?", galdetzen zidan izparringiak. Eta nik erantzun: "Creo que ni el PNV ni HB tienen suficiente interés por el Euskera. En todo caso yo diría

(19) "Euskera" XIII zenbakia. 1968. 205 or.

Garrantzi aundikoa da emen Mitxelena'k diona. Euskeraren Batasuna beti izan da Euskaltzaindiaren kezka. Sortu zan unenetik, Euskeraren Batasun egoki baterako lan aundia, lan izugarria egin zuan leengo Euskaltzaindi arek: Billerak, Txostenak, Idazle guztiei Galdera-Bidaltzeak, Galdera Oiek Jaso eta Ikertzea, Alkarrizketak, Azterketa Sakonak... Azkue, Kanpion, Lhande, Broussain, Eleizalde, Altube, Orixe bera, Menendez Pidal..., nork ez zuan ariketa artarako, orduango euskaltzale-etatik, esku lagunkoi bat era gozoan eskeiñi? Arrigarria da egin zan lana. "Euskera" aldizkariko lenen zenbakietan aurki dezakezu, ez dana, baiña bai lan arren zati eder bat. Zoraturik geldituko zera. Ain bait da egokia!, ain bait da sakona!, ain bait da argitsua!!! Bâ, lan ua dana ez du ezertarako gogoan artu oraingo Euskaltzaindi onek. Lan ua sekulan egin ez ba'litz bezela, gizon ospetsu aiek sekulan jaio ere ez ba'lira bezela, soilki Baiona'ko Billerak, eta Billera aietako iraultzalari buru-beroak euki ditu gogoan Mitxelena'k, berak aitortu digunez. Euskaltzaindiak Euskaltzaindia ukatu du; oraingo onek lengo ua. Jarduketa orrek, argi adierazten digu Euskaltzaindi au lengo Euskaltzaindi ua ez dala. Gaur, Euskaltzaindi ua, Euskerazaintza data!

que el interés del PNV es más puro porque los peneuvistas van a la lengua por el solo amor a la lengua, mientras para los hachebiques la lengua es, ante todo, un instrumento de revolución. Pero tampoco los peneuvistas, muchísimos de los cuales ni se esfuerzan en aprender el Euskera, dan a la lengua toda la importancia que ésta tiene para el pueblo vasco. El euskera es para ellos, algunas veces, incluso materia de transacción. Así en el absurdo caso de la citación de Euskaltzaindia en el texto del Estatuto. "Cedamos en eso de la lengua a fin de conseguir acuerdos en otras cosas más importantes". Algo parecido a eso han hecho los padres de familia en la mayoría, casi en todas, las Ikastolas: "Cedamos en eso de "el batua" a fin de conseguir, al menos, que se siga enseñando la religión en las Ikastolas". Para no conseguir nada al final, ¡claro! Así hemos llegado a que las Ikastolas nacidas bajo el manto de la Iglesia y con el dinero de los abertzales del PNV, no sean hoy ni cristianas ni abertzales <sup>(20)</sup>.

Baiona'ko eta Ermu'ko billera aiek izan ziran beraz Arantzazu'ko Batzarraren aurreneko "atalak". Amar aldiz aipatu zituan Mitxelena'k Arantzazu'ko Batzar ontan Baiona'ko billerak! "Atalak" baño geiago oraindik. Arantzazu'ko Batzarra, Baiona'ko ta Ermu'ko Billerak bir-egite utsa izan zala ere esan bait diteke; Arantzazu'n egindako Batzar ua, Baiona'ko eta Ermu'ko Billeretan artutako erabakiak "bedeinkatzeko" bakarrik izan bait zan asmatua eta bildua.

<sup>(20)</sup> "El Correo Español - Pueblo Vasco". 7-IX-79.

Eta billera aiek ez bait ziran —oroí Lekuona'k esana—, izkuntza-jakintzazko billerak izan, politikeri utsezkoak baizik..., akats berdiñaz zikindua agertzen zaigu Arantzazu ezkerro Euskaltzaindiaren jokaera: politikeriaz zikindua.

Euzkadi guztian ezaguna da gaur "el batua"ren sortzalleak zer politika eta gizarte-bideetatik jo duten. Ez da beraz, gaur, bearrezkoa "el batua"ren politika-gogoa azaldu naiean bururik nekaaraztea.

"El batua"ren aldeko gurutzadaren "uztaillaren emezortzia" ("el Dieciocho de Julio"), Eibar'ko Zinketa izan zan, 1970'ean egiña; Baiona'n aurrena, Jorraillean; eta Eibar'en gero, Loraillean. Ez zeuden pozik "el batua"-zaleek Arantzazu'n Euskaltzaindiak egin zuanarekin. Gutxiegi iruditzen zitzairen; Arantzazu'n ez bait zuan Euskaltzaindiak "argi ta garbi" "el batua" sagaratu! Soilki Ñ eta LL kentzeaz eta H'a artzeaz mintzatu ziran an euskaltzaiñak, eta izki oiei buruz ere ez zuten ezer agindu; aolku-eman besterik ez zuten egin: "Begi onez ikusiko lukela (alegia) Euskaltzaindiak letra ori (H'a), bi bokal berdín naiz ezberdiñean artean erabiltzen astea". Eta ori baiño okerragoa dana, esaten zuan Euskaltzaindiak beste au ere: "Onék ez du esan nai gorago joan nai dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango <sup>(21)</sup>". H guztiei sarrera yarea ematea zan au, baña berrikerizaleak ez ziran atsegiñez gelditu. Izkuntza berri bat! zeukaten aiek ordurako tajutua eta izkuntza ori ezarri nai ziguten euskaldunoi indarrez Euskal-

<sup>(21)</sup> "Euskera", 1968.

tzaindiaren erabaki guztien gaindik; "Euskaltzaindiaren giro motelaren gaindik" (22). Gaur beren babeserako Euskaltzaindiaren izena aipatzen dutenak ez zien orduan Euskaltzaindiari auntzaren gauerdiko eztulari baño jaramon aundiagorik egiten.

"Establecen "Vocabularios" unificados y normas a seguir sin presentarlos a la dirección de la Academia, atropellando derechos de los académicos que no aceptan esa orientación". "Y con promesas falaces amañaron esa llamada Batasun-Kutxa (23)".

Sei milla-edo itz zeuzkaten "Batasun-Kutxa" ortan bilduak; aietatik asko Prantzi'ko eta Españi'ko erderetatik artuak; eta baita Gaskuña'ko "patois"etik ere! Mordolokeri ori artu-arazi nai zioten indarrez Euskaltzaindiari ziñegilleek.

Ara nola agertzen digun Azurza'tar Joxejoakiñ'ek Zin-Egite gudukoi aren edestia:

"Juramento Público de desacato a Euskaltzaindia". (Firmado en Bayona y Eibar en Abril y Mayo de 1970.) Promotores: Gabriel Aresti, Xabier Quintana, José Luis Alvarez Emparanza.

—"Siendo D. Manuel Lekuona presidente de EUSKALTZAINDIA rechazaron públicamente la normativa ortográfica y sintáctica de la Academia de la Lengua Vasca, "jurando por su honor" utilizar, promover y difundir la propuesta por ellos.

(22) Lizurdiaren itzak.

(23) Labayen'dar Andoni. L. C.

—"Recogieron en un libro titulado "Batasunaren Kutxa" escrito por Xabier Quintana y Gabriel Aresti, con prólogo de Patxi Altuna y José Luis Alvarez Emparanza, sus normas, a las que llamaron "euskera batua".

—"Seis meses después, tras ser vulgarmente difamado, era derrotado en unas elecciones académicas muy "democráticas" D. Manuel Lecuona y quedaba cambiado el curso de la Academia Vasca.

—"Franco mandaba desde Madrid. Los vascos, por no ofrecer al opresor un arma que fomentase aún más la división, se callan".

—"Varios de estos juramentados son miembros de número de la actual EUSKALTZAINDIA o detentan cargos en ella.

— ¿Con qué autoridad puede ninguno de estos "escritores" juramentados pretender que se respete a EUSKALTZAINDIA, de la que ellos se burlaron, mofaron y luego irrespetaron?

— A los diez años de una obra españolizadora y de afrancesamiento del euskera, ofrecemos este material histórico para meditación y recuerdo de una violencia (24).

"Gure ohoreagatik —diote ziñegilleek—, Batasunaren Kutxa liburuán agertzen diren euskerazko idazmoldeez eta erregelez baliatuko garala, zin egiten

(24) Azurza'tar Joxejoakin. Orri soilla.

dugu". Gero, 63 ziñegilleen izenak datoz; azkenekoa Mitxelena'tar Koldobika'rena. Baña azkeneko izen au ez bide zan noski oso era garbian zerrenda artan sartua:

"Bergara'n (ez Euskaltzaindiaren Biltzarrean, urteren batzuk leenago baizik), Mitxelena'k zin ori aipatuz "la jura de Santa Gadea" gogoratzen ziola esan zigun; berak ez omen zuan ziñik egin. Izan ere nola ziñ egin "nik sortuko dedan aditz-jokaera erabilliko det" esanaz? (Aditza moldatzea Mitxelena'ren eskuetan uzten zuten ziñegilleek). Aresti'k edo Kintana'k edo liburua agertarazi zuenek, Mitxelena'ren izena zerrendan jarzear, gezur aundi bat idatzi zuten <sup>(25)</sup>).

<sup>(25)</sup> Zatarain'dar Anbroxio. Latiegi'tar Bixente'ri eskutitza. 1981. Otsailak 11.

## "EL BATUA"-ZALEEN ARRAZOIAK.

### 1.<sup>a</sup>: ANTZIÑAKOEN OITURA

Errien izen asko H'rekin idatziak agertzen dirala (esaten digute "el batua"-zaleek) Kukulla'ko Millan Deunaren Lekaidetxean, XI mendeko larruki batean. Ala da; baña ez du orrek ezer esan nai. Kukulla'ko lekaide aiek latiñezko giroan murgildurik bait zeuden.

Latiña zan orduan Jakintzaren izkuntza bakarra. Latiña bakarrik erabiltzen zan idazkietan. Kukulla'ko larrukian ere gure errien izenak latiñezko esaldietan sartuak daude, latiñez idatziak berak ere. Eta latiñez idatziak daudelako, arrazoizkoa zan lez, erdi-aroko latiñaren idazkeraren araura idatziak. Baña gu ez gera euskeraren itzak latiñez idazten ari, euskeraz baizik. Eta latiñak H'a bearrezkoa ba'zuan, Euskerak ez du batere H'aren bearrik.

Polita izango litzake XI mendean latiñak puztutako lekaide batzuek..., latiñez idazten ari zirala..., "latin-dutako" euskal-itz batzuek..., latiñez H'rekin idatzi zituztelako..., gaur, XX mendean, gu ere, euskeraz —ez latiñez—, idatzi nai dugunean, H'a erabiltzera beartuak egotea! Ta ori, beste izkuntzek H'a uzten ari diranean!



Gaur ez da munduan iñungo izkuntzetan XI mendean idazten zan bezela idazten; ezta XVIII mendean idazten zan bezela ere! Itzegiñ ere, ez da orduan bezela itzegiten. Cervantes, adibidez, ez da XI mendekoa, baña gaur ez ditu iñork aren "lueñas tierras", "asimesmo", "traya", "vello" eta beste ainbeste itz eta esaera erabiltzen. Zer esan, Cervantes utzita, Bibar'ko "Zid" Errui Diaz'en Poemara jotzen ba'dugu?

Kukulla'ko larrukiaz ari galararik, esan nai nituzke beste bi gauzatxo ere:

— Lenengo gauza: A) Larruki au idatzi zuan lekaidea, "Anai Lego" edo eskolarik gabeko "Lekaide morroi" oietako bat besterik ez zala; oso baldarra bait da darabilkian lañera; amaikagarren mende artan Lekaidetxetan erabilli oi zana baiño baldarragoa.

B) Darabilkian idazkeran argi erakusten digula bere ezjakintasun ori; nai duan bezala, batere legezentzurik gabe bait darabilki izki bat edo bestea, ots bera adierazteko: "C" edo "K" edo "Q" adibidez, edo "GU" edo "G". Zer esanik ez, biribiziko izki-naasketak sortzen ditula "Ñ", "LL", "TX", "J" edo "X" soñuak larrukira eramateko. "V" eta "B" ere edozein modura ezarri oi ditu eta itz bera batzuetan "B"rekin eta beste batzuetan "V"rekin idatzi oi digu; "Ullibarri" edo "Ullivarri" adibidez.

C) "H" a ere, dirudianez, ortografi-nasketa ortan, "J"ren antzeko aize-soñua ez baiña, beste izki baten soñua adierazteko erabiltzen duala maiz: "G"ren soñua

batzuetan, "K"rena edo "Ñ"rena edo "LL"rena agian beste batzuetan.

D) Ezjakiña izateaz gañera, orduan Euskalerra zan, Errioxa'ko gure Anai ua erdalduna zala, ta ez zituala euskal errien izen euskaldunak ondo aditzen, eta are gutxiago zuzenki idazten. Aundia izan zan erdiaro urrun artan Kukulla'ko Lekaidetxearen izena, eta Euskal-erritik ez ezê etortzen ziran atzeritik ere lekaidegaiak bertara. Auetako bat izan zan eskierki larruki zaratatsu au idatzi zuana.

—Bigarren gauza: Kukulla'ko Lekaide Morroi onek baiño askoz leenago Erroma'ko Strabon eta Tolomeo-gandik-eta asita, idazle askok eman dizkigutela izen euskaldunak; garai artako arrizko oroigalluetan-da, era berean, izen euskaldunik aski agertzen dala. Gero, berriz, erdiaroko larrukietan ugari iritxi zaizkigula gure egunotaraño euskal lurren, euskal urien eta euskal jendeen izenak, baiña aro zarreko ta erdiaroko euskalitz-mordo oparo ortan ez dala, bakan-bakan batzuek kendu ezkeru, batere "H"rik agertzen. Ez al du lekukotasun orokor orren zama izugarriak Kukulla'ko Lekaide Morroi erdaldun ezjakiñaren larruki bakarrak aiña balio? Arrazoi du Labayen'dar Andoni'k: "Zaill izango zaio edozeñeri "H"arentzat etimolojiaren edo edestiaren aldetik arrazoirik aurkitzea". Ez beintzat antziñako garaietako idazkeraren aldetik (1).

(1) Labayen'dar Andoni. "La Voz de España", 20-V-1978.

## 2.<sup>a</sup>: BOKALEN BEREIZI-BEARRA

Au ez da arrazoia. Iñungo izkuntzetan, ez da beintzat H'aren alde bokalen bereizi-bearra arrazoitzat aurkeztu.

Adi, irakurle: Bokalak edo abotsizkiak **Atxea-ren bitartez berezi-bearra da gure oraingo solas onen gaia**. Azpimarratutako esaldi ortan abotsizkiak bereizteko, bearrezkoa al zaizu nik emen, "H" a erabilliaz, **"HatxeHaren bitartez bereHizi-beHarra da gure oraHingo solas onen gaHiHa" bir-idazteHa?**

Araba'ko Salviatierra'k Agurain du euskeraz izen. Hagurain idazten dute "el batua"-zaleek. Ez dakit zergaitik, H batekin bakarrik. Euskaltzaindiak, ordea, bi bokal berdinean naiz ezberdiñen artean h'a sartzea begi onez ikusiko lukeala, esan zigun Arantzazu'n <sup>(1)</sup>. Sar dezaiozun bada Kukulla'ko larrukiaren araura A eta l'ren artean beste H bat Hagurain'eri: HaguraHin. Baña, "gorago joan nai zutenen saiaketak ere ondo ikusiko zituala", esan bait zigun Euskaltzaindiak, eta itz askotan G izkia H biurtzearen aldekoak ere bai bait dira gure artean batuzaleak, sartu dezaiozun Agurain'eri irugarren H ori!, "HAHURAHIN", eta agoskatu ditzegun H oiek —ez agoskatzekotan zer arraiotarako nai ditugu bada?—, agoskatu ditzegun H oiek gaztelerazko J'ren

(1) "Euskera", XIII, 1968; 250 or.

antzeko ats-soiñutxo batekin, eta itz pinpirin bitxia biurtuko dugu Araba'ko erri bikain orren izena: JAJU-RAJIN. Euskal-errian ote gabiltz, ala arabitarren lurraldeetara igaro ote gera?

Alperrikako H'rik gabe, ez al da "AGURAIN" askoz ere izen txukunagoa, garbiagoa eta errezagoa? Mundu guztiak gañera AGURAIN esaten ba'du, eta "hatxezaleek" ber-berak diotenez, H'rik agoskatu bear ez dalako mundu guztiak AGURAIN esan bear ba'du, zer falta egiten diote H'ek AGURAIN'eri?

Bokalak bereizteko ez da H bearrik, ez bait dute bokalek bereizi bearrik. Ba-dute berez nortasunik naiko berak bakarrik alkarrengandik beren buruak bereizteko. Beste munduko izkuntzetan ez dute bata bestearrengandik bereizteko H'aren bearrik oraindaño-koan izan. Eta..., ezta Euskeran ere! Gure bokalek ez ote dute bada, erderetakoek aiña nortasun eta gaitasun?

Ez bezait iñork esan ez ditudala "el batua"zaleen asmoak ulertzen; aiek H'a bi abotsizki-tartean "dipton-go" edo "abots-bikoak" puzkatzeko, abotsbikoen "bi abots" oiek bereizteko, erabiltzen dutela; ori ez bait da egia! "Lehendakari" ez da abotsbikoa; ezta "bihotza" edo "zaharra", eta auen antzeko anei itz; ez dira abotsbikoak. Gañera, abotsbikoak puskatzeko, bagenduan lendik ikur bat: mundu guztiak erabiltzen duana: "dieresis" edo "goi-bipunttukoa".

### 3.<sup>a</sup>: ESAN-NAI EZBERDIÑEKO ITZAK BEREIZTEKO

Baña au ere ez da arrazoia; au ere txatxukeri aundi-aundia da. Ba-dira berdin idazten diran itzak, baña gauza ezberdiñak adierazten dituztenak. Adibidez, ORI, margo baten izena ("soroko gariak ORIAK dira uztaillean"); ORI, itz erakustallea (txapel ORI ez da nerea). Ba-dira beste orrelako itz batzuek: "Abenduko **il** ontan **il** zan nere ama". "Iturriko **ura** edaten ari da gizon **ura**"; eta abar.

Irakurle: ulertu al dezu esan nai ez berdiñeko itz berdin oietan bakoitzaren esan-naia, naiz H'rik gabe idatziak egon? Orduan itz oiek alkarrengandik bereizteko ez dugu batere H'ren bearrik. Oroz ezazu, gañera, "el batua"-zaleek H'rik ez dala agoskatu bear esaten dutela. Bâ..., itzegiterakoan, itz oiek, beren esan-nai ezberdiña nasteko arriskurik gabe, naiz H'rik agoskatu ez, bata bestearrengandik argi eta garbi bereizten ba'dira, ez dute idazterakoan ere, bereizketa ortarako, H'aren bearrik.

Beste izkuntzetan ere ba-dira orrelako itzak ugari. Ona gaztelerazko batzuk: "El ama ama a su marido y dice: amo al amo"; "en este momento bajo al bajo"; "en este momento bajamos (orain-aldia) como bajamos

(len-aldia) ayer"; "suelo limpiar el suelo"; "dije que te daré el dije"; "quedamos (orain-aldia) como quedamos (len-aldia) ayer"; "como como tú"; eta milla eta milla geiago, mundu guztiko izkuntzetan; ta h'rik gabe bereizten dituzte, sekulan utsik egiteke, itz oien esan-naiak, mundu guztiko erdera guztietako erdeldun danek. Euskaldunok erdaldunak baiño inozoagoak gerala uste ote du Euskaltzaindiak? Erderetan erdal-dunek... ez dute H'aren bearrrik? Ezta bâ euskaldunok ere gure izkuntza gaixoan (1).

Ba-zekian noski Anabitarte'tar Agustin'ek zer zion onako itz auek jalki zituanean: "Nik ez nioke H'ari beñere lekuri emango! (2)".

Ez zuk, Agustin, eta ez buru-barruan oraindik zentzu-apur bat duan edozein euskaldunek! Ez bait du erdi-illik dagoan gure Euskerak arnas artzea eragozten dion orrelako biurrikeririk bear!

(1) Ona zer idatzi nion nik Liverpool'eko Unibersitateko Trask Izkuntzalari ezagunari bere eskutitz bateri erantzunaz ("Karmel", 1981, 1.<sup>a</sup> zenbakia). "Ego-alde ontan "H"rik ez dugula agoskatu bear", esaten digute "el batua"zaleek. Agoskatu ez eta idatzi bai? Zergaitik ori? Bestalde zuk aipatzen dituzun bi bokalen arteko "h" oiek parragarriak dira guretzako; ia euskaldun danentzako!, eunetik ia larogeitaamabost euskaldunek (%95) ez bait dugu "H"rik agoskatzen. Parregarriak dira..., baita bi bokal berdiñen arteko "H"ak ere, guk bokalak bikoiztatzen ez ditugulako. Ori egiten ba'dugu, itzari indar geiago emateko bakar-bakarrik egiten dugu. Adibidez, "oso zarra" esateko "zaarra" esaten dugunean; edo "zaarra", zartasunari indar geiago eman nai ba'diogu. Itza bera bikoiztatzea bezala da bokala bikoiztatzea. "Zar-zarra" = "zaarra" = "txit-zarra"; ¡"superlativos"!

(2) Anabitarte'tar Agustin. Labayen'eri eskutitza. 16-VII-1973.

#### 4.<sup>a</sup>: IPARRALDEKOEN OITURA

Iparaldeko gure anaiek beren euskalkietan H'a bearrezkoa ba'dute, erabilli dezatela euskalki aietan, bearrezkoa duten itz bakoitzean. Gu ez gera aiei H'rik kentzera joan, eta ez gera joango ere. Ez bitez berak guri indarrean H'rik sartzera etorri. Bai! Ba-dakit ez dirala etorri, eta ba-dakit ez dirala etorriko ere. Baña Iparaldeko euskaltzaiñen jokaerak ematen digu min; orain-orain arte egoaldeko euskaltzaiñen artean "el batua"-ren aurkakoak geiago izan bait dira "el batua"-ren aldekoak baño: Amar, aurkakoak; zazpi, aldekoak.

Iparaldekoak H'a agoskatzen ba'dute, guk ez bait dugu agoskatzen! gañera, beste gauza bat ere gogoan artu bearra dala uste dut:

Iparreko euskaldunak, euskaldunetatik EUNETAN AMAR (%10) izatera ez dira iristen. Gu, egotarrok, EUNETAN LAROGUITAMAR baño geiago gera (%90 baiño geiago). Iñork zerbait ezartzekotan nork nori ezarri bear lioke "zerbait" ori? Baiñan, beude pakean ipartarrak! Gu ez gera indarkeriz-ziri-sartzearen zale. Ba-dakit, bai, lurralde aietako euskaldun-jendeek ere orrelako zaletasunik ez dutela. Ez ditut euskaldun errikoi aiek buruan, nere barne-oñaze au agertzera-koan.

Aipatu ditudan eunetako zenbaki oiek beste zerbait ere adierazi nai digute, nere ustez beintzat: an eta emen il-zorian daukagula euskera. Baña iñun euskera salbatzekotan, emen salbatuko dala, Arantzazu'ko Billera artan bertan Lafitte'k esan zuan lez: Iparraldean alegia, Euskera galdua zala; iñun burua jasotzekotan emen, egoan, jaso bear zuala; eta gu, (egoaldeko) aiengaitik (iparraldekoengaitik) Euskeraren gorputz aulduari indarrez H'a txertatzen ez asteko (1). H'a, ordea, euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa izaki!

Gai oni buruz azalpen bitxi bat egin zidan bein Azurtza'tar Joxejoakin injenieruak. Aga bat marraztu zidan nere begien aurrean ingi zuri-gañean. Agaren ertza batean eun arroako arri aundi bat, eta beste ertzean amarreko arri txiki bat. "Nun dago or balantza-puntua?", galdetu zidan.

Arrazoi osoa du Axurtza adiskideak. "El batua"ren gurasoek ordea, arri txikiruntz jo zuten eta Benaparroa'ko euskera aukeratu zuten, euskaldun geienen,

(1) Ona emen Lafitte ber-beraren itzak, Arantzazu'ko Biltzarrean Euskaltzaindiak erabilli zuan magnetofonetik Berrondo'tar Kepa'k jasoak: "H, galdua emen orain... Lehen?; ori ez da arrazoi. H galtzen asi da (Iparraldean ere); Kontsonante ondoren, ken!... eta bai bokal artean ere... Ustaritz'en, Baigorri'n, eta itsas-egian ere. Eskuara ere hiltzen doa. Nunbait salbatuko ba'da hemen izanen da (Egoaldean). Beraz, danok saia behar ginuke hemengoaren alde (emengo Euskeraren alde): hangoak eta emengoak. Nik ez nuke H sartuko hemen. Gu (Ipar-aldean) hiltzera goazi. Hiltzera doan ontzi bati ez lotu! Bear ba'da nik ez dut esperantzarik bihotzean... (baña esperantzarik izateko-tan), hemendik (Egoaldetik) behar da". ("Euskera", XII 1968, 224 orria. Irakurle: (...) artean sartutako itzak nereak dira. Magnetofonean zatika artutako izketaren zentzua argitzeko ipiñiak).

ia-ia euskaldun guztien eskubideak zanpatuta, izkera berri au sortzeko; a! ori bai, Benaparroa'ko euskerari Prantzi'ko eta España'ko itzak eta erderakadak ugari erantsiaz! Ez da oker ibilliko, "el batua", euskalkiak ez baiña, Frantzera eta Gaztelera baturatuaz sortutako Izkuntza Batu berri bat dala diona! Ba-ditu laterazko eta latiñezko joskerak ere, baiña gaztelaratik eta frantzeratik artuak, "el batua" sortu zutenak ez bait zekiten laterarik.

Beste gauzatxo bat ere esan nai nuke. Iparreko euskaldunak %10 besterik ez dirala, geinaz, ikusi dugu. Gañera,

- 1 — Ipartarrek ez dituzte idazten dituzten H danak agoskatzen.
- 2 — Ez dituzte ango idazle danek H'ak toki beretan idazten.
- 3 — Beraz, H asko alperrikakoak dituzte.
- 4 — Eta, azkenik, ipartar askok (itxas-ertzeoek adibidez), EZ DUTE BATERE H'RIK AGOSKATZEN.

Zenbat ote dira H'a agoskatzen duten euskaldunak? Eunetan bost (%5)?

Zalantzarik gabe esan genezake, Iparraldean H'a erabiltzen dutenak baiña askoz geiago dirala emen "I" eta "A"ren artean "X" bat ("ogixa", "begixa", "Azkoitixa"...), edo "Y" bat sartzen dituzten euskaldunak

("ogiya", "begiya", "Donostiya"...). Askoz eta askoz geiago. Gogoratu al zaie euskaldun oiei "X" ori edo "Y" ori indar bizian gañerako euskaldunoi arreraztea? Zer arrazoi dute orduan Euskaltzaindiak eta "el batua"-zaleek guri indarrez Iparraldean bertan seguru ez dagoan H'a sartu nai izateko? Bat bakarra: H'a euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa izatea!

H'a Iparraldean ere eskier, (seguru), ez dagoala esan dut. Ez bide da beintzat oso gauza argia H'aren eskieratasuna. Gai orri buruz "Euzkadi'ko Iparraldean emezortzi bat H naikoak ditut", esan omen zion Iratzeder ipartarrak Akesolo'tar Lino Euskerazaintzako Lendakariari. Orrelako zerbait esan omen zion Euskaltzaindiari ere, Iratzeder'ek berak. Ain zuzen Iratzeder' en H'en auzi oni buruz ona zer idatzi-berri didan Zatarain'ek:

a) Iratzeder'ek Euskaltzaindiari zenbat H eskatu zizkion ziur jakitearren, Euskaltzaindiari idatzi ziola berak (Zatarain'ek).

b) Euskaltzaindiaren izenean Lizundia'k erantzun ziola, eskutitzez. (Lizundia'ren gutun onen fotokopi bat bidali bait dit Zatarain'ek, Ikus irakurle zer dion euskaltzaindiaren ikurradun ingian idatzita dagoan Lizundia'ren eskutitz orrek):

"Hemen bidaltzen dizut Iratzeder'en kopia. (Iratzeder'ek Euskaltzaindiari aurkeztu zion idazkiaren kopia.)

Ikusiko duzu zerbait falta dala; zerrendaren buka-

era; baiña hori ez dut arkitu, eta behar bada ez zuen emango."

c) Lizundia'k aipatzen duan kopia ortan, 15 itzeta-rako eskatzen du Iratzeder'ek H'a baiña lau auek bakarrik agiri dira bertan idatziak: "Behi, Nahi, Zahi, Ohi".

d) Iratzeder'en 15 itz oiek zein ziran era bat jakiteko, Iratzeder berari idatzi omen zion gero (Zatarain'ek), eta Iratzeder'ek itz-zerrenda au bidali:

"AHI (Gipuzkeraz, "ai": iriñez eta esnez egin-dako janaria). AHUL, (Gip., aul). AHUR, (Gip., eskua bilduz egin ditek txokogunea). BEHI, (Gip., bei). BEHIN, (Gip., bein). BEHAR, (Gip., bear). IHAR, (Gip., igar). IHARDUKI, (Gip., jardun). IHAURRI, (Gip., zabaldu; adibidez belarra). IHAUTE, (Gip., iñaute). NAHI, (Gip., nai). SEHI, (Gip., sein, mirabe). XAHU, (Gip., txau, garbi). ZOHI, (Gip., zotal; belardun lurpuska). OHI, (Gip., "oi", "oitu").

Amabost itz guztira.

"Bertzalde —dio Iratzeder'ek Zatarain'eri bidalitako eskutitz ortan—, HAU, HORI, HURA, "H"ekin ematea ongi litzake, bainan ez **beharrezkoa**".

e) Amabost itz bakar-bakar oientzako Euskaltzaindiari H'a eskatu ondorean, auxe esan omen zuan geroago billera batean Iratzeder'ek, Zatarain'ek idazten didanez: "H bat aski ginuke, "nahiz", "zu ikusi nahiz etorri naiz" esatekoan "naiz" "naiz" ez esatearren".

“Guk ordea “naiez” esaten dugu-ta, “zu ikusi naiez etorri naiz” esaterakoan “kakofoni” edo “soñu zakarrera” jausteko arriskurik ez dugulako, guretzat H bakar ori ere alperrikakoa da”, esanaz amaitzen du Zatarain'ek bere eskutitza (2).

Zatarain'ek dion bezala guk ez dugu “H” bakar orren bearrik. Aitortu dezagun ordea Iratzeder'en goratarrez, onek ez zuala “H” bakar ori guretzat eskatzen; ipartarrentzat bakarrik eskatzen zuala. Ez Euskalerra osorako sortu litekean Euskera Bateratu batentzat, ez; soilki Iparraldeko Euskerarentzat baizik.

Eskerrikasko Aita Iratzeder! Zentzu onaren alde eta Euskeraren alde egoki jokatu zera. Milla esker.

Agian, Aita Kardaberaz zaarrak ere, berak uste baiño egi aundiagoa esan zigun H'a euskalduna ez zala oles egin zuanean, jatorriz Iparraldeko Euskeran ere izki ori ez bait da seguruaski euskalduna. Strabon'ek eta beste antziñako idazleek gure errien eta jendeen izenak ematerakoan ez zuten H'rik erabiltzen. “H”a atzerritik etorria da. Ez frantzeratik, frantziarrek ez dute bâ “h”rik agoskatzen. Nere ustez izki ori Inghlanderritik etorria dugu, ez bait dugu aantzi bear erdi-aroan gure Ipar-Lurraldeak Inghlanderriko erregearen Jauntzapean egon zirala mende luzeetan, eta Inghlanderriarekin arreman aundiak izan zituztela (3).

(2) Zatarain'dar Anburtsi'k neri egindako eskutitza (11-II-81).

(3) 1152'an egin zan Inghlanderriko Endika II'a, ezkontzaz, Baiona'ko Jaun. 1451'an irten ziran, betirako, inghlanderriarrak uri artatik.

Nere iritzikoa agertzen da, gutxi gora-bera, Urres-tarazu'tar Andoni, “Umandi” ere:

“La letra H que solamente ha sido utilizada hasta ahora en nuestros dialectos norteños, **como una influencia más, según opinamos, del o de los erderas**, y que el “euskera batua” trata de generalizarla como presunto medio de unificación; pero siendo los que han venido empleando esa letra, con una gran diferencia, los menos en el conjunto de los euzkaldunes, parece lógico que fueran ellos los que la fueran abandonando, como ya lo habían empezado a hacer además, y como medio más fácil, más cómodo y más adecuado para llegar en ese nivel a una rápida unificación tan deseada por todos.

Para subrayar nuestro criterio **del origen erdérico** de la H en el euzkera, copiamos aquí lo que dice Azkue en la revista “Euskera” de Euskaltzaindi “XVI Urtea, I-II zenbakia - 1935 IIbelta-Garagarrilla”, página 115: “4.<sup>a</sup> Se vale (el libro de “Refranes y sentencias”) mucho de la “h” pero, según creo, no porque la pronunciasen sino por imitar a escritores castellanos. **La prueba de ello es que varios vocablos los escribieron a veces con esta letra, otras sin ella...**” (Nik azpimarratua) (4).

Jatorriz euskalduna ez dan izki ori sartu nai digu orain Euskaltzaindiak indarra-bitarte; Iraultzalari artean iraultzaren ikurra izateko aukeratutako H'a!

(4) “Euzkera”, 19 or.

“H’rik gabeko batasuna la unificación a la española izango litzake, eta ori..., ori ñola ere ez”!, deadar egin zuan Txillardegi’k Euskaltzaindiaren Bergara’ko Biltzarrean 1978’gn urtean.

Bapo Txillardegi! Ba-duk orixe, bere burua izkuntzalaritzat daukan batentzat arrazoi dotorea! Gañera, gañera, Txillardegi, espaiñarrengandik zerbaitek bereizten ba-gaitu, H’rik ez erabiltzeak bereizten gaitu, espaiñarrak h’z beterik bait daude, eta espaiñarrak baiño geiago oraindik espaiñarren guraso-edo diran arabitarrak!

## 5.a: GAZTEEN JOERA IZATEA

Ori da Mitxelena’k bere burua “el batua”ren alde jartzeko, izan zuan arrazoa, arrazoi bakarra, “bizitzatik artutako arrazoa”, “razón biológica”, beste motako arrazoirik arkitzen ez zuala aitortu ondorean.

El Sr. Michelena ha declarado en varias ocasiones —dio Labayen’ek— que tan arbitrario es el empleo de la H como el de su supresión (1).

Gazte izatea ez da iñungo tokian “arrazoi bat”. Ezta zarra izatea ere! Bai zarrek bai gazteek, batzuetan izaten dute arrazoi, eta beste batzuetan ez. Eta arrazoirik ez dutenean arrazoi ematea, zarrei eta gazteei, guztiei, gaitz aundia egitea da. “Arrazoiak” ez dira “griñak” bezela biologiazko gauzak, logikazkoak baizik. Toki onean lirake gurasoak eta irakasleak, “gazteen joerak” diralako beti gazteen griñen alde jarri bearrean arkituko ba’lira!

(1) Labayen: “Sasi-Batasuna”, 6-7 or.  
“H”a euskaldun ia-danen oituraren aurka dago. Zearo alperrikakoa da. Milla aldiz zallago egiten du, berez aski zalla dan gure izkuntza. Arrazoi guztiak “H”aren aurka dagoz, eta arrazoirik aundiena, une ontantxe, eriotz-arrixkutik bizirik atera dedin, Euskerak orrelako txatxukeririk ez duala bear”, erantzun nion nik Inghlanderriko Liverpool’eko Trask izkuntzalariari eskutitz batean. (Karmel 1981’ko lenen zenbakia.)



Gazteak berak ez lirake noski, gazte-joera ori benetako arrazoitzat aurkeztera ausartuko. Parragarria bait da.

Eta gazteen joeraz esaten dedana esango nuke zarren joeraz ere. Gu ez gaude "el batua"ren aurka, ori zarren joera dalako.

## 6.<sup>a</sup>: EUSKALTZAINDIK ALA AGINDU DUALA

Ez da egia, Euskaltzaindiak ez bait du beñere orrelako gauzarik agindu, bañan agindu ba-lu ere, baliorik gabeko agindua izango zan ua.

— Euskaltzaindia ez da iñor erriari izkuntza berri bat arrerazteko. Ezta euskera-mota berri bat legezko egiteko ere. Erria, eta erria bakarrik, da izkuntzaren jabe! Beste era batean jokatu zuan guda-aurreko Euskaltzaindiak!!! Gaur Euskerazaintzak jokatu nai duan era berean, ain zuzen! (1).

(1) Entzun A. Mokoroa'ren itz auek: "Nuestra lengua, con su histórica diversidad de dialectos hablados y literarios, es UN BIEN COMUN... Nadie puede creerse autorizado a meter mano en ella con propósito de reforma, sin consentimiento del legítimo dueño. La lengua vasca es de todos nosotros; y ninguna misión de interpretar las exigencias de nuestro bien común tienen recibida de nadie ni los lingüistas ni los gramáticos, ni los técnicos, ni los maestros, ni los escolares, ni los aficionados a escribir, en su calidad de tales. Todos ellos harán bien en ayudar según su aptitud al salvamento del Euskera en peligro, con tal de empezar por reconocer que el Euskera no es ninguna pertenencia suya, ni un despojo inerte de naufragos a merced del primer ocupante. Porque el Euskera tiene dueño. **Mientras haya un pueblo euskaldún, es él y sólo él, el dueño de la lengua vasca;** el único árbitro, también, de cualquier posible acercamiento y aun fusión de los actuales dialectos..." (Mokoroa'k berak azpimarratua.) ("Lengua Vasca de Hoy y de Mañana", 39 ta 43 or.)

— Lentxeago esan dugun bezala, Euskaltzaindian, iparraldekoak kenduta, emengo euskaltzaiñak geienak, amar zazpiren aurka, “el batua” atsegin ez zitzaien gizonak izan dira orain arte. Iparraldeko euskaltzaiñek H’aren auzia bezelako gauza garrantzitsu baterako, euneko soilki amar euskaldun bakarren ordezkari dirala gogoan euki bear lukete. Ez dakit zenbait aiñako neurrian zor diegun edo zor ez diegun iparraldeko euskaltzaiñei izkera berri onen indarrezko sarketa. Baña..., bai susmo mingarria gelditzen zaigula biotzean egoaldean euskera zar betikoaren maitale geran guztioi!

Orain, “el batua”ren aurkako ziran amar euskaltzaiñetatik, il zaizkigu bi: Lojendio eta Iraizoz. Bi auen tokira —nola ez?—, bi “el batua”-zale sartu ditu Euskaltzaindiak. Ori, ordea, joku garbia al da? Emendik aurrera ere, zer ez ote du egingo Euskaltzaindiak? Era ortan laister —eta errez!—, euskaltzain guztiak “el batua”-zaleak izango dira! Euskaltzaindi-baitako autaketa oietan pentsatzean, iparraldeko euskaltzaiñetara joan oi da, oartzeke, gure gogoia.

H’aren auzira itzuliaz esan dezagun Akademiek ez dutela izkuntzei buruz orrelako eskubiderik. Orixe esan zuan Donosti’ko izparringi batean Alemani’ko Koloni’n irakasle dan Brettschneider jaunak <sup>(2)</sup>. Ez da, noski,

<sup>(2)</sup> La Voz de España, 25-VIII-74.

bera bakarra era ortan mintzatu dana. Iritzi bereko jende asko bait da Euskalerrian <sup>(3)</sup>.

<sup>(3)</sup> “Izkuntza bat ez dute jakintsuek egiten, erriak baiño... Izkuntza baten indarra eta bizia, aberastasuna eta iturria, itzegiten duan errian daude”... “Zergaitik utzi ote dugu gure amagandik ikasi genduan Euskera garbi eta txukun ura?” (Errexil’dar Joxemari. “Goiz Argi”, 4-X-80.) Egi mardul-mardula dio Errexil’ek. Izkuntza bat ez dute jakintsuek egiten. Ez da munduan, eta ez da len ere izan, jakintsuek, edo akademi batek, egindako izkuntzarik, “Esperantoa” bezelako mamu-izkuntzaren bat izan ezik. Ez da izan munduan eginkizun ortara ausartu dan akademirik ere gure Euskaltzaindi ausarditsu au izan ezik.

## 7.<sup>a</sup>: EUSKALKIAK GARESTIAK IZATEA

Orra or, azkeneko aldi auetan "el batua"zale batzuek beren izkeraren alde aizatzen ari diran arrazoia (?): Erakuskintzarako, Irratirako, Zine-Mintzeetarako eta abar, Euskalkiak erabiltzea garestia izango omen litzakela.

Izan ere, Euskadi'k bere Buru-Jabetasunaren zati bat lortu duan ezkerre, arazo berriak ari zaizkigu sortzen:

1.<sup>a</sup> — Ikastoletako liburuetarako zer Euskera erabilili? Zalantzarik gabe, Bizkai'n Bizkaiera eta Gipuzkoa'n Gipuzkera. Araba'n eta Nafarroa erdalduneari Euskalerraren Erdiko Euskera, euskaldun guztiek ulertzen duten Euskalkia, Azkue'k aurkeztu eta euskaldun danek pozik onartu zuten Gipuzkera.

Unibersitateetan, eta Batxiller-Ikastetxeetan? Edozein euskera, ordurako ikasle guztiak Euskera Osoa ondo ezagutu eta errez ulertuko bait dute, gure egitaraua lenen mailleko ikastoletan ontzat artzen ba'da. Irakasle bakoitzak erabili beza, beraz, bere liburuak idazteko eta irakasteko ondoen ezagutzen duan Euskalkia.

2.<sup>a</sup> — Irratian eta Ikus-Irratian? Bizkaiera eta Gipuzkera, biak era eta neurri berean. Ots; ez albiste bakoitza bi euskalkietan emanaz, ez; albiste bat bizkaieraz, bestea gipuzkeraz, gai bat bizkaieraz, bestea gipuzkeraz esaka baizik. Eta berdin Ikus-Irratiko edo Antzokietako Mintza edo pelikulak ere. Ez dut esan nai bakoitza bi Euskalkietara itzaldatu bear danik. Bata Bizkaieraz eta bestea Gipuzkeraz eman bear dirala baizik; Euskalki batean aiña bestean. Eta Euzkadi guztirako. Orrela Bizkaierazko aiña Gipuzkerazko mintza ikusi eta entzun aal izango lituzteke bizkaitarrek Bizkai'n eta berdin gipuzkoarrek Gipuzkoa'n.

3.<sup>a</sup> — Jaurlaritzaren Legezko-Aldizkarian, zer Euskera? Eusko Jaurlaritzaren menpeko lurraldeetan mintzaten diran bi Euskalkiak. Jaurlaritzaren argitapen bakoitza Bizkaieraz eta Gipuzkeraz azaldu bear da. Bizkai'tik datozen albiste guztiak azaldu bitez Bizkaieraz; eta Gipuzkoa'tik datozenak, Gipuzkeraz (<sup>1</sup>).

“Ori garestia irtengo da”, esan zigun Jakintzako Arduradun Nagusiak Gazteitz'en Euskerazaintzaren izenean beregana joan giñanoi.

“Pozik izango gera euskaldunok Eusko jaurlaritzak alperrik diru geiago gastatzen ez ba'du”, erantzun nion. Gañera, Jaurlaritza batentzat ez da gastua, bere

(<sup>1</sup>) Orrela agertzen dira Kanada'n, Belgika'n eta Suiza'n Jaurlaritzen Legezko-Aldizkariak, Lurralde oietako Ordezkarri Jaunek jakinarazten didatenez. Izkuntza bat baiño geiagoko Laterri Komunista bakoitzari ere idatzi diot, baiña auek ez didate, oraindik beintzat, erantzun.

Aldizkaria bost edo sei orri geiagorekin ateratzea. Ori ez eze, ikastoletarako ikas-liburuak merkexegotzeko errez lagundu dezake Jaurlaritzak. Uste dugu beintzat gure Euskerak orrenbeste merezi duala (<sup>2</sup>).

Euskeraren Batasuna euskaldun guztiak Euskera Osoa ezagutzea besterik ez dalarik, oraintxe daukagu, Ikas-Liburu, Legezko-Aldizkari, Jaurlaritzaren Argitarapen Oro, Irrati, Ikus-Irrati eta Zine-Mintzak erabilliaz, Batasun ortaruntz alaiki jotzeko erarik egokiena.

Eta gogoan beza Jaurlaritzak bere eginkizuna izketa berri bat sortzea ez dala, bere lurraldean itzegiten dan Euskera Zarra, betiko euskera, Euskera bakarra, Bizkaiera eta Gipuzkera, zaintzea baizik. “Ei batua”rik ez da emen mintzaten. Iñon mintzatzekotan “Batustan'en” mintzatu liteke. Ar beza orduan “Batus-tan” bateko Jaurlaritzak bere babespean, baña ez gure Erriko, EUSKAL erriko, Jaurlaritzak.

(<sup>2</sup>) Milloi bat eta berreun milla peztako laguntza eman die Eusko Jaurlaritzako Jakintza-Aolkularitzak oraintxe, (1981'ko Uztail ontan), Akonkaguá'ra igotzera dijozten arabar gazte batzuei. Ez dago gaizki. Baña, nere ustez, Araba'ko bost mutil mendi batera igotzea ta andik jeistea baiño askoz garrantzi aundiago-ko arazoa da guztiontzat, eta mundu guztiarentzat, jakintza-munduarentzat bereiziki, Bizkaiera edo Gipuzkera, bizirik eta sendo gordetzea.

## EUSKALTZAIÑEN IRITZIAK

Entzun LOJENDIO'k Arantzazu'n esana: "H' erabiltzea ez litzake egoki. Euskalkiek alkarrekin naastu ezkeru beren jatorrizko indar berezia galtzen dute, eta euskera dagoan egoeran, orrelako sayoak kaltegarriak izan ditezke; arrisku aundikoak beñepein. Giputz euskalkira jo bear genuke; ez gipuzkera osotu batean, gipuzkera utsez baizik, euskaldun geienentzat errezena dalako (1)"

LEKUONA'tar IMANOL'ek, itz auek esan zituan "el batua"ri buruz Kardaberaz Bazkunaren Billera batean:

"Beste batek emango digu gaur, oso-osorik, batasunaren Historia gure artean.

Nik, bi pentsamen xume-xume bakarrik eskeiñiko dizkizutet, gai orri buruz.

— Lenengo-lenengo, batasuna Euskerea errextete-

(1) "Euskera", XIII-1968. 233 or.  
Iritzi berekoak izan dira bizkaitarrak ere. Ona zer dion gaur-egun oraindik Onaindia'tar Xanti'k: "Euskalki guztietatik eratsu eta logikoena bizkaiera izanik ere, bizkaitarrok, bizkaiera iñoiz utzi gabe, GIPUZKERA izan bear lukeala Euskera Bateratuaren eredu uste degu; Gipuzkera ori, bizkaitar, napartar, laburditar eta zuberotar izkelkiek dituzten giar eta ederrez apaiñagoa, ariñagoa, sakonagoa eta txairoagoa egiñik". (Oñatibia'tar Duni-xiri eskutitza; 20-IX-80). Gipuzkeraren aldeko, beraz; Gipuzkera Osotu baten aldeko, auek, bizkaitarrak; baiña dana dala, Gipuzkeraren aldeko.

ko asmatu zala; asmo ori genduala, arazo ortan sartu giñanok: euskera ikasi nai duanari, lana errextu.

Orra bada; errextu bearrean, zaildu egin digutela batzuren-batzuek; asma diteken zailtasun aundiena asmatu digutela ortarako: Mundu guztian, erderetan ere nazkarik aundienetako bat ematen duan H.

— Bigarren: Euskera ez dala, bere baitan datzan gauza bat. Euskera euskaldunen baitan datzala, euskaldunen aoran; eta ez dala iñor Euskerarekin berak nai duana egin dezakenik; Euskerarekin agintzen duanik; ez iñor-iñortxorik, ez iñungo Batzarrik. Ederki esan bait zuan, bere orduan, Mitxelena jaunak, Euskaltzaindia bera ere ez dala iñor, H euskerari ezartzeko, H'ren txalma, naita-ez, **derrior** euskaldunai ezartzeko (kontseillatu bai, ezarri, ez).

Ala ere, ba-dakigu zer gertatu dan H'rekin. Txalma ori norbaitzuek euskaldun guztiei, **derriorrean**, "dogmatico", bizkarrean ipiñi nai digutela.

Pasadizu onek, Antziñako Testamentuko pasadizu gogoangarri bat dakarkit neri gaur gogora.

"Salomon erregearen egunetan, Israel dana bat zan, ba-zuan batasun. Baiñan il zan Salomon, eta, munduan beste askotan bezela bere bizkarrean zergarik asko zeramakian erriak, ildako Erregearen semearengana joan, eta, aitaren egunetako zerga astunak arintzeko eskatu zioten. Roboan semeak, zer erantzungo? ta badakizute zer erantzun zien, bere gaztaro-

lagunen kontseilluz, ain zuzen: aitak uztarri astuna ezarri bazien-ta, berak astunagoa ezarriko ziela. Leengo zama arindu bearrean, astunagotu. Besteak esan zuana: "Iru mando izan ta lau karga".

"Guri ere, zenbaiten egitez, gauza bera gertatzen zaigu —eta gazteen kontseilluz gertatu ere—: leen Euskerak bere baitan naiko karga izan, eta karga arindu bearrean, leen baiño geiago kargatu. Gipuzkoa'ko ta Bizkai-ko Euskera ikasteko naiko zail eta gaitz izan, eta, zailtasuna kendu bearrean, zailtasun berriak ezarri... Zertarako, ordea?, ta batasuna egiteko. Bañan, eta ain zuzen, zer gertatu da? Gertatu bear zuana: "Batasuna" egin bearrean, "Bitasuna" egin zaigula... Salomon'en erreinuan gertatu zan gauza bera... leen Erreinu bat zan lekuan, bi Erreinu egin: Israel eta Juda, eta nolako alkarrentzako asarre ta etsaigoz mozkortuak biak!

"Izan ere, gauzak ola gerta oi dira: "Iru mando izan, eta lau karga? Artutako lekuan bertan deskarga"! Leen batasun zerbait izan eta, nik ez dakit zer geiago nai! Bitasuna orain... Salomon'en egunetan bezela.

"Bañan galdera bat: Noren erruz? Noren kulpaz? Zein izan da emen, erria geiegi zamatu duan Roboan? Zein, mandoa geiegi kargatu duana? Zein, gure artean bitasuna —bitasun asarrea— ekarri duana?

"Erantzuna ez bait det uste, duda-mudakoa danik" (2).

(2) "KARDABERAZ". V zenbakia. 1976. Mokoroa'k ere aipatzen du "Lengua Vasca de Hoy y de Mañana" izeneko liburuan (34 or.), Roboan'en garaian gertatutako erriaren-zatiketa.

Ez; ez da zailla erantzuna: erruduna Euskaltzaindia da.

Edonork dakian lez, Lekuona Euskaltzaindiko Lendakari izana da. Entzun dezaiozun berriro:

“El problema del “Batua” se enturbió y de buena fe que era, se ha convertido en una cosa de mala fe y mala voluntad.

“Turbio asunto con sectarismo extra-académico. Yo intervine entonces para poner un poco de orden de conceptos y actitudes, precisando el carácter “normativo” y no “preceptivo” de las normas de Aránzazu; intervención preciosa y aclaratoria **que me acarrió mi cese** en la presidencia de la Academia (nik azpimarratua).

“Después se han desbordado las cosas como se sabe, y se ha envenenado el problema, en el grado conocido por todos.

“Hay que distinguir, pues, entre la Batasuna o unificación que patrocinamos entonces y su funcionamiento posterior que es el “Batua” actual (“Hoja Oficial del Lunes”. Bilbao, 16-X-78).

“Los “hachetistas” me **echaron** de la Presidencia de Euskaltzaindia valiéndose de un **panfleto** anónimo (nik azpimarratua); sigo siendo académico pero no voy, no voy nunca a sus reuniones. No he estado en el Congreso de Bergara. Euskaltzaindia nos ha salido ahora con 200 haches que hay que “meter” a todos los

niños en sus cabezas <sup>(3)</sup>. Es una falta de **sentido práctico** de la vida. Euskaltzaindia está para “aclarar” y todo está frustrado, porque no es nada claro”.

“Las reuniones de la Academia **me parecieron tan infantiles que me aburrí y no acudo más** (nik azpimarratua) (“El Diario Vasco”, 17-IX-78).

LABAYEN'dar ANDONI. Euskaltzain osoa.

“Es notorio que hay divergencias en cuanto a los métodos a emplear (Euskera lantzeko, alegia), y hasta protestas contra la orientación seguida por una institución oficial en su labor de reinstauración euskerista.”

“Denunciamos su pertinacia (“el batua”zaleena) en prodigar inútilmente haches sin ninguna justificación lingüística... El empleo de una H inicial en la mayoría de las voces indígenas es superfluo por pronunciarse sin aspiración alguna... Y no vale la pena cuando se empeñan en escribir ahora Hondarrabi cuando siempre hemos conocido “Ondarra”, “Ondarreta”, “Ondarraitz”, “Ondarrola”, “Ondarroa”, etc., etc. Las haches casi nunca tienen justificación etimológica y dificultan la ortografía. El sentido común ordena que suprimamos la “H” como recomendaba el gran filólogo catalán Pompeu Fabra”.

—Egoki aipatzen ditu Pujana'tar Jon Joseba'ren itzak: “Bajo complejos progresistas y batuísticos (“el

(3) 200 H? Ori uste du Lekuona'k eta ori esan zuan Euskaltzaindiak. Baiña Euskaltzaindiak H'arekin idazteko agindu dituan itzak 383 dira.

batua"zaleek) escriben un idioma hueco, degradado, sin el menor cuidado estilístico y con unas torpezas sintácticas intolerables. Evidentemente aquello no es "batua" ni mucho menos Euskera". "A lo sumo un vil euskeranto, añadido yo", esanaz amaitzen du Labayen'ek aipaketa au. ("La Voz de España", 20-III-79).

Euskeraren batasunerako bide zuzena iduritzen zaio, gure antzerki-idazlerik onenari "Orduen Liturgia"k darabilkian izkera:

"Como modelo de unificación euskérica tenemos el "Orduen Liturgia", que hasta un batuista ha reconocido con estas palabras: "sería difícil mejorar y conseguir un euskera más prácticamente unificado". Incurrirían en un grave error, de funestas consecuencias los dirigentes de Euskaltzaindia, de no reflexionar y tener en cuenta las observaciones que hemos ido exponiendo, que no son sino eco de la conciencia popular quien decidirá en definitiva" ("La Voz de España", 21-III-79).

— 1978'an Euskaltzaindiak Bergara'n egindako Biltzarraren ondorean itz auek idatzi zituan Labayen'ek izenburu "Euskerari bai! Euskerantoari, ez!" zuan idazlan batean "Benito Vitoria" izengoitia erabilliaz:

"Dejado ya atrás el conflictivo año 1978, vamos a resumir, confirmando anteriores juicios, la impresión general que nos merece el actual estado de nuestra lengua vasca, y exponer las críticas circunstancias en que se debate su existencia.

"Para ello es obligado realizar un somero análisis a modo de balance de situación del ambiente euskerista reinante.

"Bien lamentamos que de su examen no se desprenda el juicio halagüeño que sería de desear. Antes al contrario, frente a un considerable activo de laboriosidad y trabajo, que no vamos a minimizar, existe un inquietante pasivo de partidas fallidas y fisuras que son índice de graves preocupaciones para el futuro. Y ellas son debidas, principalmente, a la falta de consenso y resultado negativo del Congreso celebrado por "Euskaltzaindia" en Vergara el mes de septiembre pasado.

"Sin negar la intensa labor de sus elementos directores en la década 1968-1978, su actitud **obstinada** en imponer a todo trance sus discutibles cambios y reformas **inaceptables**, ha impedido la avenencia con las proposiciones presentadas por un grupo de académicos y escritores discrepantes de la orientación que a partir de 1964 ciertos reformistas **dominantes** han venido implantando, primero desde fuera y luego en el seno de la Academia. La imposición de esas normas, **precipitadamente decididas** en el Congreso de 1968; y sobre todo, el pretender adoptar sin previo estudio un idioma pseudo-unificado a todos los niveles, que no respeta las hablas dialectales en uso, desdeñando los dictados de la más **elemental pedagogía**, ha motivado la protesta de los aludidos escritores y cultivadores del euskera popular. Con ello no han hecho sino recoger



las quejas de muchos padres de familia que envían a sus hijos a las "ikastolas" y no están conformes con el tipo de enseñanza que se les aplica, apartado con exceso del idioma familiar y del medio ambiente.

"El Congreso de Vergara, en lugar de atender las peticiones formuladas en la proposición arriba indicada, y lejos de rectificar o frenar ciertas novedades desgraciadas, como la del arbitrario afrancesamiento del "léxico", han acentuado más todavía esa tendencia presentando un **desatinado** informe sobre el empleo de la "hache" que complica la escritura en forma **inadmisibile**. Parece que quisieran dificultar más todavía la práctica ya de suyo nada fácil de nuestra euskera, y sustituir la claridad o sencillez de la ortografía que **desde su fundación había acordado la Academia**, por formas absurdas que pretenden seguir los "vaivenes" de la moda (4). Y si no bastara con la "hache" arman otro lío con la "ñ" y la "elle", con una casuística confusa.

"Disgustados los referidos académicos y escritores discrepantes por la **nula atención** que han merecido sus propuestas, y vista la **parcialidad** de la Academia en los **nombramientos de sus miembros**, incondicionales suyos, con exclusión de otros **más meritorios** y competentes.

(4) Ona emen ostera, Labayen'ek nola aurkezten digun puntu on-tan, Euskaltzaindia Euskaltzaindiaren aurka; gaurko au lengo aren aurka. Gaurko au ez dala lengo ual! Gaur, lengo Euskaltzaindia Euskarazaintza dala!

"Convencidos por la experiencia de las sesiones académicas, y la constante negativa de tomar en consideración cualquier propuesta contraria a sus acuerdos, de la inutilidad de las discusiones en el seno de la institución que manejan a su antojo, los discrepantes decidieron, en defensa del euskera amenazado por todos los flancos, formar una organización defensiva "Euskera-Zaintza" que actúe independientemente llevando a efecto una labor de crítica y denuncia de los extravíos que invocando el bien de nuestra lengua se cometen; con la mejor voluntad, lo concedemos, pero equivocadamente a nuestro juicio.

"Para paliar el mal y poner remedio al extravío, no vemos otra alternativa que la de constituirnos en "Euskera-Zaintza".

"¿Una academia más?, dirán muchos excesivamente alarmados. ¿Por qué no?, les responderemos tratando de tranquilizarles. Lo que no ha conseguido una Academia, pueden conseguirlo entre las dos, si a esta dos, si a esta última se le concede la beligerancia a que tiene derecho.

"La opinión pública debe de saber que hay en Europa lenguas que no tienen academias "oficiales legiferantes...", en especial en los países anglosajones. Funcionan, en cambio, otras instituciones semejantes, tal como recientemente lo ha manifestado Paul Reising, profesor de Lenguas en la Universidad de Salamanca.

“Como el tema exige un más amplio comentario, lo explayaremos en capítulo aparte.” (“La Voz de España”, 17-I-79).

Bigaramonean —beti politikatik at ibilli zan Florentzi'ko “Crusca” Akademia “Itali'ko Akademi” bakar eta nagusi nola biurtu zuan oroitu ondorean—, au idatzi zuan Labayen'ek:

“Parecido sucedió con nuestra “Euskaltzaindia” a partir de 1964. Bajo pretexto de unificación propusieron cambios y reformas no obligatorias, en principio pero que poco a poco las convirtieron en exclusivas e impositivas, marginando a los que se negaban a aceptarlas. Esta es la triste realidad de los hechos. Conseguida la oficialidad de la institución bajo el nombre de Real Academia de la Lengua Vasca y respaldados por el apoyo gubernamental y la ayuda económica de las corporaciones públicas y otras entidades, “Euskaltzaindia” se adjudicó no sólo el monopolio de toda labor normativa y de investigación, sino también el de la acción tutelar y distribución de premios, subvenciones, diplomas de aptitud, etc.

“Dejando de lado la prudente herencia legada por los Azkue, Campion, Urquijo, Aguirre, Lhande y Eleizalde, se han lanzado por caminos de aventura, desdeñando las imprescindibles variedades dialectales y olvidándose de la mayoría del pueblo vasco-parlante. Es un sarcasmo que el congreso de Vergara se celebre bajo la advocación del ilustre vergarés Eleizalde antes citado y acérrimo “sabiniano”, cuando

la actual “Euskaltzaindia” se ensaña en destruir la obra del más genial restaurador que jamás ha conocido nuestro idioma.

“Esto acarreará graves consecuencias y más todavía con sus ansias de unificación, laudables y necesarias en teoría, pero que da preferencia a formas extremas y arcaicas como las de Leizarraga y otros con pesado lastre erderizante, anulando lo que ha hecho de bueno con la adopción de las formas verbales y léxico del idioma central —gipuzkera osotua—, con las aportaciones literarias de uso general que sería lo más castizo y razonable.

“Un ejemplo de menosprecio hacia la mayor corrección y limpieza del idioma, y el relajamiento que con sus textos está autorizando “Euskaltzaindia” nos lo ha dado con la traducción de la Constitución Española recientemente aprobada.

“No ignoramos las dificultades que encierra una versión exacta, clara y sencilla de dicha ley. Pero que la calidad euskerista sea tan deficiente, confusa y hasta disparatada, es verdaderamente lamentable. Así lo han puesto de manifiesto dos militantes de EMK en un artículo publicado en el diario “Deia” el 17 de diciembre: “Textoa zehar jasotzen dituzten ostikadak ez digute farrerik eragiten”: “Ez zaigu batere axola nor izan den Konstituzio honen itzultzailea (euskeratzallea esatera ez gera ausartzen)”. Desde luego requería mayor cuidado y preparación previa consulta a las personas más competentes. Es un desdoro para el

idioma que "Euskaltzaindia" la haya sancionado con su aprobación. También el castizo escritor Santiago Aizarna lo ha impugnado vigorosamente. Mayor celo ha desplegado el presidente de la Academia Gallega, quien desde la televisión protestó de la incorrecta versión llena de castellanismos que se había publicado y, a lo que parece, sin su autorización. (Galizeraz egindako españiar-oñarri-legearen itzulpenari buruz mintzatzen zaigu Labayen Ierro auetan.)

"Todas las razones expuestas en este alegato y otras muchas que por no alargarlo se omiten, han impulsado a los opinantes que siguen fieles al espíritu de la primitiva "Euskaltzaindia" a formar una institución defensiva: "Euskera-Zaintza", grupo vigilante y de crítica constructiva para recordar a los que se han erigido en árbitros del euskera, que lo que debemos hacer es consolidarlo y no destruirlo, y a ese fin colaboraremos pero sin someternos a dictámenes que los juzgamos funestos para el porvenir de nuestra lengua. ("La Voz de España", 18-I-79).

— "Hemos tenido conocimiento de la petición formulada por Euskaltzaindia solicitando que el artículo 6º, apartado número 5 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco que establece: "La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia es institución consultiva oficial en lo referente al euskera sea precedido del artículo "la": **la institución consultiva oficial**, es decir, con carácter de exclusividad, como figuraba en el proyecto de texto primitivo.

"Entendemos que la supresión del artículo "la" o sea del monopolio y **hegemonía absoluta** que pretende ejercer Euskaltzaindia ha sido prudentemente rectificada. Y que dada la situación actual de nuestra lengua, la diversidad de criterios de sus académicos, y la obligación que les incumbe de traducir y adaptar con claridad y corrección textos y disposiciones legales, no es labor que deba encomendarse únicamente a Euskaltzaindia.

"Y menos, todavía, sabiendo la **disparidad de opiniones** existente entre sus miembros y la premura, superficialidad y torpeza con que **sus elementos dominantes** han publicado traducciones tan desgraciadas e incorrectas que han merecido la repulsa de los más reputados euskeristas y los lectores y pueblo vasco-parlante en general.

"Esa improvisación partidista está en pugna con las normas que siguen otras instituciones análogas, cuando deciden establecer textos y traducciones aceptables. Para ello acostumbran anunciar concursos o certámenes apelando a escritores y personas de la mayor capacitación, para entre todos, llegar a la fijación definitiva destinada al público y sirva de texto oficial."

— Eta idazlan berean geroxeago:

"Es **muy reprobable** la actitud de Euskaltzaindia intentando ejercitar un equivocado monopolio bajo capa de "unificación", a la que todos aspiramos. Pero

sus métodos, junto a las inútiles reformas ortográficas y lexicales que está implantando no hacen sino originar protestas y crear hondas divisiones entre los euskeltzales.

“No es cierto que “todos los académicos de número (24), como se ha dicho, estén de acuerdo con la petición al Consejo General Vasco arriba indicada. Al contrario, la mayor parte de los numerarios pertenecientes al área afectada por el Estatuto Vasco de Autonomía, **son opuestos a dicha decisión**. En consecuencia, piden que las consultas en lo relativo al euskera no se limiten a Euskaltzaindia, sino que se extiendan a las entidades oportunamente mencionadas o a otras semejantes.

“Es oportuno recordar que la Sociedad de Estudios Vascos tuvo facultad para organizar exámenes, otorgar diplomas y premios, etc., etc. Y si luego delegó en Euskaltzaindia dicha labor, hay que tener en cuenta que entonces reinaba en la Academia de la Lengua Vasca, bajo la dirección del insigne R. M.<sup>a</sup> de Azkue, una autoridad y ecuanimidad total entre los académicos. Si eso se ha **perdido** a partir de 1968 ha sido por las desafortunadas y partidistas reformas que **arbitrariamente** se quieren imponer.

“Por todo lo expuesto, el abajo firmante se ve forzado a pedir al Consejo General Vasco, que no sea Euskaltzaindia su única entidad consultiva en lo referente al cultivo de la lengua vasca. Y que conforme lo permite el artículo número 6, apartado número 5 del

“¿Qué horrible maldición ha caído sobre nuestra lengua?, me pregunto. En parte también a mí me alcanza la responsabilidad por no haber cultivado debidamente la lengua, evitando la entrada en nuestra humilde huerta de tantos neoparlantes que están haciendo polvo nuestra lengua, y de paso nos están haciendo perder un tiempo precioso tratando de descifrar sus jeroglíficos.

“Pero una vez que la epidemia ha hecho cuerpo, ¿qué hacer? Ya se sabe lo que dice el refranero: “A grandes males, grandes remedios”. No nos queda pues, otro remedio que tratar de paliar de alguna manera la tormenta y, para ello, lo único que se me ocurre así, de pronto, es el **cisma**. Porque si los otros, en nombre de la unidad han traído tal desbarajuste, es posible que nosotros, en nombre del cisma, pongamos

las cosas en su sitio. Y tampoco sería nada extraño que el cisma, en resumidas cuentas, no fuera tal, sino más bien una contrarreforma, especialidad en la que, de antes, nos hemos distinguido los vascos.

“A mí se me ocurre pues, ya en plan de actuación, que hay que fundar una nueva ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA ya que, por lo visto, la que tenemos de antes se ha pasado a los neoparlantes. Que, naturalmente, hay que nombrar un nuevo presidente — y aquí viene lo de la contrarreforma—, puesto que hoy vive en el País Vasco el hombre que posee el vasco más fácil, más elegante, más fluido y más todo de entre los vasco-parlantes y vasco-escribientes, y éste es, naturalmente, D. Manuel de Lekuona, figura señera en las letras vascas y que ya fue Presidente de la Academia.

“A los que somos vascos, a los que hemos mamado el vasco desde siempre, nos hace daño esa parla híbrida y neutra que ahora quiere asomar por doquier”. (Donosti'ko “Unidad”, 22-X-1971.)

Ez dira Lejona'ra etorritako izkuntzalari atzerri-tarrak bakarrik “el batua” Euskera zarra (Gipuzkera eta Bizkaiera) iltzera datorrela esaten dutenak. Emen ere euskal-idazle asko izan bait dira aburu berekoak. Entzun mota ontako iritzi batzuek.

AKESOLO'tar LINO. Euskerazaintza'ren lendakariak onela dio:

“Euskalki bakoitzean gure arteko ezberdintasun

batzuk garaitzen eta kentzen saiatu bear degu; lenda-bizi Euskalki bakoitzean barneko batasuna bear degu; gero euskalki bakoitzean egin alean, kontuan izan bear degu beste euskalkiak, aiengandik ez geiegi urruntzeko, guztiak erdi-bidera etorri, eta alkar aberastu al dezaten.

“Ikusten degunez, erderakada eta gaskoinkada asko sartu nai dituzte, geiegi, gure euskeran.

“Arantzazu'n “H”ri buruz, **ez nuan entzun jakintzako arrazoirik**. Arantzazu'ko agiriak ez du iñolako agindu esturik; bañan kontu iñork aren esanak, agindu estutzat artzen ez ba-ditu; orrela Euskaltzaindia, **bide-lapurrik maltzurrena** bezela agertu nai digute. Aurretik eskale apal bat egiñik, bañan atzean, arma izugarria duala; onez eman nai ez dana, indarrez kentzeko. Emen ez dago “amen” esatea besterik. Noren edo zeren madarikapenaren azpian ote gaude? (1) Neri Isaias'en esaera au datorkit burura: “Aurrak jarriko dizkiet buruzagi”. Esaera onek dio, olako madarikazioak

(1) “Madarikapena” aipatzen digu Akesolo'k, madarikapen larria benetan; Euskera eriotzera eraman lezaken madarikapena: “Una lengua (que hasta la fecha vivía en la armoniosa concurrencia dialectal), ha quedado partida en dos. Y, lo que es más grave todavía, detrás de la lengua escindida en dos, ha quedado un pueblo enconadamente dividido.” Lasa Apalategui José. “Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vascuence. Las Ikastolas y otros propósitos.” (61 gn. orrialdea). Lasa jauna Bizkaí'ko Batzar Nagusian Alderdi Jeltzalearen ordezkari, ta gañera Bilbo'ko Izkuntz-Eskola Ofizialean irakasle. Badaki beraz zertaz ari dan itzegiten.

izaten dirala munduan; gure artean zergatik ez? (2).

“El batua”z idazten dizkiguten liburuei buruz onela mintzatzen da Akesolo:

“Agertzen diran saio edo literaturazko idazkiak aztertuz ikusten degu gaiak berez latzak, menderatu gabeak, eta euskera berriz menderatugabeagoa darabilkitela. Zer aterako besterik? Ortik aterako diran liburuak nekez emango du bigarren ez irakurtzeko gogorik.

Argiak gaude orrelako liburuen inguruan egin

(2) Ortografiari izugarritzko garrantzia ematen dio Euskaltzaindiak; H'ari batez ere. Orain, Bizkaiera ere H'z josita idazten asi da. Ikus zer dion arazo oni buruz, (Zatarain'eri zor diot aipaketa au), L'Escop katalauniarak: “No prenguem, doncs, la grafia, l'escrit, per la paraula, ni la gramática per la llengua. La llengua viu independentment dels llibres i les aules. Ella es la que se deixa caure en mil escrits de variades formes, i informa tots els llibres. Sense llibres, ella és. Treiu a ella i ja han volat els llibres i els escrits. (...) Mal fan ells si, a diferencia de l'agricultor, qui va a l'abre alli on labre és i alli l'atén i le cuida, no van a la llengua on ella viu, el dialecte personal i local i alli la cuiden i treballen” (“La paraula”, 73 or.)

Onela jarraitzen du Zatarain'ek: “En el libro “La paraula” de Ivon l'Escop (Barcelona, 1921), encuentro unas palabras de Unamuno que están en nuestra misma línea de pensamiento: (ahora traduzco del catalán, por lo que es probable que no coincidan exactamente con lo escrito por Unamuno en castellano): “Maragall fue un poeta, un gran poeta —un poeta máximo—, mayor que él no tuvo España en el siglo pasado, pero fue un poeta catalán. Y es que no se puede ser poeta en ninguna otra lengua que en aquella en que se siente, en el dialecto de la conversación. El poeta verdadero no puede cantar más que en dialecto, pero en el suyo propio, individual: Maragall en dialecto maragalliano..., en una lengua que, en rigor, uno mismo va creando, pero con materiales del pueblo, con las palabras que siente... Así, en castellano, tenía estilo, tal vez más que nadie, Santa Teresa, la cual escribió en dialecto teresiano, una lengua que ella misma iba creando, con vocablos de Avila”. (“La Nación” de Buenos Aires. Artículos sobre Maragall.)

bearko ba'litz euskeraren batasuna...!

“Batua”, euskera biziaren ilgarri eta erderaren bizigarri. “Batua”-zaleak ez dakit noren ta zeren banderapean dabilizan; nik ez diot joko garbirik ikusten”. (Ikusi “Kardaberaz” aldizkaria, 4'gn eta 5'gn zenbakiak). (Nik azpimarratua.)

ARREGI'tar JOSE L.: El Euskera y la Ikastola.

“El Consejero de Educación, Sr. Carlos Santamaría, ha escrito recientemente en “Deia”: “A partir del primero de EGB, la enseñanza deberá empezar a darse en euskera unificado. Hay que evitar, a toda costa, cualquier confusión o titubeo en ese momento.

“Se me ocurre pensar: 1º - Al niño de seis años que en zonas vascófonas llega a la escuela hablando su euskalki o dialecto, se le va a imponer un modelo de euskera notablemente distinto y no hablado. Ahí tenemos, sin más, sembrada la confusión en la tierna mente del niño. 2º - Al aplicar eso a Vizcaya, el choque entre su euskera vizcaíno y el extraño “batua”, no puede menos de dar paso a una confusión monumental en la mente de esos niños: “Guk ez dogu olan esaten etxean”.

3º - Todo ello se agrava al constatar que en muchos lugares es casi exclusivamente en familia donde practica el niño en euskera. Si en lugar de fortalecer ese su euskera vivo le ponemos trabas, se puede prever lo que va a hacer: “darle al castellano y se acabó”.

“Queremos que el euskera “se viva”, se hable. ¿Por qué comenzamos entonces por desarraigarlo de su único ambiente verdaderamente vital?” (“Deia”, 22-XI-79.)

ARRINDA'tar ANASTASIO: “Euskera “batua” ill-da jaio da, ez bai-du errietan iñork orrela itzegiten. Batasuna bear degu, bañan euskalkiak, giputza, naparra, bizkaitarra, lapurtarra... ill gabe. Euskalkiak ilko diran egunean, ilko bai-da euskera berbera ere errien agoetan. Bi zaldi bear ditu euskeraren gurdiak aurrera arin-arin joango ba-zaigu, literatur euskera bat, eta Euskalkiak bizirik erriaren agoetan. Batua euskalkirik gabe zer da? Euskera biziaren eriotza; liburutegi ederrak...Ta euskalkiak batasunik gabe? Perfezio gutxiago; liburu-egintza gaitzago; jakinduri bidean estuago; euskera bizirik ordea...!

“Pelotari onak, ezker-eskubiak, biak bear ditu aurrera joango ba-da; euskerak ere batasunarekin batera, euskalkien aberastasuna eta bizia, biak bear ditu; euskalki guztien aberastasunarekin batera, euskalkiei leporik moztu gabe. Laboratorio utsean sortu-tako euskera, jaio gabeko aurra da. (Irakurri “Kardaberaz”, 1975, 4 zenbakia.)

“Lehendakari idatzi bear dala dio Euskaltzaindia'k, bañan lenen eta lenengoa, eta lendabizi dira izen orreri sorrera eman diotenak, beraz LENDAKARI idatzi bear da, eta ez “Lehendakari” (“Diario Vasco”, 28-VIII-80).

ARRUE, IZASKUN. Andereñoa: “Llegó a mi casa el

texto del Estatuto Vasco, traducido al euskera por un equipo de Euskaltzaindia. ¿Cómo puede el C.G.V. aceptar esa traducción? Eso no es euskera. Un dialecto del castellano, o algo así. Da pena.

“Yo creo que Euskaltzaindia murió el año 1968 y lo que existe ahora es “La Academia Real”, una secta que está destruyendo nuestro idioma, dejando de lado y despreciando el euskera vivo que tenemos.

“El nuevo invento, este “batua” que aburre a cualquiera, és asunto político; y con el idioma no se juega”. (“El Diario Vasco”, 24-I-80.)

ATAUN'go AITA BONIFACIO: “En el decenio anterior a 1936 se había llegado a una gran unión de criterios y realizaciones en torno al euskera, sin menoscabo de los cánones de la ciencia del lenguaje y sin **grupos juramentados** de determinada orientación. Los “contestatarios” aducen como razón de su modo de obrar, las exigencias de la lingüística y la urgencia de llegar a la unidad literaria absoluta; pero existen indicios que hacen suponer que el móvil, al menos de los más “violentos”, es de orden sociopolítico. Esa impresión recogimos en reiteradas ocasiones. Y hay quien afirma: “No pretenden sino borrar el movimiento renacentista de Sabino de Arana-Goiri en todos sus aspectos”. (Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, 85. zenbakia, Buenos Aires, Jorrail-Ekaña, 1971).

“El “batua”, ese engendro, no prestigia mucho a



sus progenitores, y sus frutos están a la vista; jamás hemos visto en literatura vasca mayor desvarío que el de estos últimos años. ¡Sencillamente lamentable!” (Ibdm. 91 zenbakia).

“El motivo principal de la presente disensión y confusión es la introducción de la H en la ortografía general del euskera. ¿De dónde y para qué esa letra sin sonido? Si es muda, no tiene nada que hacer. Y si tiene sonido, ¿cuál sería él, como ja, je, ji, jo, ju?

“Por más que se empeñen los hachistas, con sembrar de “haches” el diccionario no se logrará la unidad literaria del Euskera, ni se facilitará su aprendizaje, ni se hará más auténtica la contextura de sus palabras.

“La primera Gramática Vasca titulada “Euskeraren Berri Onak”, del P. Agustín de Kardaberaz, del año 1761, escrita en euskera, rechaza la H por ser extraña, con una expresión de gran violencia: “Quen ortic!”. Gure euskera suabe ta eztizkoarentzat ez da soñu ori”.

“Tengamos presente que cuanto una revolución construye por la ley de la fuerza, otra revolución de signo contrario lo destruirá” (Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, 95 zenbakia. Buenos Aires. Urrill-Abendua 1973).

“Con fecha 6-I-73, diez editoriales vascas, y entre ellas la Editorial Vasca EKIN de Buenos Aires, se dirigieron al Presidente de Euskaltzaindia, Villasante,

protestando por el caos lingüístico reinante en las publicaciones y para que ponga remedio, pues es notoriamente perjudicial para el euskera, para los niños de las ikastolas y para los euskaldunes todos, habituados a un tipo de ortografía sin letras parásitas, y perjudicial también para los editores, por cuanto sus ediciones en una u otra ortografía se ven rechazadas por unos o por otros” (Ibdm.)

ARZELUS, AMALE. Irakasle ta idazlea: “La Euskaltzaindia de **antes** trataba por todos los medios de utilizar siempre palabras euskéricas si existían, y en caso contrario, si había que crearlas, lo hacía, basándose en auténticas raíces autóctonas, no como ahora, que no conformes con no crear palabras de raíces euskéricas, ignoran las existentes y las ya creadas y emplean en su lugar otras totalmente extranjeras” (“Diario Vasco”, 20-IV-79). (1)

AYERBE, JOSE: “Euskaltzaindia debería examinar la situación del euskera en las ikastolas, pues no es ajena al problema y toma parte activa en el asunto, ya que recomienda, aconseja, asesora y ayuda cuando no obliga, a utilizar los métodos y el modelo de euskera que se debe impartir en las ikastolas, aun no siendo

(1) Arrazoi du Amale'k, bañan askoz okerragoa da, Euskal-itzak erbeste eran erabiltzea. “Plaza de Juan Ayala” da Gazteiz'ko enparantza baten izena; “Juan'go Ayala Plaza” euskeratu (?) dute “el batua” zaleek. Euzko Jaurlegian “Lanarigo Sarrera” idatzi du Euzko Jaurlearitzak, bertako langilleen ate-gaiñean “Zentzu aldaketa” biurtu digu erderazko “Cambio de sentido” gure Bide-Zabalean. Zentzu aldatu ez baiña, ez ote dugu “zentzua galdu” euskaldun guztiok?

modelo de euskera adecuado" (3).

AZURZA, JOSE JOAQUIN: "Con "el batua" cada cual comenzó a buscar textos arcaicos con haches, se eliminaron las consonantes "ll" y "ñ", fonemas de uso por parte del 80% de los euskaldunes. Se ha pretendido transformar los nombres de municipios quitando o poniendo letras a capricho: Hondarrabi, Iruinea, etc. El desmadre es general. Para quienes escriben en "batua", adoptar formas arcaicas del euskera y galicismos no conocidos en este lado del Bidasoa, poner en vigencia formas olvidadas del verbo, crear palabras pseudointelectuales, existiendo términos vascos castizos, se convierte en una moda snob.

"Detrás de la pantalla lingüística se oculta, desde el principio de esta reforma del euskera, una ola de fondo político" ("Diario Vasco", 31-VIII-78).

"A esta situación hemos llegado... porque precipitadamente, como un acto consumado a hurtadillas, con suficiencia y soberbia revolucionarias, sin impor-

(3) "El Diario Vasco" (11-9-79). Ez da gauza gozoa emen Ayerbe'k dioskuna. Baña ba-da zerbait okerragorik Euskalerrian ikastetako irakasleak, askotan euskeraz ez dakiten irakasleak, euskera-ikasketan, erderaz ez dakiten umeak suspenditzen ari dirala. Ori beintzat gertatzen da Tolosa'n baserrietako eta inguruko erritxoetako neska-mutikoeekin, irakasle batek esan zidanez. "Egin zaidazu, arren, neskato eta mutiko oien zerrenda bat", eskatu nion igaz, eta aurten (1981'ko Dagonillean) "no puedo hacerte esa lista" esan dit, "porque necesitaría un rollo entero de papel higiénico!; Son tantos los críos así suspendidos...!". "Un rollo de papel higiénico". Ederki esana. Orrelako gauzak ez bait ditezke ingi zuri garbian, otoitz bat edo olerki bat idazteko erabili oi dan ingi aratzean ezarri. Orrelako gauza zikiñak, komuneko paperean bakarrik idatzi ditezke".

tarles el pueblo, al que sólo usan en sus advocaciones, han querido imponer un producto intelectual que no satisface la necesidad de unificación y produce mayor complicación en la escritura, y se separa innecesariamente de los dialectos hablados por la mayoría." ("Diario Vasco" 2-IX-78.)

EIZMENDI'tar IÑAKI "BASARRI". Sarritan salatu du bertsolari bikain onek "el batua"zaleen azpikeria. Bereak dituzu lerro auek:

"Al da iñor "H" ori noiz eta non sartu bear dan eta ez dan argiro adierazi lezakenik?"

"Lengo buruaustek eta kezkek, ez al genitun naikoak, berri-berriak orain sortu gabe? Noiz eta orain gañera; izkuntza azken arnasetan degula dirudinean. Erreztasun danak emanda ere, lanik asko izango du euskerak oraingo gaxoaldi au menderatzen. Eta... erreztasunak eman bearrean, zailtasunak jartzen ari gera. **Erri onek naiago du erderaren bidea artu, entenditzen ez dun euskerarekin beti burua lertzen ibilli baño.** (Nik azpimarratua.) (4).

(4) Euskeraren eriotz-arriskua aipatzen digu Basarri'k, eta ez arrazoirik gabe noski. Izan ere... guk sinistu nai dugun baiño askoz egoera okerragoan daukagu gure izkuntza. Napparroa osoan Euskera dakiten umeak 4.000 (lau mila) besterik ez dira! Zenbat ote dira Zuberora'n eta Bizkai'ko edo Gipuzkoa'ko uri aundietan! Ta Euskera jakitea ez da naikoa Euskera bizirik gordetzeko. Euskaldunen artean ere, Euskera **dakitenen** artean, ia danak, 100'dik 85'ek erdera erabiltzen bait dute beren izketan. Ori dio Irigaray'ek ere: "Hoy los que usan habitualmente el euskera entre los vascoparlantes no llegan ni a un 20% de los mismos". (Dr. Angel irigaray: "Luces y sombras del euskera batua".) ("El Diario Vasco", 12-VI-79.)

“Utzi guri gure erara lur landuketak egiten. Udazkenean ikusiko da uzta edo kosetxarik onena nork jasotzen dun.

“Ba-naiz naiko beldur, lanak lan, eta nekeak neke, ezer jaso gabe geldituko ote geran.

“Negargurea ematen dit euskerari buruz, ari degun jokabideak; negargurea, erria erakarri bearrean, urrutiratzen ari gerala ikusteak. (“Zeruko Argia”, 1969, Jorraillak 20.)

ELOSEGI'tar JOSU. Jakintzetan gizon aundia izan zan Jexux Elosegitarra, “Arantzadi” deritzan Izadi-Jakintza-Bazkunaren sortzaille ta Idazkaria. Leen-Euskaldunen aztarnen ikerketan Barandiaran'dar Joxemiel'en laguna, Euskerazaintza'ren lendabiziko Idazkaria. Ain zuzen idazkaritza ontan ari zan, oraindik asko ez dala, mundu ontatik joan zitzaigunean.

Elosegí, asarretu egiten zan “el batua” aipatzen zitzaionean. “Patois” frantziarren erara, “patua” agoskatuaz, “el batua” orri “el PATUA” esan oi zion isekaz. Jakiña da frantziarrek “patois” garrantzi gabeko izkera landerrei, “dialektoei”, deitzen diela. Orain ulertuko dezu, irakurle, Elosegí'k samintasunez beteta Donosti'ko “Diario Vasco”n jaurti zuan oi mingarri au:

“—Noiz arte “patua”-keriak gure elea zikintzen jarraitu bear du?” (“D. V.”, 31-X-79.)

GARATE, JUSTO: Argentina'n bizi da aspalditik. Bergara'ko seme jakintsu au berriro bere errira etorri

zanean, omenaldi bat eratu zioten, eta egun artan Euskaltzaindi'ko burukideak aurrean zituala, onela mintzatu zan: “Euskera batua, euskeraren ondatzallea da”.

GAZTAÑAGA, JESUS: Euskeraren senarik gabe idazten dutelako eta euskeraren joskera lotsagarriki erabilli oi dutelako maiz astindu oi ditu euskal idazle bikain onek Aita Villasante, San Martin, Krutwig eta gañerako euskaltzain “el batua”-zaleak.

Ba-da or idazkiño bat “Gida-Liburu” deritzana eta Euskaltzaindia'ren babespean argitaratua. Ikus Gaztañaga'k egin zion agurra:

“Ez “GIDA-LIBURU”, “NAASTE-LIBURU” baizik. Euskal senaz oretua ez dago, iñola ere, liburu onen euskeralpena.

“Gorriak ikusi bearrean arkituko dira irakasleak, orrialde bakoitzean dauden ainbeste ta ainbeste uts, oker ta akats dirala-bide gauzak argi ta garbi ulertu eziñean.

“Ortatik kontuak atera, zer izango dan laugarren maillako ikasleentzat.

“Aipaturiko “GIDA-LIBURU”a ordea, ain zalla ta ulergaitza, ain illun eta akatsez betea dagonez, ez daiteke iñola ere gidari argitsu ta laguntzaille atsegiña gerta. Mesede kaxkarra egingo dio Gipuzkoa'ko Ikastolen Batzordeari.

"Ezin det ulertu zergaitik eta nolatan txautu daiteken ainbeste diru orren liburu negargarria egiten, ikasle-liburu orren txarra ateratzen.

"Diruak txautzea gaizki. Eta ikasleak naasketaz betetzea? Orain arteko markak autsi ditu liburu onek!

"Nere ustez, euskerari begirune geiago zor genioke. Eta neska-mutiko ikasleeri, berriz, askoz geiago. Giza-eskubideak, nortzuentzat ote ditugu?" ("Diario Vasco", 26-IX-76).

ITURRIOZ, JESUS MARIA: "¡Pobre euskera! Ante el caos lingüístico del euskera, pienso que la causa puede estar en la falta de sensibilidad de Euskaltzaindia. La Academia de la Lengua, que se ocupe de proteger la pureza de la lengua y de preparar el léxico adecuado para las ciencias modernas!, que bastante trabajo tienen con ello!" ("Diario Vasco", 4-VI-80).

IZETA. "Euskeraren bizia ala eriotza nai degu? Berrero gizon jakintsu bat onela mintzatu zitzaidan: "Euskal izen-iturriak ikertu ta aztertu bearrean zerate euskaldunak. Euskal-izen iturburuak ba-dituzute beste izkuntzak baño obeak... Izkuntza bakoitzak ere, bere nortasuna gordetzeko borrokari ekin bear dio, bere zapaltzailearen aurrean itz berriak sortuaz eta zapaltzailearengandik itz ta izenik mallatu gabe. Zuen errian ori gertatzen al da? Euskaldunak ez al zerate ari zuen iztegia, zapaltzaileen itz mallabatuaz betetzen?"

"Ta izketaldi orren ondoren kalera irten, ta orrelako idazkiak agertzen dira gure kaleetan: "LARUNBATEAN MANIFESTAPENA", "Gaur LIBERTATEAREN eta AMNISTIA'ren EGUNA". Orrela jarduten dutenak, EZ AL DIRA EUSKERAREN ILTZALLEAK?" ("Diario Vasco", 17-IV-80).

"KAMIÑAZPI", JOSE ETXABURU. "Euskeraren batasuna euskalkien eriotza da. Euskerea bizirik irauteko, biarrekoa da ikastoletan danari irakastea; eta euskera batuan irakatsi ezkerero, denporiagaz beste euskalkiak ill egingo dira.

"Batasunik ezak ez dau euskerarik galdu, ta batasunak, beste barik, ez dau indartuko<sup>(5)</sup>. Euskeraren batasun kontua ardura aundiagaz artu biar da. Danontzat aukeratu edo moldatu leiteken berbakeria askorentzat gaitza izan leiteke; ta ori, atzerabidea izango litzake. Ez da atsegiñ izaten ulertzen kostatzen dana irakurtea.

<sup>(5)</sup> Arrazoi du "Kamiñazpi" k. "Koine" k (Grezi'ko "Batua" k) ez zuan gure Euskera bezela laukoitza zan Elenerarik "indartu". Auldu, makaldu, agortu, antzutu egin zuan. Ordurarte izan zituan kemen eta gaitasun guztiak kendu zizkion. "Koine" z ez zan kontuan artzea merezi duanik ezer idatzi; ez elertiaren barrutian ez filosofiarenean. "Koine" z osatutako libururik apaigarriena "LXX'en Itzulpena" da; ots: Irurogeitamar ATZERRITARREK, ATZERRIAN egindako liburu ATZERRITAR baten itzulpena.

“Ez gara sakonegi sartu bear batasun bidean. Azalian be ba-dago alkartu biarra naikoa, zer konpondu ugari; Ortixek asi gaitezen ba. Euskalkiren bat oñarritzat artzekotan, gipuzkera izan bedi. Auxe da erdi inguruan dagoana ta geienak itz egiten dabena <sup>(6)</sup>.”

“H” ezelan be ez genduke erabilli biar Bidasoaz emendik aldekoak. Angoakaz batasuna egitearren emengoen artean banatze ta aserrekeririk ez daigun sortu. Gañera, eragozpenez idazlea betetzea litzake ori. Biali dauskuezen batzarrerako gai orrietan, ikusten da ederki “H” nun jarri eta nun-ez jakitea zelako gatxa dan.” (“Euskera”, 1968, 226 orria.)

\* \* \*

LATIEGI, BIXENTE. Nere esaldi batzuek ere aurkeztu dizkit Oñatibia'tar Dunixi'k.

Nere aurreneko zatia, Euskaltzaindia Eusko-Jaur-laritzaren “Legezko-Aolkulari” bakar egitearen aurka

<sup>(6)</sup> Iritzi berekoa agertzen zaigu Arrue'tar Anton ere idazlan eder batean; (“Deia”, 2-VI-81): “Bizkaitarra naz —dio—, eta amagandik euskeraz ikasia”. “Beraz, barru-barruan daroadan mintza-bide nagusia. Bizkai'ko Euskalkia da”. (Gero, “el batua” zaleen antzera Esperanto berri bat sortu bearrean, gaurko Euskalki bizi bat aukeratu bear genukeala, dio, Euskalki ezberdiñetako euskaldunok alkarrekin mintzatzeko.) “Gaur egun, Euskalki guztietatik, bi dauzkaguz zabalduenak: “Bizkaiera eta Gipuzkera. Biok erdi-bardin”. “Ortixik atera bear geunke guztiontzako Euskera bat, legezko Euskera aukeratzekotan”. (Eta berak uste du) “Beste Euskalkien kidesunetik aundienagaz agertzen dana dala egokiena”. “Bide ortatik Gipuzkera dogu ba nagusi, batez ere aditz-jokoari begiratzuz”. “Geroago besteen egokitasunekin jantzi bear izango” (omen genuke Gipuzkera ori).

izparringietan idatzi nituan-etatik artua dago, eta onela dio:

“El Estatuto es un documento de derecho público. Como que es, ni más ni menos, una Constitución para el Pueblo Vasco.

“Pues bien, un documento de derecho archipúblico como es el Estatuto, no puede consagrar en exclusiva a una Institución de derecho privado como es la Academia de la Lengua. Por eso:

— Una citación así no se da en ninguna Ley Fundamental del mundo.

— Esa exclusividad es odiosa e injuriosa para todas las demás instituciones.

— En una Ley Fundamental todas las Instituciones de Derecho Privado tienen los mismos derechos.

— Esa exclusividad es irritante para todos los vascos que no comulgan con Euskaltzaindia. Es dictatorial, porque trata de imponer por la fuerza de la ley, la opinión de un grupo minoritario y, además, equivocado.

— Es consecuencia del ambiente fascista anterior. Recuerda las unidades oficiales fascistas: “Una España Unica, un Partido Unico, un Sindicato Unico, una Unica Revolución Nacional Sindicalista”.

A lo único a que no se atrevió el fascismo fue a consagrar a la Real Academia Española, en las Leyes

Fundamentales del Reino, como "Unica Institución Oficial" de la cultura española." ("Diario Vasco", 1978-VIII-24, 25, 26.)

Zertarako nai zuan Euskaltzaindiak, ain legegoreoren-kontrako, bere-burua-Euskeraren-Nagusi-bakar-lez-legeztatze ori? Eusko Jaurlaritzaren bitartez "el batua" euskaldunoi, indarra-bide irentsiarazteko. Orrela jokatzean, galdu du Euskaltzaindiak leen euskaldunek izan zioten lotsa. Orrengatik idatzi nuan nik "El Diario Vasco"n:

"El Batua"ren alde jarri dan ezker, galdu du Euskaltzaindiak "el batua" onen auzietan Legezko Zuzendari izateko eskubidea; auzi-epaille eta auzikide ("Juez y Parte") izango bait-litzake" (24-VII-78).

Ona orain, Oñatibia'k, nere izparringi-lanetatik bereizi duan irugarren zatia. Aurreruntz begira, Euskeraren Batasun egoki eta zuzen baterako bidea azaldu nai nuan idazki ortan; auxe nion:

"Soziologiak, psikologiak eta edestiak eskeintzen dizkiguten jakingarrietan tinko oñarriturik, arreta aundiarekin urbildu bear gera euskerarengana, bizkortu bearrean, gure izkuntza, betirako eraill nai ez ba-degu.

"Ezin gindezke txatxukerietan ibilli. Neskatill bat urean erdi itorik dagoanean, ez gindezke neskatill orri ezpañak margotzen eta azkazalak txukuntzen asi. Ez dago ortarako denborarik. Bâ... erdi itorik dago, ia oso itorik ez ba-dago, gure euskera. Bijoaz, bada, deaburra "hache" a bezelako txatxukeriak. Presarik gabe

ibilli bear degu. Ill zorian dagoan gaxo batentzat, presakeri guztiak ilgarri ditezke. Euskera azkarregi baturatu nai ba-degu, Euskaldunak nazkatzea besterik ez degu lortuko, eta Euskera iltzea.

"Goxotatun aundiarekin ibilli bear degu. Ez dezagun era bat itzali oraindik kea beintzat ematen duan sua! Euskaldunek ba-diote oraindik maitasun "erromantikoi" bat euskerari. "Indarkeri" orok, "geiegikeri" orok, maitasun-ondar ori eraill egingo luke. Orrelako zerbait lortu zuten orain dala irurogei urteko "Garbizaleek". Euskaldunak nazka-araztea. Euskaltzaindia "el batua"ren bitartez lortzen ari dana bera.

"Nola jokatu bear degu orduan, euskeraren batasunera irixteko? Ona nere iritzia. Pittinkeri bat edo beste izan ezik, au bera da "Kardaberaz"-tarren eta "Euskerazaleen" iritzia ere:

Iru mailla, iru aldi, ditu egitarau edo "programa" onek:

LENENGO MAILLA: Umeak 4, 5, 6, 7, 8 urte dituztenekoa. Ikastolek erriko euskera erakutsi bear dute mailla ontan. Mallabi'n Mallabi'koa; Bidani'n, Bidani'koa; Zugarramurdi'n, Zugarramudi'koa, eta abar. (Erri-Euskeraren aldeko lenen-ekintza au naita-naiezkkoa dugu, Euskaldun guztiak, beren Euskera bazterturik ikustean, nazkatuta euskera-oreoren arerio biurtzea gura ez ba'dugu (7).

(7) Oraintxe bertan jakin dut Tolosa'n —nere Tolosa'n—, baserri bateko etxekojaunak bere semea, ikastolatik atera-ta "Eskuela Nacional"era bidali duala, "ez bait gendun ume mukizu orren izketarik entenditzen. Ez zetorren bâ, gañera, guk euskeraz ez gñakigula esanaz...!!".

BIGARREN MAILLA: Umeek 9, 10, 11, 12 urte dituzteneko aldia. Ikastoletan, bigarren mailla ontan, umei beren errialdeko Euskalkia erakutsi bear zaie: Mallabi'n Bizkaiera; Bidani'n Gipuzkera; Zugarramurdi'n Laburdiera. Au egiten ez ba'dugu, zearo galduak ditugu betirako gure Euskalkiak: Gipuzkera, Bizkaiera...

"Iñork ez du Bizkaierarik il nai", dio bein da berriro Euskaltzaindiak. Baña! Euskaltzaindia, berak sarturiko "el batua" Euskera Ofizial BAKARRA egitera dijoa. Eta ori egitean Bizkaiera bigarren maillako izkuntza "dialekto" utsa, "patois" zarpatzu utsa biurtzen duala, eta bein izkera arlote bat biurturik gelditu ondorean, naitanaiez Bizkaiera eriotzara galdua gelditzen dala Euskaltzaindiak ikusten ez ba'du, Euskaltzaindia zearo itsuturik dago, eta ez du Euskeraren Zuzendari Nagusi izaterik merezi.

Bizkaierari buruz esan deguna, esan genezake Gipuzkoerari buruz ere. "Batua" Gipuzkera Osotu bat da", esan zidan, batek, Bergara'ko Biltzarrean. Ez, erantzun nion nik, "el batua" ez da Gipuzkera Osotua; (esatera noan itz zakarra barkatu eidazu, irakurle), "el batua", Gipuzkera izurratua da".

Guk Euskeraren Lau Izelki Nagusiak nai ditugu bizirik, eta ori Ikastolen bidez errez lortu ditekean gauza dala uste dugu.

IRUGARREN MAILLA: Umeak 13 eta 14 urte dituzteneko aldia. Bigarren maillan beren Euskera Nagusia —beren Euskalkia— mintzatzen eta idazten

ederki ikasi duten umei, irugarren mailla ontan beste Euskalkien Aditza irakatsi bear zaie. Ori gauza zailla dala? Ez! Oso gauza erreza da ori. Gaur, euskeraz eskolatuak ez geran euskaldunok, beste euskerak eta beste euskeren aditz-jokuak ulertzen ba' ditugu... pentsa zein en erreza izango dan ori bera euskeraz ederki, eta egoki!, eskolatuak izango diran neska-mutilentzat!

Orrela, irugarren mailla au amaitzerako, eskierki, seguru, lortuko ditugu iru gauza:

- Euskaldun bakoitzak bere Euskalkia ondo itzegin eta idatzi aal izatea.
- Euskaldun bakoitzak beste Euskalkiak ondo ezagutzea eta errez ulertzea.
- Eta..., agian-agian, Jainkoa gutzaz errukitzen ba'da, Euskera bizirik salbatzea.

LAUGARREN MAILLA. Ikasketa-goien-mailla.

Unibersitatean, eta Batxilleratoan bertan, zer Euskera erabilli bear da? Euskalerrriaren Erdiko Euskera: Gipuzkera Osotua; Azkue'k aurkeztua, Euskaltzaindiak bere-egin zuana, eta Euskaldun guztiek pozik onarturik zeukatena; Eusko-Alderdi-Jeltzaleak ere, Euzkadi guztiari mintzatzeko, legez bere-egin zuan Euskera. (Ikus "El Diario Vasco"; 1978'ko Uztailaren 26, 27, 28 eta 31'ean eta Azaroaren 2'an eta 3'an.)

Kezkaren antzeko zerbait sumatzen nuan nere barrenean laugarren mailleko ikasketak Gipuzkera

Oсотuan egiteaz mintzatu nintzanean. Gipuzkerak beste Euskalkiak ilko ote zitualaren bildur bait nintzan. Azkue'ri, Kanpion'eri, Lekuona'ri, Labayen'eri eta beste ainbeste idazle yayoei nien zaletasunak eraman ninduan Gipuzkerari garrantzi ori ematea.

Gaur ordea ziur-ziur uste dut, laugarren mailla ortan, gauzarik egokiena, irakasle bakoitzak ongien ezagutzen duan Euskalkia erabiltzea dala. Laburdiera laburditar batek, Bizkaiera bizkaitar batek eta abar (eta orrela idatzi izan det geroagoko izparringi-lanetan) <sup>(8)</sup>.

Lau Euskalki Nagusiak gure Unibersitate eta Batxiller-Ikastetxetan erabilli aal izateko ez litzake ikasleen aldetik batere eragozpenik izango, irugarren mailla ezkerero danak ulertuko bait lituzteke zailtasunik gabe Lau Euskalki oiek. Ez legoke txirotasunik ere aberastasuna baizik, Euskalkien erabilketa ortan, Euskalki bakoitza gure "betiko Euskeraren" aberastasun bait da.

Euskaldun guztiek Euskeraren lau Euskalki Nagusiak ezagutzea...! Orra or Euskeraren Batasuna. Ortik aurreragoko batasuna, sortzekoa ba-da, berez sortuko da, eguneroko jardunean, irugarren mailla ezkerero Euskera Osoaren ezagule izango diran euskaldunen artean.

<sup>(8)</sup> Pozik irakurtzen dut lantxo au idatzi ondorean, Orixe ber-bera ere nere iritzikoa izan zala, ots, Euskalki bakar bat erabiltzearen aurkakoa: Lau gaitz ekarriko omen lizkioke Euskerari Euskalki bakar bat, adibidez Gipuzkera erabiltzeak: "el empobrecimiento de la gramática, la falta de frescura y espontaneidad de los escritores, el no poder sacar de él sólo todo el partido literario que se pudiera del concurso de los otros Euskalkis, el amor propio herido de los que vieran postergado el suyo" (R.I.E.V., 1920; 54 or.).

M. I. P. <sup>(9)</sup>. "Euskaltzaindia de antes y de ahora". — "Antes Euskaltzaindia era un organismo entero. La actual se halla partida en dos mitades antagónicas. Dice San Martín que en toda entidad las decisiones se toman por mayoría; y añadido yo, que la actual Academia viene actuando según ese principio democrático, imponiendo unos criterios basados en esa mayoría. Lo cual no deja de ser muy triste, pues en asuntos de importancia debía procederse por unanimidad o consenso general. ¿Qué hubiera ocurrido si los acuerdos del Concilio Vaticano II se hubiesen adoptado por simple mayoría? ¿Y si el Estatuto Vasco de Autonomía hubiera salido adelante, por pequeño margen?"

"Para evitar esas situaciones de fuerza, lo normal suele ser (cosa que la actual Academia de la Lengua Vasca no ha querido hacer), dar tiempo al tiempo, prolongar los plazos de estudio y examen, presentar y discutir enmiendas, buscar acercamiento de pareceres..., hasta conseguir, no imposibles unanimidades, pero sí unas amplias mayorías. Creo sinceramente que

<sup>(9)</sup> M.I.P. nor dan ez dakigu. Zoritxarrez ba-da gure artean, len-izkiz edo izengoitiz izenpetuta lanak argitaratzeko oitura. Beñere egin bear ez litzaken gauza, batez ere orrela argitaratutako lan oiek eztabaida sortu dezaketenean. Nere ustez jarduera ori "arria jaurti eta eskua izkutatzea" da.



es el camino a recomendar <sup>(10)</sup>.

“Hay que tener presente que la imposición del “batua” por Euskaltzaindia se hizo con la agravante de que la mayoría de los académicos del sur del Bidasoa eran totalmente opuestos al batua, y si prosperó fue **con los votos de los académicos del norte del Bidasoa**” (“Diario Vasco”, 16-VIII-1979).

S. DE MENDAUR. “Algunos anuncios publicados por Euskaltzaindia en la prensa, en apoyo de la campaña “Bai Euskerari” constituyeron también un claro desacierto, al emplearse un lenguaje que ni por su léxico ni por su sintaxis cabría aceptar como Euskera”. (“Deia”, 15-I-81.)

MOKOROA'tar JUSTO. “Euskeraren etorkizunak orren bearrezkoa duala diozue beraz “Batasuna”? Literario batasuna? Euskera idatziaren batasuna?”

“Nik ez det bear gorri ori iñundik iñora ikusten; eta

<sup>(10)</sup> M.I.P. onen iritzikoa da Irigaray'tar Aingeru Euskerazain osoa ere. Entzun eiozu: “Euskaltzaindia no ha aceptado **importantes** propuestas de **su minoría** disidente, respecto a la ortografía en primer lugar. Un consenso sería una vía democrática también, y no, como creen los jóvenes, utilizar la votación **siempre en beneficio de las personas de un grupo**. Entre los académicos marginados (cerca de la mitad) —**erdia baiño geiago**, ipartarrak kendu ezker, gaiñeratu nai dut nik—, se encuentran conspicuos cultivadores del Euskera, doctos en él, que posiblemente quedarán postergados con el sistema citado, en caso de vacante, a favor de los jóvenes” (“Diario Vasco”, 12-VI-79). Ori nai du bā Euskaltzaindiak!: zarrak joaten diran neurrian, bere altzora “el batua”zaleak bakarrik sartzea! Al, ta, euskerazain baztertu oiek ez dira soilki “conspicuos” eta “doctos” utsak; Euskerak dituan gizonik jakintsuenak dira! (Azpimarratzea nik egiña da).

ain gutxiago, berriz, sumatzen nondik nora antola ditekengramatika-legezaleen eragiñez.

“Berez bezela ba-zetorren orain aspaldi zenbait euskal-izkeren elkar-artze edo alkar-kutsatze antzeko zerbait, erriak politikxo onartzen zijoana. “GAROA”-ren euskera ez zan giputzik geiena, baiñan bai edozein giputzek gozotan irakurtzen zuana. Gregorio Arrue'n euskera etzan Gerriko'rena, ezta J. Bta. Agirre'rena ere. Urruzuno ta Lardizabal, bakoitza beren bidetik zijoa-zen, baiñan zein giputzek etzuan batarena bezin errez ulertzen bestearena?”

“Bakoitzak ba-zuan bere gazi-gozoa eta bere edertasuna; eta banatasun orrek zertan egiten zion kalte giputz irakurleen izkuntzari? Ezertan ez. Baita euskalki batetik bestera ere zailtasunak leunduko ziran ez-arian ez-arian alkarren ezagutzeaz.

“Baña ba-datoz orain indarraren aldeko lege-jartzailleak, erriak darabiltzan euskal izkerak naspillatzereta eta biurrikatzereta, erriari bereak ez ditun bideetatik bultzaka joan-arazi naiean. Eta ni bildur, ez bataren eta ez bestearen ez dan izkuntza nabar, pisu eta elkor orrek ez ote **ditun gogoan joko euskaldunik jatorrenak, euskal-liburu ta paper guziak era bat zapuztutzeroño** (nik azpimarratua).

“H”rekikoa: itz batez guzia edo geiena esateko: zer aurrerapide dator letra ori gure alderdietarako euskeratan sartzetik? Batere ez. Ez beintzat nekez bederen ezer irakurtzen duten giputz-bizkaitarrentzat. Azken

urte ontan, argitaratu diran zenbait liburu gozo ("Ez-kontza-bidean", "Arrate'ko Ama'ren altzotik", Akesolo'ren "Salmoak" eta abar), zenbat lagunek irakurriko zitun gure errietan "H"-zaleen elorritz eta sastrakaz josita argitaratu balira?

"Beude "H" guzi edo geien-geienak, letra ori gabe beren itzak arrotz egingo litzazkienentzat! Eta alde emendik, gure jendearentzat betegarri uts, eta lanbidea ta zer-esana jartzeko bestetarako ez diran dotorekeri oiek...! Oraingoz beñepein; gure izkuntza estatusunatik atera ta bere buruaz jabetzen asi dedin arte!" ("Eusker-a", 1968; 223 orr.)

Gai oneri buruz ba-dauka Mokoroa jaunak idazti eder bat egiñik. "Lengua Vasca de Hoy y de Mañana". Ondo merezi du liburu orrek astiro irakurria eta sakonki oldoztua izatea <sup>(11)</sup>.

MUJIKAtar PLAZIDO. Iztegi aundi ta bikaiñ baten egillea. Euskal baratzan langille aspergabea:

"Gaurko egoerari begiratuta, Batua-rekin erreztasuna nundik? Batasunerako gipuzkera oñarri artuaz. Gipuzkerak ez du H'rik.

Gaur euskaldunak, seitatik bost, "H" gabekoak dira; ta geienen kalterako dana, ezin diteke euskeraren onerako izan. Errextasuna ta demokrazia bear ditugu. Izkuntza landuetan, "H" galtzen dijoa; jatorriari baño,

<sup>(11)</sup> Baita're merezi dute ori bera, Mokoroa'ren beste bi idaztiek: "Genio y Lengua"k, eta "Egiaren Billa"k.

geiago begiratu bear diogu euskeraren biziari. Geienontzat "H" gabe errezago; "H" kaltegarri. Uxa dezagun "H" ori (Italia'ko eredua) <sup>(12)</sup>. Beste izkuntzak gozoz-kontra daramaten zama, ez dezaigun karga euskaldunei. Mixio lurraldetan indio-kume batek, bere zazpi letrako abizenean iru "H" sartu zituen bein, eta ea zergatik ala egin zuan galdetutakoan, onela erantzun zidan: "porque eso viste mucho. Porque es más elegante". Jaun-andreak! Ez dezagun indioarena egin! Erreztasunari lagundu ta indarra eman, eta eragozpenak kendu. "H" letrak ez du garrantzirik batasunerako". (EUSKERA 1968. 247gn orrian.)

MURUA'tar RAMON. "Nik ez diot "H" oni ezerren garrantzirik arkitzen, ta iduritzen zait euskeraz idaztea eta irakurtzea zallagoa biurtzen duala.

<sup>(12)</sup> "Itali gogoratzen digu idazlan ontan Mujika'k. Ba-dabiltza Alemani'n ere gramatikaren eta idazkeraren garbiketan eta errezketan, ain zuzen sozialistak eta komunistak aitzindari dirala gañera. Ona zer idatzi zuan Alemani'ko Bonn uritik gai oni buruz Valentín Popesku'k 1973'ean Donosti'ko "Diario Vasco"ra: "En Alemania, los más grandes entusiastas y los más ultras de los progresistas han decidido emprender el cambio del sistema social por lo más lejano al dinero: la gramática. Su tesis es que un idioma artificioso y complicado es elemento esencial de un sistema clasista. Sólo los que tienen el dinero suficiente para estudiar largo tiempo pueden llegar a escribir correctamente. No sólo se reserva así la formación intelectual a las clases pudientes, sino que hoy en día —con la democratización de la cultura—, el tiempo que absorbe la enseñanza de la gramática impide que los escolares se familiaricen con temas "más actuales y sociales"... En resumen: la complicada gramática y la oscura ortografía son armas de discriminación clasista. En la utilidad de la reforma coinciden casi todos desde hace muchísimos lustros. Lo más probable es que Austria, Alemania Oriental y Suiza se adhieran al movimiento simplificador." ("Diario Vasco", 28-V-73. "Goiz-Argi", 30-VI-73.)

"Ezin jabetu naiz, zergatik erabaki au artu zuten Bayona'n. Batasunerako bidea errexteko edo zallago jartzeko?"

"Auxe da nere iritzia: Ez dezagun zaildu, erreztu baizik euskeraz idaztea ta irakurtzea. Bide onetik lenago iritxiko gera batasunera, bestetik baño." ("Euskera" 1968. 227 or.)

OLASCOAGA, G. "¿Ante un nuevo idioma? Hoy en día se ha puesto de moda el 'neo-euskerantobabélico' y que para aprenderlo hace falta saber mucho castellano. Nos están **destrozando nuestra hermosa lengua**, hasta el extremo de hacer repulsivo e imposible su estudio.

"Existen personas convencidas de que todos los creadores de este caos lingüístico tomaron parte activa en la construcción de la Torre de Babel.

"¿Estará Dios castigando a Euskalerría con la confusión de lenguas?" ("El Diario Vasco", 29-VII-80.)

OLAZAR'tar MARTIN. Bergara'ko Batzarraren ondoren, minduta, onela idatzi zuan: "Euskaltzaindia" koak lengo bidetik jarraituko dabe, euren iritziaz batera ez dagozenak barriro baztertuz.

"Euskalkiak aztertu ta landu leikez eta euskalkietan sortuko da idazkeraren azpi-igitura.

"Bakea gura genduan, eta bake-billa joan giñan Bergara'ra, eta ona emen len baiño guda gogorragoa ta

mingarrigoa. Nork jakin, bide orretatik nora elduko geran, eta zer jazoko dan? Ez egoan bake-biderik?, ala ez zan billatu? (13).

"GAMIZ" izengoitia erabilliaz, ona zer dion Olazar'ek:

"Arana'tar Sabin'ek euskerea bere iztegian, joskeran eta idazkeran, erdelkerietatik urrinduaz, bultzakada aundi bat emon eutsan euskeraren batasunari. Ez txikiagoa Azkue'k.

"Euskerearen benetako berrizkundera, Arana eta Azkue'ren aldikoa izan zan. Gizon aundi oneik dira, zalantza barik, gaur arte euskerearen alde geien egin dabenak. Sabin'en lana, politika aldetiko bultzakada nagusia alde batera itzita, gai oneri dagokiona be ez da ta, iru arlotan agertzen da: iztegia garbitzean, joskeraren zuzentzean, eta idazkeraren edo ortografiaren zuzentzean, eta iruetatik garrantzitsuenak iztegi ta idazkerarenak.

"Sabin bere aldiaren ondorena zan, eta ez zegoan bakarrik, baiña bera izan zan ausartiena. Bere asmaki-

(13) ("Deia", 21-XI-78). Pakearen billa joan giñala Bergara'ra diozu, Olazar? Bai jauna. Ala joan giñan. Eta pakea eskeñiaz amaitu nuan nik ango gure ariketa "Euskerazaleen" eta "Kardaberaztarren" izenean. Gogoan izango duzu nola esan nion Euskaltzaindiari azkeneko eguneko Billeran, gu, "Euskerazaleok" eta "Kardaberaztarrok" alkarrizketarako gerturik giñaudela eta egongo giñala beti; eta, Euskaltzaindia alkarrizketa ortara "zazpi puntuko" borondate onarekin urbiltzen ba'zan, "zazpi puntu t'erdiko" borondate onarekin erantzungo geniola guk. Orduan esan nuana, laburtuta, "el batua"ra biurtuta, zabartuta, baldartuta, 1978'ko "Euskera"n daukazu, irakurle, 820'gn orrian. Nor da emen pakearen maitale?, eta nor guda nai duana?

zun aundiena, abots bakoitzari ikur bat ezartea izan zan. Orrelaz atxearentzat ez egoan tokirik, abotsa ez dalako. Sabin'ek euskaldunik geienen oiturak artuaz, ondo egin eban atxea baztertzea.

“Sabin'en idazkerea, guztiz onartua izan da Euskalerrian.”

— Olazar'enak dituzu urrengo itz auek ere:

“Baturako, urterik urtera ta gizaldirik gizaldira, eginda egozan lanak aundiak ziran, baiña azkenaldi ontako illunaldiak ondoren txarrak ekarri dauskuz.

“Euskera batuaren landarea guri-guri ta mardul etorren, baiña “Batu-berri”zaleak landara txikiegia zala ta astiroegi azten zala uste izan eban, ta azkarrago azi daiten orrietatik tiraka asi ziran. Zer gertatu jakon landara mardul areri? Tximurtu, auldu ta gaixotu egin zan eta ara non daukagun betiko igartzeko arrisku larrian. Obeto izango zan lurra ondo atxurtu ta ongarrri indartzalleak inguruan ezarri ba'eutsoezan, baiña ez zan olakorik izan. Gaur euskerea batuagoa izan bearrean, iñoiz baiño sakabanatuagoa eta batzeko bidetik urriñago aurkitzen dogu.

“Aztertu dagiguzan Baiona'tik, Ermua'tik eta Arantzazu'tik etorri jakuzan ekaitz izugarria ta odei-ots txingorra ta edurtza otzak.

“Arana'ren antz-artzailleak, beste gai batzutan on aundiak ekarri ba-zituen be, izkuntza saillean ondamentira ekarri euskuen.

“Gizon aundiak antz-artzailleak izatea, ez da arri-zeko gauzea, sarritan jasoten dana baiño.

“Gure Arana'tar Sabin'ek be oraintsu izan dau antz-artzaille bat: arek politika iraulketa bat egin ebala, onek beste bat egin gura izan dau; arek Alderdi bat irasi ebela, onek beste bat; a sinistedun izan zala, au sinismen barriztu baten irasle ta indartzaille edo ukatzaille izango da; arek izkuntza barritu ta edertu ebala, onek beste barritze ta indartze bat emon gura dautso; arek atxea kendu ebala, onek atxea “Herrian” eta “bihotzean” eta izkuntza danean zabalduko dau.

“Baiña jakiña da antz-artzailleak beti ez dabela bear leukeen antza-artzen eta iñoiz, eginda egoan lana zapuztu egin dabeia. Olako zerbait jazo dala uste dogu izkuntzearen arloan beintzat. Ondamendia ekarri daua-la uste dogu.

“Baiña antz-artzaille onen lankideak gogotsu jokatutu dabe, eta berez aurkalariak izan arren oso-osoan Euskaltzaindia'ren menpean jarri dira. Zergatik ori? Lenengo, Erakunde au “eurakandutea” lortu dabelako.

“Eta, gero, jakiña, norberaren erako agintari bat jarri ezkerro, esanak egitea ondo erreza da. Agintaritzarik onena diktadura da, norberaren adiskidea diktadoreanean, beintzat.

“Euskaltzaindiak, ikusi dogunez ez eban erabagi sendorik artu, baiña bere egiteran, bere-berean alde batera makurtuta dago. “Batu-berri”ren aldera. Geienak aurka daukaz, eta erakunde orrentzat mingarria eta

Erriarentzat kaltegarria da egoera larri au.

“BATU-BERRI” bide onetan atxea ikur bat ez ote da? Ez ote daroa bere aldean politika, erlijio, gizarte-  
auzi eta izkuntza gaietako eretxi berezi bat? Galdera  
edo itun onei baietz erantzuten dautsoenak asko dira  
gaur.

“Atxeak eta atxedun batuak ba dauka ba, beste  
eretxi orreikaz edo alako zer-ikusia.”

— Mitxelena'ren bioloji arrazoiari buruz ona Ola-  
zar'en iritzia:

“Mitxelena'k batu-berriaren alde, arrazoi **barregarri**  
bat agertu eban. Nik ez dakit izkuntzalari ospatsu batek  
olako arrazoirik zelan atera legitzen izkuntza gaietan,  
bañan or dago.

“Bioloji-arrazoia, labur-labur esateko auxe da:  
gazteak batuaren alde dagoz, eta gazteak indarra  
dauken lez, Batua'k, “Batu-Berriak”, garaitzaille urten-  
go dau. Zarrak eta gazteak ez dabe izkuntza berdiñ-  
berdiña, iñoiz be egiten, eta gazteana da geroaren  
izkuntza. Ori munduko izkuntza guztietan.

“Baiña egin-berri dan Batua baten alde ekarri  
legike arrazoi ori?”

“Oraindiño, iñork be erabiltzen ez duan izkera  
bateri buruz, olakorik esan leike? Izkuntzetan eta  
izkeran, zarrakandik artu dogunak ez dauka gazteak  
erabilli gura leikeen beste indar?”

“Arrazoi biologikoak gazteak darabilrelako olako  
indarra ba'dauka, gazte oneik zar egiten diranean,  
urrengo gazteak ez ote dabe izango arrazoi biologiko-  
rik? Ala beste Batu berriago bat egin bearko dabe?”

“Batua izan bear ba'dau, zarrena ta gazteena bat  
eginda ez da sortuko? Batuaren arrazoiak ori baño  
sakonagoak eta jatorragoak ez ba'dira, izkuntzalari  
asko ez dira izango aldezkoak. Eta izkuntzalarien  
arrazoia ez da izango biologikoa, adimenezkoa baño (14).

ONAINDIA, AITA XANTI. “Euskera idatziaren ba-  
tasuna premiazkoa degu, **ez ordea ill edo bizikoa**: ori  
barik ere, beste mutur batzuk lotu-azi ezker, nire  
ustez, biziko da gure izkuntza zarra. Ala ere, komeni  
zaigu batasun-bidetik jokatzera; gaur batez ere; bakoit-  
za bere bidetik lan bakarka gabiltzan une onetan.  
Azken urte otan, ixtillu geiegi darabilkigu euskal  
idazleok, bakoitzak bere iritziari oso setati eutsi naiean.  
Otan, naizta mingañez askatasuna eskatu, egitez geu  
gera guztiz jauntxu, ingurukoa ondo loturik euki nai  
degunak.

“50 urte otan, batasunera jo degu, abiada aundiz jo  
ere. Beste ainbeste urteren buruan nik uste, gogo onez  
jokatu ezker, gauza askotan beintzat, batasuna egiña  
degu. Ta onean egiñiko batasuna degu ederrena, ez  
indarrez sartu-azia: (15) euskaldunok ez gera indarrez

(14) “Kardaberaz”, 5'gn zenbakia. 1976. Azpimarraketa, nerea da.

(15) “Una unificación dialectal no se decreta ni se impone” dio Aita  
Mokoroa'k. (“Lengua Vasca de Hoy y de Mañana”, 52 or.)

ipiñitako ezer ere ontzat artzekoak.

“Niretzat batasunik ederrena, euskera idatziz egitekoea noski, auxe litzake: Gaztañaga gazteak aste ontako Zeruko Argia'n diñoana: “Askorentzat idazten dana —dio— tellatupe bakoitzeko bere izkuntzak baztarturik, danontzat ulergarri dan eran egin bear da... Baña ortarako, ikasi egin bear. Euskeraz ondo ikasi ez duana, nere ustez, ez diteke batasun-mailla jatorrera igo. Batasunerako aukeratu diran era eta moldeetan ibilliko da, bai; geiagorik ez ordea. Idazleok, euskera sustraitik eta sakon ikasten ez degun bitartean, ez det ikusten batasun-bide jatorrik. Beldur naiz, mami gabe-ko gain-azal otz eta illa gertatuko ez ote dan gure euskera bateratua.”

“Ortik dator egiazki, berezko Batasuna, euskeraz sakon ikasi-ta euskalki estu batean ez ezik, denentzat idaztetik. Euskalki edo dialekto asko dauzkagula? Bañan ondo begiratu ezkerok ez degu oietan alde aundirik; askok uste baño errezago zaizkigu ta ikasi bearra degu, geurea ta ingurukoren bat beintzat, mintzatu ta idazteko aiña ikasi ere. Pixka bat sayatu ezkerok, ez zaigu au orren aldatz-gora egingo.

“H”; ez naiz onen zale, mugaz onuzko izkelgietan batez ere; erriak oso gaizki artu du oraingo gazte batzuen moda ori; inguruko izkuntza askotan kentzen ari dira; Italiarrak Habana ere “H” gabe idazten dute: ABANA, baita Holanda: OLANDA (“Euskera”, 1968, 224 gn. orrialdean.)

Iritzi auek Onaindia'k Euskaltzaindiari, Arantzazu'ko Billera ospetsurako, 1968'an aurkeztuak izan ziran. Ez zituan an Euskaltzaindiak azaldu. Aitzakia: “Astirik egon ez zalako”. (Ibidem p. 221.)

— Ondorengo lerro auek ere Onaindia'renak dira:

“... Baña orixe da egin duguna, izkuntza, lurrindu, beztu, Euskerari izen ona kendu.

“Egin dezagun batuzale ta batuaren etsai guztiok inkesta bat”.

“Guztiz interesgarria litzateke. Esaten dan guztia gezurra dala uste degu, begi biekin ikusi arte, eta ikusi ondoren ere, ez dogu zentzu orren aiterra ontzat artu nai izaten. Ezin etsi.

“Aitor dezagun lañoki, ez dogula ondo jokatu euskera bateratzean. Goitik beera zakarrean ari izan gera, euskera darabilen erriarengandik urrun, ulertzen ez duan izkera berri bat emanik. Eta muzin egin digu erriak. Errialde bakoitzak du bere izkelgi berezia, ta guk liburuxkarik arruntenak ere euskalki asma-berri orretan, nai ta ez, arrazi diogu. Eta izkelkiak garrantzi ikaragarria dute. Ona luze-samarra izanik ere, oraintxe irakurri dudana Bixente Latiegi'k “Deia”n idatzia: “Matar los euskalkis es el máximo genocidio cultural que en este mundo se puede cometer, porque en ellos, que son la más vieja lengua de Europa, está la más vieja cultura del Continente: la cultura del pueblo vasco. Los euskalkis vienen desde el Paleolítico. Han

existido siempre. Son tan antiguos o quizás más que el mismo Pueblo Vasco, que la raza vasca actual. El Pueblo Vasco se ha gestado y formado dentro del euskera, pero dentro del euskera de los euskalkis, porque no ha habido jamás otro euskera. Por ello toda nuestra cultura está en los euskalkis. En ellos están todo el pensamiento y la vida del Pueblo Vasco: su etnografía entera. Son los euskalkis quienes han dado forma a la filosofía del Pueblo Vasco; a toda la esencia de Euskalerría." Orduan, pekatu larria dagigu Euskalkien aurka ari geranean! (16):

Euskera errezteaz ari dala, Itali ipintzen digu Onaindia'k eredutzat. Guk aipatu-berri dugun Alemani'z gaiñera, Israel ere artu genezake euskaldunok begien aurrean eredu. Ain zuzen, oraintxe Israel'en izan berria da Euskaltzaindiaren ordezkari-sailtxo bat. Ezer gutxi mintzatu da Euskaltzaindia ibillaldi ontaz, ez bait da an entzuna bere gogokoa izan. "Bide okerretik zabiltzate", esan omen diote Israel'go agintari eta izkuntzalariek. "Bide okerretik zabiltzate. Gu emen, gure izkuntza al dan guztiena errezen ari gera. Zuek berriz, an, zuena al dan guztiena zailtzen." Len ere beste ibillaldi batean orrelako zerbait entzunak dira Euskaltzainiak. Andik itzultzerakoan, orain dala iru-lau urte, "an entzundakoari kaso egiten ba'diogu, Akabo gure Batua", esan bait zuan, diotenez, orduango euskaltzain bidari batek.

(16) Onaindia'tar Xanti'k Dunixi Oñatibia'tarrari egindako eskutitza (20-IX-80).

OÑATIBIA'tar DUNIXI. (Zillegi bezait nere adiskide miñ onen goratzerre txiki bat egitea. Sendagille yayo eta zintzoa, Dunixi. Zaldun bikaña, abertzale sabindar jatorra beti ere. Euskaltzale sutsua. Amaika borroka aberriaren alde, euskeraren alde, eta egiaren alde egindako gizona.)

Bi Oñarri-Lege garrantzitsu izan diran oraintxe euskeratuak: Españi'ko "Konstituzioa" edo Oñarri-Araudia, eta Euzkadi'koa, au da, "Estatutoa". Españi'ko Konstituzioa Euskaltzaindiak euskeratua izan da, eta eun milla pezta jaso zituan Euskaltzaindiak zabarkeri uts besterik ez dan itzulpen orren sari.

"Estatutoak" bi itzulpen izan ditu. Bata, Konstituzioarena bezain baldarra, Euskaltzainditarrek egiña. Bestea Euskerazaintzak egin duana.

"El Diario Vasco"n egin zuan Dunixi Oñatibia'tarrak Estatutoaren bi itzulpen oien azterketa. "Begien aurrean jartzen dizkitzut —dio—, bietatik artu ditudan itzak, bi Elkarte oien jokabidea (Euskaltzaindiaren eta Euskerazaintzaren jokabidea), eta batetik bestera zer aldia dagon ikusi dezazun (17)":

(17) "El Diario Vasco", 20-V-1980.

**ERDERAZ EUSKALTZAINDIAK EUSKERAZAINTZAK**

Proyecto Estatuto	Estatuto Projektoa	Araudi-gaia
Juntas Generales	Junta Jeneralak	Batzar Nagusiak
Reforma	Erreforma	Eraberritzea
Referéndum	Erreferenduna	Erri-galdeketa
Organismo Público	Organismo Publikoa	Erri-Erakundea
Elaborarán (leyes)	Elaboratuko	Eratuko
Actividad Pública	Aktibitate Publikoa	Erri-ekintza
Asamblea	Asamblada	Batzarra

“Eta abar... Auen antzeko erderakadak eundaka, bait dakarzki Estatutoaren idazki onek”, esanaz amaitzen du Oñatibia’k zerrendatxo au.

Ba’dakit, “Estatutoaren itzulpena Euskaltzaindiak ez baiña, Euskaltzaindiko batek egiña dala”, esanaz agertu-berri dala Lizundia “Deia” izparringian <sup>(18)</sup>. Jakiña! Erakundeek ez dute beiñere ezer egiten. Erakundeetako jendeek egiten dituzte gauzak. Euskerazaintzaren itzulpena ere bi gizonen egiña da.

Eta Euskaltzaindiak “Estatutoaren” itzulpenaren gurasotza aitortu nai ez ba’du ere, ez dauka Konstituzioarena ukatzerik beintzat, Españi’ko Oñarri-lege orren euskeratzea, Euskaltzaindiak berak egiña bait da. Guri ordea itzulpen au, beste ua baiño askoz ere karragoa eta okerragoa iduritzen zaigu:

- a) Ulerteziña dalako! (“Erderazko itzez bete-beterik zeok eta ala ere ez diat idazki madari-

<sup>(18)</sup> “Deia”, 27-V-81.

katu ortan ezer ulertzen” esan-berri dit adiskide batek.)

- b) Alper-alperrikako erderakadaz josia dagoalako, adiskide orrek dion bezala.

Ona, Oñatibia’tar Dunixi’k bilduta, Oñarri-lege ortako lili-xorta pinpirin bat:

**ERDARAZ EUSKALTZAINDIAK EUSKERAZAINTZAK**

Soberanía	Subiranotasuna	Buru-jabetza
Libremente	Libreki	Askatasunean
Acuerdos	Akordioak	Erabakiak
Comunicar	Komunikatu	Jakin-arazi
Poderes	Botereak	Agintek
Bandera	Bandera	Ikurriña
Enseña	Entseña	Ezaugarri
Discriminación	Diskriminapena	Bereizkeria
Delito	Delitu	Lege-austea
Huelga	Greba	Lan-uztea
Disolución	Disoluzio	Ezeztatu; Desegin
Colectivo	Kolektiboa	Talde
Empresario	Enpresari	Lantegi-buru
Centros	Zentruak	Biltokiak
Empleo	Enplego	Ogibide; Bizi-bide
Préstamo	Prestamenak	Diru-aurretzeta
Consumidor	Konsumatzaile	Erosle
Respetar	Errespetatu	Aintzat artu
Facultades	Fakultadeak	Almenak
Estado	Estatua	Latterria
Concurren	Konkurritzen	Bateratzen
Arbitrariedad	Arbitrakeria	Bidegabekeria
Tradicionalmente	Tradizionalki	Oituraz



Abdicación	Abdikapen	Utzi-era
Por orden	Ordenez	Aginduz
Testamento	Testamentua	Azken-naia
Tutor	Tutore	Aita-ordeko
Propuesta	Proposamena	Asmo-agertzea
Delegado	Delegadua	Ordezkaría
Tramitación	Tramitapena	Bidean jarri
Defensa	Defentsa	Aldeztea; Zaintzea
Exclusivamente	Esklusiboki	Bakarrik
Título	Titulua	Izen-buru
Capítulo	Kapitulua	Atal-buru
Artículo	Artikulua	Atala
Apartado	Apartatua	Atal-zati
Competente	Kopetentea	Gai; Egoki
Declaraciones	Deklarapenak	Aitormenak
Textos	Testuak	Gaiak
Eta abar..."		

Bein edo bi aldiz irakurri ondoren, ea irakurle, jabetzen zeran zer esan nai duan Euskaltzaindiak, Españi'ko Konstituzioan idatzitako lerro auetan:

“Disposamen gehigarriak:

Konstituzio hortako 12. artikuluko adinez nagusitasunaren deklarapenak ez ditu kaltetan egiten Deretxo Pribatu ingurunekeo, eskubide foraletan babestuko egoerak” (19).

(19) “El batua”ren ulert-ezintasuna ipiñi nai digu begien aurrean Dunixi'k. Gogoan dut oraindik nola oi ugin zuan, Bergara'ko Biltzarrakoan aretoaren erdian Xarriton euskerazain laburditarak: “Nik emengo Euskera Batua ulertzeko “Real Academia Española”ren iztegia erabili bear izaten dut”. “Eta guk zuena ulertzeko “Academie Francaise”rena!, erantzun zitzaion.

Dunixi'renak dira onako lerro auek ere:

“Hondarrabia” “H”rekin idatzi bear omen da. Bañan ONDARROA, ONDARRA, ONDARRAITZ, eta beste antzekoak “H”rik gabe, sustrai berekoak izan arren. Bidasoz goitik dagon Be-Naparroa'n ere ba-da erri bat ONDARRE izenekoa, batere H-rik gabe. Gauzak orrela, Euskaltzaindia zer nasketak ari zaizkigu sortzen? Zer arrazoietan oñarritzen da Euskaltzaindia, euskaldunei orrelako buruaustekak sor-arazteko? Ta orrela, euskeraren kaltean jokatzeko, bai al du Euskaltzaindiak eskubiderik? (“Diario Vasco”, 24-IX-80.)

OÑATIBIA'tar YON. Euskal gramatikagille jakintsua. Askotan salatu zuan Euskaltzaindia'ren jokaera okerra —jokaera ori gaurko izkuntzalari guztien elburuaren aurkakoa dalako—. Ain zuzen, izan ere gaurko izkuntzalarien pentsaera auxe duzu:

“Abots bakoitzarentzat ikur bereizi bat (letra bat), eta abotsik gabeko ikurrik (letrarik) ez”. Ta, ara nondik!, euskera genduan Errusi'ko eta Turkia'ko izkuntzekin batera, elburu ortara bete-betean iritxia zegoan izkuntza. Orregaitik atzerritarrek ere, beste bi izkuntza oienarekin batera, eredutzat aipatzen zuten gure Euskeraren idazkera.

Maiz esan oi zuan Yon'ek Euskaltzaindia zoratu egin ote zan galdezka ibilliko zizala atzerriko izkuntzalariek, Euskaltzaindi ori Euskerak lorturik zeukan idazkera garbia pikutara botatzen ari zala ikustean. Gertakizun au ekarri oi zuan ori esatean ezpafiñetara.

Euskal idazle ezagunetako bat agertu omen zan orain asko ez dala inprenta batera. Eta bertako nagusiak esan omen zion amerikarrek, itzak, esate utsarekin, idazten dituan tresna bat sortzen ari zirala. Baiña, esaten ez diran izkiak, agoskatzen ez diran izkiak, —emengo “H”a adibidez—, agoskatzen ez diralako ez dituala, jakiña, idatziko. Ori, “H”ak ezertarako balio ez dualaren seiñale dala eta orregatik izki ori len-bait-len izkuntzetatik kendu egin bear litzakela. Ta, “H”-zalea zan idazle arek onela erantzun omen zion: “Gerora, bear ba’da, kendu egingo degu H’a, baiñan, orain erabili!”

“Ori duk arrazoa! Gero, kendu. Eta bitartean? Alkar ezin-eramana, asarrea eta gorrotoa sortu euskaldunen artean! Ori, orrelaxe da Jaunak”, esanaz amaitzen zuan gertakizun aren aipatzea Yon Oñatibia’tarrak (20).

OTEIZA’tar GORKA. Irudigille ospatsua. Ara berak idatzitakoa: “La “H” es letra-chimenea, que poluciona la estética del euskera”. (“Garaia” asterokoa; 1977’ko Ekaiña.)

Ta beste itz auek: “Nos precipitamos sin preparación ni visión suficientes para imponer un euskera batua, que secará la gran tradición de nuestros bersolaris; parece que nos decidimos por una “pre-

historia batua”, que secará todo lo que es imaginación y espiritualidad en el pozo sagrado de nuestra Prehistoria para así, aislados de nuestras fuentes originales, terminar como ya estamos, muriendo de ignorancia y de sed vascas de hombre” (21).

Mintzaera gogorra? Ez da biguñagoa ondorengo au. Ikus zer esan-berri dion Oteiza’k “Muga” aldizkariari:

(20) Errez oartuko ziñan onozkero, irakurle, “H”a dalako, edota “LL”, “Ñ” ta “Y”a diralako, berebiziko iskamil ondagarria sortu digula batera arrazoirik gabe Euskaltzaindiak. Guzia..., Mitxelena’ri amore-emateagaitik. Eta Mitxelena’k zergaitik? Baiona’ko bere adiskide iraultzalariei losintxa egiteagaitik. Iraultzalari trakets aiei gizonki aurpegi eman nai ez ba zien ere, ba-zuan Euskaltzaindiak irten-bide errez egoki bat: Bi idazkerak neurri eta era berdiñean ontzat artzea: Arana Goiri-Azkue’n idazkera eta iraultzalari marxizale auen idazkera berria. Euskaltzaindiaren barruan ere ba-ziran erdi-bide onen aldeko Euskaltzaindiak. “Esto de tener dos formas de escribir es aceptado por las Academias de las Lenguas bretona, gascona y flamenca de Francia —idatzi zuan orduan Irigaray Euskaltzain osoak—. Debería tenerse en cuenta sobre todo en los concursos literarios y exámenes de monitores y maestros. Entre estos hay mucha gente que conoce muy bien su dialecto, pero no están impuestos en el “batua”. Si se les excluye es un perjuicio y una injusticia enorme”. “A estos no se les puede discriminar”. “Bastante que hacer tenemos con lo pocos que somos”. (Irigaray: “La Voz de España”, 14-X-78.) Euskaltzaindiak, ordea, euskaldun guztion Zaindari izan baiño naiago izan zuan bere burua taldetxo odolbero borrokalari baten gidari biurtu. Arrezkero Euskaltzaindia ez di-teke Euskeraren eta Euskaldun guztion Akademia izan. Gauza bat esan nai diot Irigaray Euskaltzain Osoari: Berak, bere adiskideekin batera, Euskaltzaindiaren barruan eskatu zutena bera eskatu genduala guk ere (kardaberaztarrek eta euskera-zaleek), Bergara’ko Biltzar doakabe artan: Euskaltzaindiak bi idazkerak ontzat artzea. Oñatibia’tar Manu’k aurkeztu zuan eskaria.

(21) “Deia”, 30-XI-1979.

“El euskera del nieto ya no sirve para hablar con su abuelo, ya no conecta el creador con su imaginación. Ya el bersolari comienza en su inspiración fácil a estorbarse con su batua funicular de atril para quiosco municipal. Este euskera para tontos tan bien unificado, solamente por tontos podría haber sido hecho, y tan rápidamente. Es que solamente la pretensión de que en este estado de incultura vasca en que nos hallamos se pueda pensar que unos hombres desarreglados (como lamentablemente nos encontramos casi todos), antes de arreglarse ellos, puedan arreglar algo, esto es lo realmente preocupante. Es que no es sólo la incultura, es que revela retraso, debilidad mental. Y es que esta inseguridad mental, este retraso, así en cantidades deportivas, agrupados así en colectivo, en Academia, en partidos, esto es lo gravemente preocupante, porque la incultura se remedia, pero esto no” (22).

Tolesturarik gabeko gizona da Oteiza irudigillea, berak moldatzen dituan aitz edo burni-irudien antzekoa eta irudi oietako utsunezokoak bezain argia. “Ultimamente... (dio aipatutako aldizkarian), me he apartado en un caserío navarro, en territorio elegido por mí, de leprosos lingüísticos.

“Vuelvo a veces a Orio, lo necesito. Me acerco por Irún y ya pronto sufro: las señales de Ondarrabi en el camino y el brochazo de pintura negra untado con la hache en la basura, y puesta sin el menor respeto, sin saber ninguno, delante de la O sagrada y limpia como

(22) “Muga”, 13 zenbakia. 1981'ko Otsailla, 60 or.

un plenilunio” (23).

Ez da bera euzkotarra jaiotzez, baiña Oteiza'ren itz gordiñ auen ondorean oso ongi datorrelako emen ezarriko dut FERNANDO VIZCAINO CASAS izparringilariak “Interviú” izeneko aldizkarian argitaratu eta “Deia” egunerokoak 1981'ko Ekaiñaren 23'ari dagokion bere zenbakian, “Kanpokoan parregarri eta etxekeen negargarri” izen-buruarekin bir-argitatu duana:

“Notoriamente, el euskera es una de las lenguas más antiguas que se conocen. Por eso mismo su vocabulario es limitado y quedan fuera de él buena parte de palabras que han ido surgiendo al compás del progreso humano. De cuidar el respeto a los distintos dialectos vascos se ocupa la Euskaltzaindia, que lleva muchos años velando por su pureza (24). Hay también en las Vascongadas grandes eruditos e ilustres estudiosos de su lengua. Todos ellos deben estar desesperados ante las necesidades que últimamente se vienen cometiendo, por parte de advenedizos analfabetos, que sin encomendarse ni a Dios ni al diablo, están inventando un falso idioma a base de retales de otros. **Es la técnica que aplicó el doctor Frankenstein para fabricar artificialmente un ser humano; naturalmente, le salió un monstruo.**

(23) Ibdm. 65 orr.

(24) “Lleva”ren ordez, “llevó” idatzi bear zuan eta “se ocupa”ren ordez “se ocupó”. Madrid'ko idazle onek ez daki gaurko Euskaltzaindi au lengo Euskaltzaindi ua ez dala, eta gaurko Euskaltzaindi onek darabilkian jokaera okerraren berririk ez du.

“También monstruoso se me antoja eso de pretender que poniendo una ka donde en castellano hay una ce, una be donde la uve y sustituyendo la che por tx, ya se está escribiendo en euskera. En un periódico de Bilbao leí no hace mucho, con el natural espanto, el anuncio de la actuación en un teatro de cierto **kolektiboa**.

“Cuando uno llega a Sondica, se encuentra con rótulos que anuncian el **Aireportua**. Semejantes degeneraciones de una lengua hermosa, difícil, absolutamente autóctona, sin parentesco con casi ninguna de las que hoy se hablan en el mundo, pienso que no le hacen ningún bien, aunque quizá sean achacables a un lícito deseo de propagarla. Eso no justifica el error.”

SALCEDO, PEDRO J. “Nunca agradeceremos bastante la fecunda y positiva labor que en la prensa desarrolla periódicamente “EUSKERAZAINTZA” de Donostia. Una labor de desbroce de la lengua, del Euskera, enderezadora de los actuales entuertos lingüísticos. Un meritorio trabajo de euskeralización, no de un Euskera híbrido, apareado con el castellano, sino de rejuvenecimiento idiomático, de análisis etimológico, de creación de vocablos extraídos de raíces netamente euskéricas digno del más encomiable elogio.

“Se nos quiere ahora inculcar un Euskera basado en el facilón y cómodo sistema de copiarlo de la terminología moderna castellana con la simple adición

en el mejor de los casos de sufijos como “a”, “na”, “ea”, “oa”, etc., cuando no en el empleo y uso disparatado de palabras netamente castellanas. Así tenemos la propaganda de “KORRIKA” diciendo: “apúntate y toma parte”, escrito en euskera híbrido “apuntatu zaitetz eta hartu parte”. Ahí tenemos el irrisorio engendro de “aireportua” de Sondica, aquí cerca en el barrio de San Ignacio, etc., etc.

“¿Para estos y otros atentados lingüísticos está Euskaltzaindia? ¿Para esto se exprimen las meninges los sesudos componentes de la flamante Real Academia Vasca?

“¡Cuántos agotadores esfuerzos deben hacer estos señores para “crear” después de jornadas agobiadoras y terribles dolores de cabeza, estas y otras palabras de “Euskera moderna”! ¡Cuántas horas de investigación para darnos por fin un castellano camuflado! ¡Qué manera de adulterar un idioma!

“El método llevado por Euskaltzaindia está conduciendo a la desaparición de nuestro idioma por absorción y ósmosis con el castellano en plazo no muy largo.

“Menos mal que aún quedan personas conscientes de ese peligro que hacen un trabajo de compensación constructivo en pro de un Euskera sin injerencias extrañas, propio y puramente autóctono como lo hacen los de EUSKERAZAINTZA.” (“Deia”, 28-I-81.)

URKIRI'tar TIMOTEO. “Hay que empeñarse en la

limpieza del léxico o vocabulario euskaldun. Por diversas razones coyunturales, conocidas de todos, ha habido una verdadera invasión de voces erdaldunes en la terminología de muchos escritores actuales del euskera... Parece mentira que, entre nosotros algunos hijos de Euzkadi, siendo tan celosos de su libertad en otras zonas de la vida social, se hayan constituido libre y voluntariamente en viles esclavos o lacayos del vocabulario castellano.

“Sería verdaderamente triste que el euskera, que ha sido capaz de sobrevivir a una rabiosa persecución desencadenada durante tantos años, quedara degollada o al menos horriblemente mutilada, con la invasión de incontables palabras y frases erdaldunes, pacíficamente admitidas cuando no provocadas por quienes se tienen por euskaltzales.

“Cualquiera que conozca un poco la estructura íntima de nuestra ultramilenaria lengua, el euskera, sabe perfectamente sus inmensas posibilidades para forjar nuevas voces y expresiones **desde dentro**: Nuevas voces y expresiones que se transparentan cristalinamente.” (“Diario Vasco”, 27-V-78.)

—San Martin'dar Yon Euskaltzaindiko idazkariari buruz, onela dio: “¡Qué de palabras castellanas en el texto de su escrito euskérico; Ahí van algunos botones de muestra: konprenitu, deboziñoa, imajina, obisporik, klase, koletia, erretiru, erremedio, kontseju, kohetea... eta abar eta abar”. (“Diario Vasco”, 16-VII-78.)

—Eta Bergara'ko Batzarraren ondoren:

“El euskera llamado “batua”, que es una **singular forma de unificación del euskera**, forma no sólo discutible, sino discutida e incluso rechazada por eminentes euskerólogos.

“En la campaña pro euskera “Bai Euskarari”, en realidad de verdad, en la praxis, su actitud (Euskaltzaindiarena) no ha sido la del “Bai Euskarari” sino la del “Bai batuari”.

“Desde cuándo y con qué fundamento, Euskaltzaindia es el único organismo con autoridad para formar o acuñar nuevas palabras en euskera? ¿Va a tener Euskaltzaindia una autoridad **que no la tiene Academia alguna** de la Lengua en el mundo entero? Las palabras nuevas de una lengua las forman, sobre todo, los literatos o escritores de los respectivos idiomas, juntamente con el pueblo. ¡Pobre lengua castellana si no hubiera tenido —por citar un solo nombre— un escritor como Cervantes! ¡Pobre lengua inglesa, si no hubiera tenido un genio literato como William Shakespeare! ¡Cuántas palabras nuevas no formó el escritor euskérico P. Manuel de Arrandiaga que pertenecen ya al patrimonio común de los que hablan y escriben en euskera!

“¡Pobre euskera, si es únicamente autoridad Euskaltzaindia para formar o acuñar nuevas palabras, dados los criterios **furiosamente latinizantes y castellanzantes** que predominan en muchos de sus miembros

actuales! ¡Muy en breve habríamos de organizar un día para llorar amargamente y sin remedio, **la degollación del euskera!**

“Desde el año 1920 al 1968, casi durante cincuenta años, se había logrado, en Euzkadi, una apreciable literatura de ortografía unificada, como jamás se habría conocido en nuestra historia... Después en géneros literarios tan diversos como novela, poesía, teatro, cuentos, escritos religiosos, periódicos, revistas, surge la nueva ola de Euskaltzaindia rizando la bandera del euskera batua, o unificado; y lo primero que verifica es machacar la unificación ortográfica, anteriormente conseguida. Los defensores del “batua”, desde el **interior del castillo de Euskaltzaindia**, han ganado a pulso, el título de Medalla de Oro de defensores del “euskera banatua”, bajo el aspecto ortográfico.” (“Diario Vasco”, 21-9-78).

URRUZOLA'tar EXTANIX, “UXOLA”. “Euskaltzaindiako A. Villasante lendakaria, au esana da: “El batua es para usos escritos, no para hablarlo.” (“El Diario de Navarra”, 8-5-1977). Uxola'ren eraso:

“¿Nun ikusi dezu zuk idazteko izkuntza bat, eta itz egiteko beste bat erabiltzen dun erria?

Guk batzen joan nai genuke, polliki-polliki, erriak erabiltzen duan euskera; jaso ta bateratu, eta danok erabiltzeko gai dan euskera indartu, idazteko ta itz-egiteko, bitarako balio lukena. Ez goaz, beraz, euskera

elkartu baten aurka, alde baizik, baña euskera elkartua, errikoa. Erri-euskeran oiñarriak izango lituekeana. Zuek ordea euskerantoa, edo latin-euskera bat egin dezute, millaka itz eta erderakadak sarturik españar izkuntzetik eta prantzesetik”.

— Euskalkiak iltzera datozela-ta:

“El latinizante filólogo Koldo Mitxelena y el etnólogo Sr. Satrústegui, han defendido públicamente la presente teoría: El euskera de nuestros antepasados, el que nos viene del caserío, debe desaparecer. Se deben recoger todas las palabras, frases y dichos castizos, bien escrituralmente o en cintas magnetofónicas y guardarlas bien archivadas en nuestras buhardillas. Solamente deben servir para museo del euskera muerto, pero no para la vida moderna de Euzkadi. Es de esta misma opinión el filósofo-teólogo franciscano Joseba Insausti, cuando dice que “hay que eliminar el euskera del caserío y dar paso al del cemento”. (“La Voz de España”, 2-2-79).

— Euskaltzaindi'rako, Zatarain'dar Ambrosio jakintsua, baztertuz, Enrique Knorr Euskaltzain osoa auke-ratua izan zalako, ara zer dion:

“¿Por qué en estos últimos años ciertos señores académicos han llevado la política discriminatoria de elegir nuevos académicos entre los elementos de la izquierda vasca, aunque éstos estén muy por debajo, en conocimientos del euskera, de otros postergados?” (“El Diario Vasco”, 16-8-79).

“Creo en una necesaria unificación del euskera, pero no en ese “batua” al que considero como un engendro y un pecado de lesa lengua vernácula.” (25).

(25) Euskeraren bateratzea bearreko gauza dala uste du “Uxola”k. Ori uste dute idazkiño ontan mintzatu zaizkigun beste idazleek ere. Ez naiz aburu berekoa; edo ta ez diogu danok “Batasuna” gauza berari esaten.

Kezka gogo-zigortzalle biurtu zaigu, euskaldunoi, joandako mendearen amaia ezkerro Izkuntzaren Batasuna, eta nere ustez batere arrazoirik gabe, Euskerak —nere ustez—, **ez bait du ezertarako batasunik bear.**

—Ez beintzat **bizitzeko.** Batasunik gabe bizi izan da orain arte. Izkuntza bateratuz inguratua egon oi da beti. Il dira izkuntza aundi, gogor, indartsu, “zeatz bateratu” aiek danak. Guzti aietatik euskera bakarrik bizi da oraindik: “bateratu gabeko” izkuntza!

—Ezta bere **edertasunerako** ere. “Bateraketaren” jaurle nagusiek berak aitortzen bait dute “Euskera Bateratuak” elertirako, ots, edertasungintzarako, ez duala balio.

Batasuna amestu oi dugunean inquruko Izkuntzak euki oi ditugu begien aurrean, gure Euskera beste izkuntza oiek bezelakoa ez dala gogoratu gabe. Gure Euskera, oiek bezelakoa izan bear dula pentsatzen dugu, eta ori egitean gure Euskeraren zertasuna eta nortasuna ukatzen ditugu. Gure izkuntza beste oiek bezelakoa egitea lortuko ba'gendu, gure izkuntza ilko genuke. Izkuntza ori ez litzake Euskera izango.

Gure Euskerak ez du **oien** batasunik bear, gure Euskerak **bere** batasuna ba'dualako. Beti izan du batasuna. Baña **berea**; ez, **beste oiena.** Euskeraren batasuna une berean “bat” eta “lau” izaten dago. Gure Izkuntza ez da Latiña eta onen alabak bezela, “era bakarrekkoa”. Laukoitza da. Eta ala izan bear du beti Euskera izateko.

Orregaitik Euskerak ez du “batasunezko arazorik”. Euskeraren Batasunaren Arazoa ez da Euskeraren baitan dagoan arazoa, euskaldunen baitan dagoana baizik. Euskeraren batasuna lortzeko ez dago euskera ukitu bearrik; euskaldunak jorratu eta astindu bear dira. Euskaldun bakoitzak bere Euskalkia ondo mintzatzeaz eta idazteaz gaiñera beste iru Euskalkiak ondo eta errez ulertzeri iristen ba'da, lortua dago besterik gabe EUSKERAREN BATASUNA.

Beste edozein Batasun-Mota ez da Euskaldun-Batasuna, atzerritarra baizik. “Española” edo “Frantsesa”. Baiña Euskotarra ez.

“Recuerdo perfectamente cómo en los prolegómenos de la Asamblea de Aránzazu Koldo Mitxelena publicó un artículo furiosamente latinizante que me hizo llorar más que temblar, por el porvenir del euskera popular.”

“A la Asamblea de Aránzazu sí envié mi opinión escrita, que **no se leyó; ni tampoco se mencionó** su existencia en un trabajo que publicó Euskaltzaindia dando cuenta de las opiniones presentadas... ¿Por qué se guillotiné aquella mi modesta aportación al Congreso? Sencillamente, porque atacaba desde un punto de vista en el que seguramente no lo hizo ningún otro.

“Manifestaba que el “batua” era antiprogresista, antisocial y antiacadémico, por las dificultades que origina la ortografía, al incidir más directamente entre la clase necesitada, puesto que casi siempre los hijos de los obreros se veían necesitados a entrar a trabajar sin haber terminado de aprender la ortografía, dando automáticamente título de más cultos a los hijos de los pudientes, solamente porque éstos podían prolongar sus estudios. En circunstancias similares, en Alemania hay reacción de la clase trabajadora en pro de la simplificación ortográfica.” (El Diario Vasco”, 7-9-79).

— Onela salatzen du, Euskaltzaindiak Bergara'ko Batzarrerako egin zuan erri-galdeketa edo iritzi-jasotzea:

“Y vino a continuación el coloquio en donde D. Vicente de Latiegi, puso en duda la legitimidad de la

encuesta efectuada, socialmente sobre todo, aduciendo la razón de cómo aquel que efectúa una encuesta tiene todas las bazas a su favor, puesto que puede dirigirla por donde le convenga. O de que se “pueda hacer una encuesta orientándola de tal forma que dé el resultado apetecido.” (“El Diario Vasco”, 13-X-78.)

ZATARAIN'dar ANBURTSI. “En relación a la “H” ni por etimología, ni por extensión, ni por praxis ni por necesidad, hay razón alguna para introducir esa letra en el Euskera unificado” (26). Zatarain'ek itz auek, ez dute oraindik erantzunik izan.

“ZELETA” (GARMENDIA GORTARI'tar YON). “Euskera Batua”taz. — “Nik, arazo trakets oni buruz, gure euskaltzale jatorren artean bilduriko iritzirik nabarmenenak abetxek dira:

1º “Euskera Batua” dalako ori, ulergaitz eta nazkagarri zaiela **euskera jatorrean** egindako idazlaretara oituak diran euskal-irakurleeri.

2º Ospin edo “binagrea”-rekin ongarritutako “arta” bat, derrigorrean jan-arazi-nai izatea bezela iduritzen zaiela, “jaki” lardats ori.

3º Euskal-irakurleak, geitu bearrean, gutxitu egingo zaizkigula jokabide ondagarri orrekin” (27).

(26) Bere idazlan ontatik: “El Euskera escrito y su ortografía”.

(27) Bere eskutitza. 20-V-79.

## “EL BATUA” ULERTU-EZIÑA DA!

Gogor eraso diote, ikusi al izan dugunez, Euskaltzaindiari gure idazle bikaiñek. Eta baita euskaldun ez diran euskalzalerik onenak ere! Zergaitik ote? Muzin egin dio “el batua”ri erri euskaldunak. Zergaitik ez ote dute idazle ta euskerazale aiek, Euskaltzaindiak indarrez sartzen digun izkera ori begien aurrean ikusi nai? Zergatik ote dio erriak gorroto? Zergatik?

“El batua” berri ori, zakarra, latza, atzerritarra, zaila eta, areago oraindik, ulertu-eziña gertatzen zaialako.

Gaur egun, Euskaltzaindiaren lendakari lez, A. Villasante prantziskotarra da “el batua”ren buruzagi. Bedi bada beste prantziskotar bat, Aita Jose Luis Zurutuza “el batua” orren ulertezintasunaren lendabiziko epaille. Ona zer dion Aita Zurutuza'k ARENDUI izen goitiarekin idatziaz (1):

(1) Orain erderaz irakurrjko dituzun itzak ez dira Arendui berarenak. Arendui'k euskeraz idatzi zuan; itz auek Labayen'ek, Arendui'ren idazlana oñarritzat artuta erderaz, oso ederki egin zuen laburpen baten esaldirik garrantzitsuenak dira. Arendui'ren lana luzexamarra da emen sartzeko; ala ta guztiz, egokitasun aundikoa bait da, idazkiño onen azkenean ipiñiko dugu.



“El “batua” no es aceptado por su léxico, por su morfología y por su ortografía. El rechazo es por su sintaxis y por su vocabulario infestado de galicismos que repelen al oído y no convidan a su lectura. El pueblo llano no traga el manjar indigesto que se le ofrece; lo mismo les sucede a las personas cultivadas; es decir, que no sirve ni para “legos” ni para “entendidos”. El pueblo da su aprobación al lenguaje vivo y no al inerte, estéril o inútil, que aparece en muchos libros que no se leen.”

Epaiketa latza eta gogorra Arantzazu'ko praille onek “el batua” eta Euskaltzaindiari egiten diena. Egia ote da, bete betean egia, “ARENDUI”k diona?

Egia da beintzat “el batua” mordollo au ERRIAK ez duala ulertzen. Erriak?: Zer diot Erriak? Ezta jende ikasiek ere..

Entzun, irakurle, euskaldun jakintsu batzuen iritzia. Euskaldun auek danak, Eusko Alderdi Jeltzalean, eta Eusko Politikan, goien-goieneko mailletako gizonak dituzu. Erderaz mintzatu ziran eta erderaz emango dizkizut aien iritziak. (Gaur zoritxarrez askotan gertatzen dan bezela, gure artean zeuden batzuek euskera-rik ez zekitelako, erderaz ari bait giñan itzegiten).

“¡Mira que teniendo como teníamos un Euskera Central que todos entendíamos, nos hayan inventado un dialecto que ninguno entendemos. ¡Yo mismo, tendría que ponerme a estudiarlo para poder entenderlo!!

“¡Oye —esan nion nik—, teníamos un Euskera central que todos entendíamos y... ¡que todo el mundo había aceptado aquí! ¡Y mira que es difícil que los vascos nos pongamos de acuerdo para algo!”

Bilbo'n geunden, eta billera artakoak ziran Bizkai'ko abertzale garrantzitsu asko. Billerakoak ziran “Deia” izparringiaren buru batzuek ere (2). Ez dakit zegaitik, izparringi onek erabilli oi duan euskerari buruz mintzatzan asi giñan, eta au esan nion nik “Deia”ren buruzagi aietako bateri:

“Zuek, “el batua”rik ulertzen ez duten bizkaitarrentzat eta H'rik ikusi ere nai ez duan jendearentzat “el batua”z idatzita H'z betetako izparringi bat agertzen duzute. Zuen euskera ori ez du iñork ere irakurtzen. Zubikarai bakarrik irakurtzen dute “Deia”ren erosle euskaldunek. Zubikarai! Euskeraz —ta zeñen ederki gaiñera!—, eta H'rik gabe, idazten dualako. Euskalerrri osoko Euskaldunek, —ia danak!—, H bat ikustea naikoa dute, H'z zikindua datorren idazki ua ez irakurtzeko.”

(2) Gauza arrigarria benetan “Deia”n gertatzen dana. “Deia”ren irakurleak eta “Deia”ren nagusiak, akziodunak, “el batua”ren etsaiak eta Erri-Euskeraren aldekoak dira. Joan dan udan 1980'ean, izan zuten “Deia”ren nagusi auek Bilbo'n Akziodun guztien billera. “El batua”ren aurka mintzatu ziran billera orokor artan danak, bat ez izan ezik, eta “el batua”ren aurka agertu ziran an akziodun guztiak. Ala ta guztiz, “el batua” darabilki orain ere bereiziki “Deia”k, eta h'z beteak ikusiko dituzu beti bere orriak. Ta ara or mirari mardula. Nork agintzen du “Deia”n? Akziodunek ez badute agintzen, nork agintzen du an? “Deia” Españi'ko legeak “Sociedad Anónima” deitzen dien Alkarte oietako bat da. “Sociedad Anónima” batean akziodunek ez agintzea gerta ditekenez gauza al da? Nork agintzen du “Deia”n?

Nere izketa orri eskerrak jakin aal izan nuan beste abertzale euskaldun ospetsu baten iritzia:

“—Yo al menos, no —esan zuan onek—. Yo no leo lo que venga con haches; porque no lo entiendo”. “Ez dut H'z datorrenik irakurtzen. Eta ez, ain zuzen, gorrotoak bultzatzen naulako; ulertzen ez dedalako baizik”. “Porque no lo entiendo” bir-esan zuan gazte-leraz.

Bilbo'ko Billera artara, Euskerazaintzaren izenean joan nintzan ni. Eta nerekin zeuden, —Euskerazaintzaren izenean auek ere—, Zubiri'tar Iñaki eta Bilbao'tar Jon Erraimun.

Irugarren iritzia Gazteizen jaso nuan. Ara zer esan zigun irugarren euskaldun jator onek: “el batua”ren zailtasunaz ari giñala.

—Nik beintzat ezin ulertu ditut nere umeen ikastola-testoak. Gaizki egiñak eta gaizki idatziak daudela oartzeko aña ba-naiz, baña ulertu..., ez ditut ulertzen”.

Jaun onekin ere Euskerazaintzaren izenean aritu nintzan mintzatzen. Nerekin zeuden beste iru euskera-zain ospetsu: Zatarain'dar Anburtzi, Yurramendi'tar Felipe eta Oñatibia'tar Manu. 1980'aren negua zan. (Len aipatu dedan Bilbo'ko billera berriz, urte orren udaberrikoa da, eta orain aipatzera noakizuna, 1981'ren Urtarrillekoa).

Gazteiz'en, Euskerazaintzaren ordezkari lez berri-ro, iru gizon (Zatarain'dar Anbroxio, Oñatibia'tar Manu

eta ni) joan giñan gure bi politikari ospetsuenik ospetsuenetakoei itzegitera.

“—Nunca debimos dejar el Gipuzkera Osotua”, esan zigun bi aietan goikoenak, eta gero biak batera:

“—El batua de “Deia” no se entiende. El batua de “Egin” se entiende pero no es euskera” (3).

Barkatu eidazu irakurle, baña ez dizkizut gure politikari oien izenak azalduko; ez bait dut ortarako aien baimenarik. Nere lagunen izenak, ordea, agertu dizkizut. Jakintsuak dira lagun auek, euskaldunak, abertzaleak, benetako gizasemeak. Bitez esan dedanaren egiztatzaille! (4).

—“Deia”ren euskera ulertu ezin ditekeen izkera da!”!

Gauza miresgarria “Deia”n gertatzen dana. Baña ba-da oraindik gauza miresgarriagorik Euskalerrri miresgarri ontan. Euskerak gaur duan maixurik aundi-enak Lekuona'tar Imanol zarrak Euskerarik ez ulertzea. Ara ba: Lekuona'k ulertzen ez duan Euskera omen da “el batua” berri au. Entzun zer esan zigun berak Manu Oñatibia'tarrari eta neri:

(3) Auxe ere, esan zigun goien mailletako politikari orrek ikastolei buruz, nik ikastolak aipatu nizkion bezain laster. Auxe: “Ese es-tamento —ikastolena, alegia—, está podrido. Ustelduta dago”. Ba'da noski zerbait esatea. Leenago onako auxe esan zuan Barandiaran'dar Joxemiel'ek “La Voz de España”n: “Apenas hay una ikastola que no sea atea”.

(4) Beste zerbait ere esan nien nik billera artan “Deia”ko Jaun aiei: Jeltzaleek emandako diruarekin jeltzale ez dan izparringi egin dutela “Deia”.

“Nik ez dut izkera ori ulertzen, edota, beintzat, neke aundiak artuaz, eta gauza bera bi edo iru aldiz irakurriaz ibilli bear izaten det zerbait ulertu aal izateko. Ta ni ez nago, nere Euskera nere aditzeko, Ejito'ko jeroglifik-idaztiak aztertzen ari banintz bezela alperrikako nekeetan ibiltzekotan!”.

Gaur ez da izango —eta ez zan len ere agian izango— Euskera Lekuona zarrak bezain ongi ezagutu duan gizon askorik. Merezi al du Euskeraren izena arek ulertzen ez duan izkera batek?

“Ea —esan zigun gero Lekuona'k bere solas lagunoi—, ea gaurko egunkari onek dakarren euskerazko idaz-lan au bi aldiz bakarrik irakurrita ulertzen dezuten!”

Bi aldiz —eta astiro gañera!— irakurri bear izan nuan nik, Manu'k Oiartzun'dik berebilla zekarren artean, bi aldiz irakurri nik, eta alkarri lagundu bear izan genion biok eksejesizko lan gogorra egiñaz, izparringi artan —“Deia”n— zetorrena ulertu-edo aal izateko. Uste dugu beintzat azkenean ulertu genduala!

Arrazoi du Labayen'ek Arendui frantziskotarrari jarraituz “el batua”k ezertarako balio ez duala dionean: “no sirve para legos ni para entendidos”.

Ikusi zer dion Onaindia'tar Xanti'k “el batua”ren ulertezintasun oni buruz:

“Erriak ez digu euskeraz irakurri gura; ez du ulertzen; iguñia artu dio, zapuzturik utzi du. Berak

ulertzen duen izkeran, gañera, ez diogu pitzik ere eskeintzen (5)”.

“Arendui” berarenak dira berriz esakizun auek: “Erri xeak ezin irentsi du sarritan eskeñi oi zaion Euskera-naiko naaspilla ori. Eta oso ondo egiten du ez irakurriaz, bestela botaka egiteko zorian jarriko litzaketa.

“Erri xeearen ondoan jarri itzazu beste ainbat persona eskolatu. Geure inguruan ezagutzen ditugu danok, eta ez bat edo bi: asko. Neurri-gabeko Euskera batu txar ori ikusi orduko diote: “Utik, ez da neretzat egiten”...leenago zakurraren ipurdira bidaltzen ez ba'zaituzte (6)”.

“Por el camino emprendido —dio berriz Pelay Orozco'k—, es totalmente imposible llegar a la unificación o batasuna, la cual no debe venir de la mano del totalitarismo, sino de la buena voluntad y del buen entendimiento general.

“Se apartan del camino de la sencillez, para apoyar un movimiento historicista (al que le dan una carga emocional convirtiéndolo en una especie de cruzada) y en el fondo es postura de signo reaccionario, propia de viejos y apegada al pasado.

“La pretensión de convertirlo en idioma único es de lo más disparatado. Es como si para resolver las

(5) Oñatibia'tar Dunixi'ri egindako eskutitza (20-IX-1980).

(6) “Arendui”. “Arantzazu” 1978'ko Uztail-Garagarrilla.

diferencias entre la lengua española y las particularidades de Sudamérica se optara por la lengua de los sefarditas (7)".

"Gaur eguneko zenbait idazleren lanak lau edo bost aldiz irakurri bear dituzu. Zer esan nai lukean gutxi gorabera antz ematen ba'diozu, gaitz erdi. Nork artzen du ordea ainbeste pazientzi?"

"Basarri" bertsolarien itzak dira azkeneko auek. Ez ote daki "Basarri"k euskeraz? (8).

(7) Pelay Orozco.

(8) "Basarri" ("El Diario Vasco", 4-IV-80.)

## EUSKALTZAINDIA ERRUDUN

Guk beintzat errudun dala uste dugu. Baña Erri Euskaldunak bakarrik eman dezaioke azkeneko EPAI-ITZA, Euskeraren arazoetan Erria bait da epaile bakarra.

Euskaltzaindiaren izen aundiak eman dio, orain artean, "el batua"ri babes. Ez dio luzaroan emango, Euskaltzaindi berari ez bait dio orain artean izan duan izen onak luzaroan iraungo.

Agian orregaitik: jakintzaren aldetik zetorkion ospea galdua duala oartzen dalako, dabil Euskaltzaindia politikaren aldetik etorri lezaiokean indarraren billa. Politikazko indarraren billa ibilli bait da, bere burua Eusko Jaurlearitzaren izkuntz-aolkulari bakarra lez Estatutoaren Araudian sartu nai izan duanean (1).

Euskaldunok ondo dakigu Euskaltzaindi au ez dala lengo Euskaltzaindi ua.

Erakunde bikaña izan zan guda-aurreko Euskaltzaindia: Azkue, Broussain, Kanpion, Eleizalde, Altube eta beste ainbat euskaldun jakintsuen Euskaltzaindia; Jakintza mardulezko Erakundea, Euzkadi osoan, eta baita Euskadi'tik at ere, itzal aundiko Bazkuna, Euskaltzale danen eta Euskalerra osoaren maitasuna eta begirunea bereganatu zituana.

(1) Oarra urrengo orrialdean.

Eta gaurko oni ere — lengo Euskaltzaindi aren izena daramakilako—, iristen zaio oraindik, gaurko oni, lengoaren ospea. Oraindik ere jende ezjakiñek eta batez ere erdeldunek, eraspen aundiarekin agoskatzen dute Euskaltzaindiaren izena: “¡La REAL Academia!”.

Bereiziki aberatsen eta “eskubitarren” artean ematen dio “Erregearen Akademi” izate orrek duintasun aundia Euskaltzaindiari. “Es la REAL Academia” esango dizute “eskubiko” españa-zaleek.

Abertzaleek berriz, abertzale sabindarrek, gaurko Euskaltzaindi au lengoa bera dala uste dute oraindik,

(1) Euskaltzaindiak politikazko indarra bereganatu nai izan du. Ortarako bere burua Eusko Jaurlaritzaren Aolkulari bakarra egin naiean ibilli da: “Aolkulari “bakar” eta “ofiziala”. “La institución consultiva oficial” esaten zuan “Estatutoaren” lenengo idazketak.

“Esa idea de hacer a Euskaltzaindia “la Entidad consultora oficial en lo referente a la lengua” fue presentada por Letamendia, entonces de Euskadiko Ezkerra, en la reunión de parlamentarios vascos —esan zidan parlamentari auetako batek beste eusko-parlamentari batzuen aurrean—. Y Letamendia, que ordinariamente apenas hablaba en nuestras reuniones, defendió esa su propuesta, con desusada vehemencia; como si estuviera defendiendo la pensión de su madre. Nosotros votamos en contra, porque no veíamos la razón de que una entidad como Euskaltzaindia figurara en un texto legal como el Estatuto. Pero como los socialistas votaron con Letamendia, y UCD se abstuvo, la propuesta salió adelante por un voto de ventaja”.

Gero lortu aal izan genduan Estatuto-ko azken-idazkeratik “la” artikuloa kentzea. Es zan asko, baña zerbait zan. Asarretu zan ordea Euskaltzaindia, eta oster, artikulua “la” ua bir-idatzi-arazi naiean asi zan. Ona zer dion gai orri buruz Labayen'ek: “Es muy reprobable la actitud de Euskaltzaindia intentando ejercitar un equivocado monopolio bajo capa de “unificación” a la que todos aspiramos. Pero sus métodos junto a las inútiles reformas ortográficas y lexicales que está implantando no hacen sino originar protestas y crear hondas divisiones entre los euskeltzales” (“Diario Vasco”, 3-VIII-79).

Azkue'ren eta Kanpion'en Euskaltzaindia, eta ezin ulertu dute “el batua” mordollo onen alde nola egon ditekean.

Ez da denbora asko beste bi euskaltzale eta ni, politikari abertzale batzuekin izketan ari giñala; erde-raz; politikari aietako batek, euskeraz oso ondo ez zekialako. Euskaltzaindia aipatu zuten; eta onela erantzun zien Euskaltzaindikoa dan bi euskaltzaleetako batek:

—“¿Euskaltzaindia dijeron Uds.? ¿Euskaltzaindia? ¡No la conocen como yo! Si vieran Uds. cómo es Euskaltzaindia por dentro y cómo funciona... Si vieran Uds. como yo lo estoy viendo hace años, con qué ligereza y con qué irresponsabilidad dan allí por buena cualquier propuesta...”. Oroi Lekuona'k esan diguna: “Las reuniones de la Academia me parecieron tan infantiles que me aburrí y no acudí más” (2).

Beste bein, Euskerazaintza jaio zan artan, Euskaltzain bateri Euskerazain izan zitezkean Naparroa'ko idazle batzuen galdea egin nion nik. Iru izen aipatu zizkidan.

—Oiek, Euskerazain Osoak Euskerazaintzan izateko ez dute balio, eta Euskerazain Lankide ba-dira, esan nion nik:

—“Akademi ortan akademiko izateko ez dutela oik balio? Zertarako balio dute orduan bestekoak?”, eran-

(2) “Diario Vasco”, 17-IX-76.

tzun zidan.

Leenago berriz, beste Euskaltzain Oso bateri, Euskaltzaindiaren billeretara ez jotearekin gaizki egiten dutela berak eta bere adiskideek, esan nion (Euskaltzain au Arantzazu'ko Billera ezker, Euskaltzaindiari uko egin diotenetakoa bait da).

—“Arâ joan? Zertarako? Gizona!, zuk ez dakizu oiek zer diran!”, eman zidan erantzun.

Ez. Ez dio luzaroan iraungo Euskaltzaindiari gaur arte iraun dion izen onak, gaurko Euskaltzaindi au ez bait da lengo Euskaltzaindi ua.

Euskerazaintza da gaur lengo Euskaltzaindi ua. Euskaltzaindi zarra, 1918'an jaio, eta 1968'an il zan Arantzazu'n. “El batua” erditzerakoan erditze miñez il zan. Eta, amar urte geroago, “Euskerazaintza”ren izenarekin Tolosa'n berbiztu zitzaigun “Euskerazaleen” eta “Kardaberaz Bazkuna”ren erraiñetatik bir-sortua. Euskerazaintza'gan bizi da gaur lengo Euskaltzaindi ospetsu aren izpiritu guzia.

Euskaltzaindiak berak eman digu bere gaitunasunik ezaren azalpenik aundiena. Ezagutzen dituzu noski Estatutoaren eta Españi'ko Oñarri-legearen itzulpenak? Lotsagarri gelditu da Euskaltzaindia itzulpen oiek egitean, eta naiko par egin du jendeak itzulpen oien Euskera ikustean, Euskaltzaindiaren lepotik.

—“¿Esas son traducciones? Quedarán como hitos de estupidez —esan omen zion Euskaltzain bateri

Eusko-politikako gizonik bikaiñenetako batek—. Ez dakit esaldi ori egiaz arek esana izan dan edo ez; bañan ondo benetan egokiak dira esaldi orren itzak: “hitos de estupidez”.

Forua'n Frantziskotarren etxean bildu zuan bereala Euskaltzaindia Aita Villasante'k, eta an, geiago euskerara itzulpenik ez egitea erabaki zuan Euskaltzaindiak, itzulpen egoki bat egiteko gizonik bere altzoan ez dualako.

Au al da lengo Euskaltzaindia? Azkue'ren eta Kanpion'en Euskaltzaindia? Ez noski. Lengo Euskaltzaindi ua gaurko Euskerazaintza bait da.

Orregaitik, bereala agertu zan, bikain, egoki, txukun, Euskerazaintzak egiña, Estatutoaren itzulpena. Ta ua, bai!, atsegin aundiz artu zuten ua euskaldunek nun nai.

Irakurri itzezu zuk, irakurle, Euskaltzaindiaren bi itzulpen aiek. Eta irakurri ezazu gero Euskerazaintzak egiña. Zuk zerorrek epaitu aal izango duzu nor dan gaur Euskeraren egiazko Akademia.

Berriz ere eskatu zitzaion, geroago, Euskaltzaindiari beste itzulpen bat, azkeneko auteskundeetarako.

—Hemos decidido no hacer traducciones —erantzun zuan Euskaltzaindiak—. Nosotros sólo damos normas sobre cómo hay que escribir”. Baña egia esatekotan, “No somos capaces de hacer una traducción decente”, erantzun bear zuan Euskaltzaindiak; eta lotsa pixka bat ba'lu beste zerbait au ere esan bear

zuan: "Como no somos capaces de escribir una traducción decente al euskera, no volveremos a dar más normas sobre cómo hay que escribir (3)".

Ori, irakurle, akademi bat al da?

Akademia orrela ba-dabil, ez dira batere arritze-koak "el batua" -zaleak Euskera gaixoarekin egin dituzten eta egunero egiten dituzten izugarrikeriak!

"—Gure identitate nazionalaren kontzientzi klaroa" idazten zuan lasaiki 1976'ko Iraillaren 30'ean Haranburu Altuna'k "Berriak" deritzan asterokoan (3 zenbakia, 30 orrialdean).

"Euskal literatura profanoaren karakteristika jenerala den preparazio literario falta", zion berriz batere lotsarik gabe Sarasola'tar Ibon'ek bere Euskal Literaturaren Historián. Eta baita beste pitxikeri au ere:

"Kultura burges errepresibo utilitario eta konsumista".

(3) Baña bai zera! "El batua"n ez eze Bizkaiera'n eta Gipuzkera'n ere "el batua"ko idazkera bera sartu nai du Euskaltzaindiak. Bergarako Biltzarrean (1978) aipatu omen zan puntu ori euskaltzainek berak bakarrik egiten zituzten billeretan. "El presidente (Villasante'k alegia) dijo que era partidario del cultivo de los dialectos, pero al mismo tiempo añadió un estrambote que estropea un poco ese panorama: "Pero en la ortografía unificada". Y sin embargo los dialectos se han escrito siempre en su forma tradicional", dio Irigaray Euskaltzain osoak ("La Voz de España", 14-X-78). Ajola zaio Euskaltzaindiari Irigaray'ek aipatzen duan "siempre" orregatik! Eta "estrambote"ak berriz, majiña bat "estrambote" esan du eta idatzi du Villasante'k. Geiegi "Akademi" izena duan lagunarte bateko lendakari kixaz izateko!

Sarasola'ren liburu ori, irakurle, Euskaltzaindiak saritua izan da!!

"Así se llegó a premiar obras que como una reciente "Euskal Literaturaren Historia" son un verdadero ludibrio crítico e idiomático. Se olvida que la misión de toda Academia y no tan sólo la de la Española, es la del lema: "Limpia, fija y da esplendor", Labayen'ek esango dizu (4); ta arrazoi du. Euskaltzaindiak garbitu bearrean zikindu egin digu Euskera, sendotu bearrean, auldu, argitu bearrean illundu.

Irakurri dituzun oiek bezelako "edertasun" asko aurkeztu genezake, baña ez dugu atal au geiegi luzatu nai. Gañera, zuk zerorrek ere, aneika ezagutuko bait dituzu, irakurle, orrelako txepelkeriak "el batua"z idatzitako zerbait iñoiz eskuetan euki ba'duzu. Ala ere, miñ ematen digu, zure atsegiñerako, onako lerro lilluragarri auek onera ekarri gabe aurrera jarraitzeak.

KAS'eko emakumeak mintzatuko zaizkitzu. KAS, Euzkadi'ko iraultzalari ezkertiar-ekertiarren biltokia duzu, "el batua"ren sortzailleen kabi, beraz, eta laberik egokiena "el batua"zko opillik ederrenak egosteko. Entzun eiezu KAS'eko emeei. Ara zer dioten, euskeraz gure emakume laztan oiek, Andrazkoen Alkartasunari buruz:

"Hemen biltzen geranon elburua au da: sexo, nazio, gizarte maila aldekoak direlata burrukatzea abia

(4) "Sasi-Batasuna", 20 or.

puntu bezala harturik, eta beste kanpoko herrialdetako adibidea ikusita gure historiaren arabera, behar honen premia erakusten digute.”

Ulertu al dezu zerbait?

Ara beste ale au, langilleek askatasuna lortzea eta emakumeek askatasuna lortzea, gauza berdiñak ez dirala adieraziz; (idatzi beretik artua da):

“Esperientzi askotan langileriak boterea bereganatu duenean patriarkal aginpidetzari gizarte egituretan eten gabe eutsi diena, sexoa dala medio lanaren banaketan erreflejaturik, ekonomiko eta politiko organu eta postu zuzentzailletatik baztertuaz, emakumearen interesetatik kanpo ezarriz, haur jaiotze kontrola urrenez urren hartutako neurrietan (hazkunde tasa demografikoa gehitzea, komenigarri danean, hurregozte legezatu edo legeaurkakoa da eta antisortze metodoak ere adibidez), eta aspirakuntza edo askapenaren sexuarekiko politikan, familiarekiko erakundeen indartzea edo ahultzea komeni danean.”

Zer? Ba-zuan edo ez zuan bere epaiketan ARENDUI'k arrazoirik?

Ba dakit zer erantzungo duten euskaltzaiñek: Euskaltzaindiak ez dituala geiegikeri oiek onartzen, eta “el batua”zale askok ez diela Euskaltzaindiaren esanei jaramonik egiten.

Ez dute arrazoirik:

— Euskaltzaindikoak dira Kintana, San Martin, Lizundia, Haranburu Altuna eta beste, auen antzeko, asko. Ta, zer euskera darabilkite oiek?

—Euskaltzaindiarenak dira bi aipatutako Itzulpen aiek, Konstituzioarena eta Estatutoarena, “los dos hitos de estupidez”! Bai al du Euskaltzaindiak iñoren “geiegikeriak” **gaitzesten** asteko eskubiderik?

Euskaltzaindiak berak iriki die atea geiegikeri guztiei, Arantzazu'ko billeran erabilli zuan jokaeraren erruz eta baita ondorean erabilli duanaren erruz ere. Arantzazu'n erabilli zuan izkerak zer esan nai duan oraindik iñork ez daki ziur-ziur. Orrelako argitasun-faltarekin dabillen Erakunde bateri Akademi esatea zillegi al da?

Arantzazu-ondorean ere jokaera txarra darabilki Euskaltzaindiak. Labayen' 'ek berak adierazten digu Euskaltzaindiaren lendakari ber-bera ere erderakada enasei ongi-etorria ematen ari dala. “Y si todo un Presidente de Euskaltzaindia propugna sin previa discriminación la adopción abrupta de ese sistema, no nos extrañan los abusos que bajo su amparo se cometen” (5).

“Hace unos años —dio Pelay Orozko'k gutxi gora bera—, se había llegado a escribir de una manera prácticamente unificada y todos lo entendíamos; pero,

(5) “Sasi-Batasuna”, 15-16 or.



de pronto, vinieron diversas reuniones y en 1968 se adoptó en Aránzazu la decisión que nos iba a traer la Unificación o Batasuna. El resultado ha sido que nos han partido el idioma en mil pedazos y hemos retrocedido en la unificación.

“Nada se puede esperar a base de un Euskera ortopédico, como el que se está intentando promocionar, sino con el lenguaje vivo, con el lenguaje del pueblo. El panorama cultural de nuestro País es cada vez más sombrío e inquietante, divididos en un sin fin de grupos con antagonismos irreconciliables. El espectáculo que nos ofrecen las publicaciones euskéricas es caótico y absolutamente demencial. Se escribe en un idioma artificial, anacrónico, prácticamente ininteligible, y que produce al lector una sensación de angustia próxima a la lipotimia” (6).

Euskaltzaindi au Arantzazu'n, lengo Euskaltzaindiaren aurka jeiki zan; lengo Euskaltzaindi arek emandako arauen aurka jokatu zuan “el batua”zaleen ibillera bere-egin zuanean. Euskaltzaindi onek bai al du orain bere aurka jeikitzen diranak epaitzerik?

Ez zaigu garbia iduritzen orduan Euskaltzaindiak ibilli zuan jokaera; ez zaigu garbia iduritzen gerontzean ibilli duana.

— Ez zaigu garbia iduritzen Arantzazu'ko billeran ibilli zuana:

(6) Pelay Orozko; “La encrucijada”. Irakurri ezazu zuk irakurle liburu ori, batez ere 35 eta 36'garren orriak.

Arantzazu'n “el batua”ri bizia eman zion billera uaez zan Euskaltzaindiaren Batzar Orokorra. Batzorde baten billera zan soilki, Euskaltzaindiak “el batua”zaleen eskariak aztertzeko osaturiko bazkun baten billera. Billera ua, laisterka, iraduz, gaietan patxadaz gelditzeke, oso era baldarrean egiña izan zan, an itzegin nai zuten guztiei entzun gabe, Akademi batek erabilli bear dituan era guztien aurka. Orrela eman zitzaion “el batua”ri legezko (?) sortzea. “No todos los congresistas —idatzi du Labayen'ek— pudieron exponer allí sus opiniones y eso le sucedió al Rvdo. P. Dámaso Intza, quien a pesar de ser el más veterano de los académicos de número de Euskaltzaindia, no le dieron tiempo para leer su informe. Ha tenido que publicarlo posteriormente en la revista “Karmel”. Magistral estudio...! Respaldan esta actitud —Aita Intza'rena— los ilustres académicos de número José Miguel de Barandiarán, Manuel de Lekuona, Zabala y los no menos prestigiosos, también miembros de número de Euskaltzaindia, señores Arrue, Lojendio e Iraizoz, aunque guarden silencio por su laudable deseo de no enconar la polémica (7).

Parregarria da, an, Arantzazu'n Euskaltzaiñek izan zuten alkar-izketa. Eroen jolasa dirudi. Irakurri ezazu zerorrek; 1968'ko “Euskera” aldizkarian arkituko duzu 237'garren orritik 248'garrena arte. Arren, irakurri ezazu. Arriturik geldituko zera, par egin, negar egin edo itz borobil mardul bat bota..., zer egin ez dakizula.

(7) “Sasi-Batasuna”, 15-16 or eta 20'gn or.

Legezko sortzea esan det? Ez. An ez zan ezer legezkorik egin. Batzordearen billera arrek, ez bait zuan, ez ezer onesteko, ez ezer gaitzesteko eskubiderik. Ez zion ortarako Euskaltzaindiak almenik eman. Ori: legezko gaitzespen edo onespén ori, Euskaltzaindi osoak gero egin bear zuan gauza zan. Berak-berberak egiteko, bere eskuetan gorde zuan Euskaltzaindiak almen ori! Ta ortarako, bereala Oñati'n Batzar Orokor bat osatzekoa zan. An izanen zan "el batua" onetsia edo gaitzetsia.

Batzar Orokor arek bere epai-itza eman arte "el batua" ez zan legezkoa. Bañan Batzar Orokor ua ez zan beññere bildu! Ez da oraindik ere bildu! "El batua" k ez du, beraz, iñoiz ere Euskaltzaindiaren legezko-baietzik izan!

"En la mencionada asamblea —Labayen beraren itzak dira—, tras **discusiones confusas y atropelladas** y en medio del **acaloramiento** —nik azpimarratua— se redactó por el Comité directivo una nota recomendando el uso de la letra "hache". Nota que **no se sometió a votación** (nik azpimarratua), porque estaba prevista una sesión de clausura del Congreso en fecha inmediata. O sea que el Congreso no tomó acuerdo definitivo alguno" (8). Beraz Arantzazu'ko aolku aiek danak, batere baliorik gabekoak dira. Orixe jakiñ-arazten digu Labayen'ek ere: "Dicha asamblea quedó inconclusa sin que tuviese lugar la continuación que

(8) Ibidm., 5 or.

estaba anunciada y carente de ese refrendo, **tiene nula validez**" (9).

Baña areago dijoa oraindik Euskaltzaindiaren garbitasunik eza:

Arantzazu'ko Billera artan ez zan ezer "betirako" onartu. Soilki, igaro-bide bat eman zitzaien arau berriei; amar urteko igaro-bidea, idazleek eta erriak onartzen zituan edo ez, ikusi aal izateko. Ez zan deus ere betirako egin; amar urteko saio baterako baizik: "Ad experimentum!". Majiña bat aldiz entzun diogu orixe, orduan Euskaltzaindiko Lendakari zan Lekuona zarrari!

Oraingo Euskaltzaindi onek, ordea, "betirako" artuak bezela aurkeztu izan ditu beti, Arantzazu'ko erabaki aiek; eta orrela ari izan da amar urte auetan iraduz "el batua" Euskalerrian indarka sartzen.

Ez da ori Akademi zintzo baten ibillera. Ez da joku garbial!

Geiago oraindik:

Arantzazu'n ez zan erabakirik artu. Ez zuan eskubiderik ere, ortarako, Arantzazu'ko Batzorde arek. Ez zezakean erabakirik artu, eta ez zuan artu. Ez da aolkurik ere; ez zuan aolkurik eman. Soilki-soilki auxe esan zuan: "Begi onez ikusiko zala H'a erabiltzea". Ta ori, aolku ere ez dan on-ikuste ori, egiazko agindu

(9) Ibidm. 10 or. Nik azpimarratua.

bezela aurkeztu du eta erabili du Euskaltzaindiak amar urte auetan "el batua"ren alde <sup>(10)</sup>. Ez da garbi jokatzeara!

Ba-da oraindik beste zerbait, aipatu dugun guztia baiño mingarriagoa.

Arantzazu'n H'ari bakarrik emandako baimena "el batua" osoari emendako onetsia bezela artu du Euskaltzaindiak, eta ala ibilli zaigu, indarkeri bizian "el batua" babesten, eta zabaltzen, eta euskaldun jendeari irentsi-arazten. Ontan ere garbitasun gutxi erakutsi digu Euskaltzaindiak!

H'ari emandako onespina ere, izkerarik illun, naasi ta okerreanean emana izan zan. "Begi onez ikusi!" Ori zer da? Ez beintzat onestea, gutxiago oraindik H'a erabiltzeko aolku ematea. Eta askoz gutxiago H'a

<sup>(10)</sup> Auek dira Euskaltzaindiak Arantzazu'n erabili zituan itzak. 1971' ko "Euskera"ren 100'garren orrian daude: "H-aren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzean hastea. "Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango?" Ez da egia Euskaltzaindiak emen diona, alegia, erabaki ori, "izan diren iritziak entzun ondoan" artua izan zala. Guk ba-dakigu ez zizala iritzi aiek entzun; ez zitzaiea danei mintzatzeko astirik eman. "Bi bokal berdin nahiz ezberdinen" arterako on-ikusiko omen zuan H'a Euskaltzaindiak! Guk emen bir-idatzi ditugun bere bi esaldi oietan 8 "h" daude; 3 bakarrik bokal artean "nahiz", "nahi", "nahi". "Begi onez ikusi, ongi ikusi" bakarrik egingo dituala H-ipintzeak, dio itzez Euskaltzaindiak; itz ustelak!, egitez "ikuste" utsez atsedentzeke, "hatxezale" guztien aurretik ibilli nai bait zuan berak h-ipinketa zoro ortan. Ori esan nai dute aipatu ditugun 8 "H" oiek. Ta orri "erdi-bide" esaten dio Euskaltzaindiak, eta ori "hasteko" bakar-bakarrik omen da! Ori "erdia" ba'da, zeri deitzen ote dio "ertza" Euskaltzaindiak eta zertan eta nola amaitzeko asmoak ote ditu ori "hastea" bakarrik baldin ba'da?

erabiltzeko agintzea. Zerbait baldin ba'da..., "H'a begi onez ikuste" orrek zerbait esan nai ba'du..., Euskaltzaindia H'aren erabilketa —tira ba!— pazientziz jasateko gerturik dagoela adierazi nai duan esakizun makur bat dala dirudi. Eta "gorago jo nai dutenen saioei" buruz diona..., ori zer da? Zer saiaketa dira oiek? H'ari bakarrik dagozkion saiaketak al dira? Zer neurritaraño eraman ditezke? Jakintsuen Akademi bat al da orrelako mintzaera traketsa erabilliaz "el batua"zaleen geiegiakeri danei atea iriki zien Euskaltzaindia? Entzun Euskaltzaindiko Akademilari oso bateri: "Esta ambigüedad es lo más lamentable que puede cometer una Academia; pues lo que tocaba decidir antes de dar esa recomendación era señalar con exactitud dónde poner las "haches" y **no provocar la anarquía** de ponerlas a capricho, como ahora ocurre" <sup>(11)</sup>.

"Espoleados por la aparente hegemonía conseguida por los iniciadores del Congreso de Aránzazu, éstos ("el batua"zaleek), se lanzaron con verdadero desenfreno a la edición de libros, textos antiguos y publicaciones diversas que influyesen en nuestros medios euskerizantes. Pero tan **sectaria** ha sido la labor de selección de autores y tan tendenciosas las traducciones y no menos evidente la mediocridad de las obras originales de su lista editorial que, en general, han merecido la repulsa de sus lectores <sup>(12)</sup>".

<sup>(11)</sup> A. Labayen. "Sasi-Batasuna", 7 eta 15.

<sup>(12)</sup> "Sasi-Batasuna", 15-16 or. Azpimarraketak nik egiñak dira.

Traketsak izan bear zuten nai ta naiez erabaki trakets bat emateko Euskaltzaindiak erabilli zuan izkera traketsaren ondorioak!

Gañera, H'ari eman zitzaion baimena amar urteko saio baterako "ad experimentum" eman zitzaion, eta ez betirako. Ala esan zion beintzat Arantzazu'n Euskaltzaindiak Euskalerrinari. Baña ori esatean iruzur egin zion bere erriari. Euskaltzaindiak ez zituan amar urte oiek saiaketa bat egiteko asmotan artzen, eta ez ditu gero ere saiaketarako asmotan artu.

Mitxelena'tar Koldobika'k agertu zigun argi ta garbi, Bergara'ko Biltzarrean, Euskaltzaindiak ez zituela sekulan amar urte oiek saiaketa-epetzat artu. Ona zer esan zigun Mitxelena'k 1978'aren Iraillean, Bergara'n Euskaltzaindiak bildutako Biltzarrean:

"Biltzar au ez da Betroia saltzeko ez erosteko. Ez da konponketa batean asteko. Gauzak ez daude orain amar urte zeuden tokian. Gauzak asko ibilli dira. Konponketa bat nahi dutenak, hau oso kontutan hartu behar dute: konponketak lehenago eskaini behar ziren, ez horain" ("Deia" 1-IX-1978).

Mitxelena gizon bikaiña dala ez baneki, gezurra esan zuala oiuegingo nuke, Euskaltzaindi berberaren asmoetan Bergara'ko Biltzarra soilki-soilki "betroia erosi edo saltzeko" pentsatua bait zan.

Euskaltzaindiak Arantzazu'n, andik amar urtera Batzar bat egingo zuala agindu zion Euskalerrinari; eta agindutako Batzar ori Arantzazu'n Euskaltzaindiak egiña amar urte oien epean erriak onartu zuan edo ez,

ikusteko bakarrik izango zala, ots Euskaltzaindiak bere betroiarekin jarraitu bear zuan edo betroi ori saldu bear zuan jakiteko! Nola esan zezakean orduan Mitxelena'k Bergara'ko Biltzar ua "betroia saltzeko edo betroia erosteko" ez zala?

"Gauzak ez daude ORAIN DALA AMAR URTE zeuden lekuan", esan zigun Bergara'n Mitxelena'k. Baña amar urte oiek "ad experimentum" ziran! Nola ausartzen da orain Euskaltzaindia Mitxelena'ren agoz, "betroia saldu bear zan edo ez" jakiteko ezarria izan zan epe ori, betroia ez dala saldu bear esateko, arrazoitzat erabiltzera?

Ez dala ori joku garbia! Ain zuzen, Euskaltzaindi beraren aginduz, amar urteko epe orren ondorean "Bergara'ko Biltzarra" zan "Betroiarekin" zer egin bear genduan erabakitzeke garaia. Ta erabaki ori euskaldun guztiok artu bearra zan, Euskeraren arazoak ez bait dira Euskaltzaindiarenak bakarrik, euskaldun guztionak baizik.

(Oartuko ziñan noski, irakurle, Mitxelena'ren esatera ontako "Betroia", "el batua" dala. Xenpelar'en "Betroiarena" zeukan Mitxelena'k buruan irudi ori erabiltzerakoan, eta berak uste baño milla aldiz ego kiagoa gertatu zitzaion irudia; Xenpelar'ek kantatutako "Betroiak" eta Euskaltzaindiaren "el batua" kizugarrikoko antza bait dute alkarrekin zarpaillukerian.)

Ba zuan gañera zerbaitean arrazoi Mitxelena'k. "Gauzak ez daude orain dala amar urte zeuden tokian",

esan zigun. Ez daude, ez. Askoz naasiagoak eta zikiñagoak daude gaur. Eta ori Euskaltzaindiaren erruz.

“Biltzar au ez da Betroia erosteko”. Betroi erosketaren irudi mottel orrekin ona zer adierazi nai izan zigun Mitxelena’k: “El batua egiñik eta osoturik dago. Ez gera batzar ontara ori zalantzan ipintzera etorri. Ez degu izkuntza ori salduko, ezta beste euskerarik onartuko. Ez gera gure “betroi” ori atsegin ez zaiuzuenen iritziak entzutera etorri. “Causa finita est”: itxirik dago erabat auzia”.

Baña, baña, baña, ez deus saltzeko ez deus erosteko ez ba’zan, zertarako zan Bergara’ko Biltzarra? Zertarako txautu zuan an Euskaltzaindiak ainbeste diru, Erriarena zan dirua? Zergaitik txautuarazi zizkigun arã atzipeturik joan giñanoi gure denbora eta gure txanpon urriak?

Ez dala ori joku garbia!

Ala ta guztiz egia zan Mitxelena’k “betroiaren” irudi orren bidez adierazi nai izan ziguna: Bergara’ko Biltzarra, alegia, **soilki-soilki**, “el batua” aldarrikatzeko, sagaratzeko, ta “Legezko Euskera bakar” izendatzeko bildu zuala Euskaltzaindiak.

Bi illabete aurretik KARDABERAZ bazkunaren izenean alkarrizketa au izan nuan Knorr’tar Enrike euskaltzain osoarekin:

—“Bergara’n “el batua” legezko egitera al zoazte?”.

—“Bai”, erantzun zidan leialki.

—“Zer ‘batua’?”.

—“Mitxelena’reñ ‘batua’.”

Ez zijoan Euskaltzaindia Bergara’ra Betroi-Saltzera. Ez zijoan amar urteko esperientzi aren ondoren Erriak “el batua” onartzen zuan edo ez, ikustera, ta erriak esperientzi ua onartzen ez ba zuan, beste Euskera-bide bat artzera. Ez zijoan Betroi-saltzera, ezta Betroi-erostera ere.

Ez dala, au, irakurle!, ez dala joku garbia!

Ala gertutu ere egin zuan Biltzar ua. Argia nai duanak, “esperientzia” ondo irten zaion, edo ez, ziurziur jakin nai duanak, azterketa-gaiak, ugari, aurretik, eta garaiz, bidaltzen dizkie biltzarkide izan bear duten guztiei. Euskaltzaindiak ez zuan orrelakorik egin. Ezer ere jakin gabe iritxi giñan Bergara’ra eta “inprobisaketa” gorrian bat-batera itzegiten ibilli bear izan genduan guk an beti.

Ez zioten Euskaltzainditarra ez zanari itzegiten ere uzten. Itzegiten bai; baña an iñork zerbait “el batua”ren aurka esaten ba’zuan, asarretu egiten ziran aurrena, ta gero, danak jaiki, zerbait ua esateko ausardia izan zuana zapaltzera. An ez zegoan besteen iritziak entzuteko gogorik; an ez zegoan egi-zaletasunik.

Ori Euskeraren zoriona nai duten euskaltzaleen jokaera al da? Eta, beste ororen gaindik, akademi baten jokaera al da ori?

Neronek oarrarazi bear izan nion bateri baiño geiagori Euskaltzaiñak “erri-gizonak” zirala, “euskaldunen ordezkariak”, euskaldunen aurrean lan-egitera eta euskaldunei kontu-ematera beartuak; “plaza-gizonak” zirala. Eta plaza-gizon bateri, lenengo gauza, sekulan ez asarretzea eskatzen zaiola, naiz bere aurka txistu ta abots garratzak entzun. Ori ederki egiten dutela gure plaza-gizonak: ez dutela iñola ere patxadarik eta gizabiderik galtzen. Eta ori, aizkolariek eta arrijasoza-lleek ain dotore egiten duten ori, Akademilari batzuei eskatu bear zaiela; eta aiek aiñ ongi egiten duten ori, aiek bezain ongi, gutxienez, egiten ikastera beartuak daudela auek.

Neronek baitare eskatu nion, egun artan billerak zuzentzen zituan Satrustegi’ri, arren, asarreak eta aburu ezberdiñeko jendea zapaldunai oro lagata patxarra-modu bat artzeko.

“Bai —erantzun zidan Satrustegi’k—. Esango diet ori nere lagunei.”

Izan zan aldaketa. Ez ziran aurrerantzean asarretu. Baiñan len bezala jarraitu zuten, aurka mintzatzen zana ixillarazten. Bildur ziran nunbait norbaitek beren “el batua” lotsagarri utziko ote zuan!

Iñoiz ere ez zuten esan an azaldutako iritzi bat, gero aztertzeko, jasoko zutenik. Ezta aurkeztu zitzaizkien txostenak kontuan artuko zituztenik ere. Ez ziran Betroririk erostera etorri. Ajola gutxi Euskaltzaindiari

euskaldunen aburuengaitik! Baiñan, joku garbia al da ori?

“Konponketak lehenago eskaini behar ziran, ez orain” esan zuan Mitxelena’k, eta ez zuan egia esan, konponketak, ain zuzen, esperientziaren ondorean egiten bait dira; esperientziak erakutsi duana ikusita! Zertarako dira bestela esperientziak? Zertarako ipiñi zituan amar urte auek “ad experimentum” Euskaltzaindiak Arantzazu’n?

Ez; orrela dabillen erakunde batek ez du Akademi izenik merezi.

Konponketak lenago eskeiñi bear zirala! Joku garbiaren falta berriz ere! Konponketak eskeiñi dira, ugari gañera amar urte auetan; baita gero ere. Majiña batek idatzi dute eta majiña bat idatzi da gai oni buruz amar urte auen epean.

Mokoroa’tar Justo Mari’reñ idatzi labur, sakon, jakintsuak datorzkit gogora. Eta Lekuona’tar Imanol’en idaz-lanak, Lekuona’k ere idatzi bait du; eta zenbat eta zenbat geiagok! Danak aipatzerik ez dedalako, bitez bi gizon oiek esaten ari naizenaren lekuko, gutxik ezagutuko bait dute —iñork ezagutzen ba’du— gaur gure izkuntza bi oiek bezain ederki.

Aipa dezadan “Latxaga” ere, izkun-ikasketak Sorbona’n eta Ipar-Amerika’n amaitu ditualarik, gure izkuntzalarietan aundienetako bat izango bait da bera.

Euskaltzaindiak “konponketarako” eskaririk ez du-

ala izan sinistaarazi nai ote zigun Mitxelena'k? Berak, ordea, Euskaltzaindikoa dalako, jakin bear zuan nai ta naiez, ori egia ez dala; orrelako eskariak eta eskeintzak maiz eta ugari izan dituala Euskaltzaindiak.

Ona Euskaltzaindiak jasotako eskari oien artean aipagarrienak:

— 1976'garren urtean, Azaroaren 2'an jaso zuan txosten bat ogeita iru idazle bikaiñek izenpetua. Ba ziran idazle aien artean Euskaltzaindikoak ere. Alper-alperrik ibilli ziran, ez bait zien Euskaltzaindiak batere jaramonik egin.

— 1978; Ekaiñak 22; Euskaltzaindiari beste eskari bat: "Euskerazaleak" Bazkunaren izenean, eun idazlek (99'k, egia zeatz esateko) izenpetua. Idazle oien zerrendan, Zubiri'tar Iñaki zan bizkaitarren lenengo izenpetzaille; Arzalluz'tar Joseba Mirena, arabatarrena. Giputxen aitzindari berriz, Labayen'dar Andoni. Alperrik oraingoan ere, "Euskerazaleak" Bazkunari eta onen izenean eskaria izenpetzen zuten eun idazle agurgarri aiei auntzaren gauerdiko eztulari baiño jaramon gutxiago egin bait zien Euskaltzaindiak.

Arrazoi aundiz asarreturik idatzi digu eun idazle aietako batek; Onaindia'tar Xanti Abak:

"1968'an ospatu zan Arantzazu'n Euskal-Batasun Batzarra. Batzar amiltsua nunbait. Andik amar urtera, 1978'an, Bergara'n bildu zan Euskaltzaindia, egiña zuen lana aztertzeke batez ere.

"Txostenak aurkeztu ziran (billera ontara), idazkiak eta aolkuak. Batzuei askatasun osoa eman zitzaian an, nai zuenaz mintzatu zeitezen, beste batzuei muturrekoa ezarri zitzaian; eskutitz batzuk irakurri ziran, beste batzuk —EUN BAT IDAZLEK IZENPETUA, adibidez—, etziran irakurri" (13). (Urte artako Ekaiñean, eta billera ontarako, bidalia izan zan Euskerazaleen eskari ua aipatzen du emen Onaindia'k.)

— 1978. Urbil zegoala Bergara'ko Biltzarra-ta, iru Euskaltzain Osoek (Irigaray-Iraizoz-Lojendio irukoteak, eta iru auekin beste idazle askok), kezkatu rik, eskari berri bat egin zioten Euskaltzaindiari. Alperrik auek ere. Ez zuten erantzunik izan.

Jokaera au guztia, irakurle, Akademi bateri dago-kion jokaera garbi aratza ai da?

— 1979. Igaroa zan Bergara'ko Biltzarra. Andik sortutako giro zakarrak eraginda, "EN PRO DE UNA ENTENTE ACADEMICA" izeneko eskari bat aurkeztu zitzaion Euskaltzaindiari Iraillean, 28'an. Era paketsuan idatzia. Euskaltzain Osoak diran Barandiaran, Erkiaga, Gorostiaga, Intza, Irigaray, Labayen, Lekuona, eta auekin beste idazle-sail ugari batek izenpetua. Beti bezela, alperrik oraingoan ere. Euskaltzaindiak ez zien erantzun ere egin.

— 1979'ko urte ortan bertan txosten bat aurkeztu zuala, berak izenpetua, diosku Labayen'ek, bañan

(13) Onaindia'tar Xanti'ren eskutitza. 20-IX-80.

alperrik: "este informe no mereció la atención de la Academia, ni siquiera llegó a leerse en sesión pública"

Oiturezkoa du, erantzunik gabe ixilik gelditze ori Euskaltzaindiak. Zerbait idazten ba'diozu, ez dizu beñere ezer artu duanik esango. Ori ote da euskal-gizabidea? Ba-dirudi arrokeriak puztuta dagoala Euskaltzaindia.

"Arranoak ez du eulirik arrapatzen", esan zuan bein batean San Martiñ'ek Euskaltzaindiko idazkari zala, erromatar olerkari baten esana bere-egia: "Aquila non capit muscas". Euli gera Euskaltzaindiarentzat bere apetak onartzera makurtzen ez geran guztiok. Itxuraz, Euskaltzaindiarentzat, Euskalerra osoa eulitegi mardul bat besterik ez da.

Euliak! Euliekin bezela jokatu zuten gurekin Bergara'ko Biltzarrean.

Ikerketa edo enkuesta batean oñarritu nai izan zuan an, Bergara'n, Euskaltzaindiak "el batua" "legezko izkuntza", ots, "legezko Euskera" bakar aldarrikatzea. Ni jeiki nintzan enkuesta arek yakintza-baliorik ("el batua"-zaleen izkeran "balio zientifikorik"), batere ez zuala esateko. Ez zuala batere baliorik!, eta ara zergaitik:

—Enkuesta ua Euskaltzaindiak **bakarrik** eta bere erara egiña zalako. Ikus nola azaltzen duan "Egin"ek nik an esan nuana: "Que quien prepara una encuesta

tiene grandes posibilidades de orientar esa encuesta en el sentido favorable a sus intenciones y que por eso las encuestas realizadas por Euskaltzaindia en relación a este Euskera Batua no ofrecen a los que se oponen a las intenciones de Euskaltzaindia todas las garantías que científicamente serían de desear. Más aún: Que por haberse puesto Euskaltzaindia decididamente a favor de un determinado sistema de Batua ha perdido todo derecho a formular decisiones normativas acerca de este problema, puesto que según doctrina tradicional de derecho, común a todos los juristas de toda época y lugar, nadie puede ser JUEZ y PARTE en un mismo litigio" ("Egin", 10-IX-1978).

—Ez zuala ikerketa arek baliorik!, oker pentsatua eta oker egiña zalako: baliorik gabea zala!, bai ikerketa egillearen aldetik, bai ikertuak izan ziranen aldetik, eta baita ikerketarako aukeratua izan zan gaieran aldetik ere.

"La intervención de Vicente Latiegui motivó fuerte polémica en la que tomaron parte ocho personas" idatzi zuan bigaramonean "Diario Vasco"k (6-IX-1978).

Bai; San Martin aurrena ta Mitxelena azkena, Euskaltzaindiko "bei sagaratu" guztiak altxa zitzaizkidan asarre, ez ordea Euskaltzaindiak egindako enkuesta ua babesteko, ez; ni parregarri uzteko baizik. Baña, bata bestearen atzetik berak izan ziran parregarri gelditu ziranak.



Gero, zeatz-zeatz argitaratu zituan Euskaltzaindiak, berea duan "EUSKERA" aldizkarian, Biltzar artako esamesa guztiak. Soilki nere alkarrizketa ua gelditu zan argitaratu gabe. Zergaitik? Euskaltzaindiak berebiziko euskera zarpailluan idatzi zuanez, "zeren magnetofonean ongi artua izan ez zalako" (14).

Ba ziran an magnetofoi geiago...! Euskaltzaindiari ez ordea konbeni an esan ziranak edestirako jasotzea! Orrela, egia izkutatuaz dabillen adiskide-taldetxo bateri "Akademi" izena bai al dagokio?

Batzar artan, azkeneko egunean aurkeztu nion Euskaltzaindiari, eta idatzita eman, Akademi berri baten bearra. Aurretik, beste gauza batzuen artean, auxe esan nien Euskaltzaindiko Buruzagiei: "Ez dut orain nere aurkezpen onentzat erantzunik eskatzen; askoz gutxiago inkisizioteketa baten antzeko galde-jasarik. Nik gaur irakurriko dizuedan idazki au ez da bereala erantzutekoa, entzutekoa baizik, gogoan artzekoa, gero astiro luzaroan pentsatzekoa; eta geroago, yakintzaren arauak eskatzen duten lez, zugarri erantzuna izatekoa".

Gogoan artzekoa? Erantzutekoa? Bai zera! Euskaltzaindiak ez zigun erantzunik eman. Esan nien nik an, idazki ua, naiz nik idatzia izan, "Kardaberaz" Bazkuna' ren izenean aurkeztua zala, nik ortarako —Bazkun ospetsu onek emanda—, almen osoak ba-nitualako!

(14) "Euskera", 1978, 533 or. "Euskera" onek dakartzian itzak auek dira: "ELKARRIZKETA: kasu ontan ez da ezer ulertzen zeren gaizki grabaturik baitago". Ori, irakurle, euskera al da?

"Como se puede colegir por lo expuesto, Euskaltzaindia se halla ahora abocada a dar respuesta urgente a esta demanda que se le hace en nombre de una entidad tan prestigiosa como "Kardaberaz Bazkuna" que cuenta en sus filas con varios académicos de número y cuya "alma máter" es el mayor euskerólogo con que contamos en estos momentos, D. Manuel Lekuona", idatzi zuan "Diario Vasco" k (9-IX-78). Ajola gutxi Euskaltzaindiari "euli" uste dituanen iritziengaitik! Euskaltzaindiak ez zigun deus ere erantzun. Len "Euskerazalei" bezela orain "Kardaberaztarrei" ez zien jaramonik egin. Gu guztiok "euliak" izaki!

Soilki-soilki auxe egin du Euskaltzaindiak: nik erriko euskeraz idatzita aurkeztu nion idazkia, iñoren baimenik gabe eta batere lotsarik gabe "el batua" ra itzuli, eta orrela "el batua" ra itzulia argitaratu "Euskera" bere aldizkarian (1978; 819 orria).

Akademi batek egin al dezazke orrelako itxuskeriak?

Ikus orain, irakurle, nik Bergara'ko Biltzarrean, azkeneko egunean, Euskaltzaindiari aurkeztu nion idazki ua:

"Batzar ontan entzun duguna entzun ondorean, argi ikusi aal izan dugu Euskaltzaindia lengo bidetik dijoala; Euskaltzaindia, Euskera "Batu" onen alde, au da, jendeak "el batua" esaten dion izkera onen alde jarri dala.

“Jende askok, eta jende asko oien artean Kardaberaz Bazkuneko guztiek —moraliter omnes—, Euskaltzaindiak ori egitean UTSUNE aundi bat utzi digula usteko dute.

“Orain arte Euskaltzaindia, Euskeraren Akademia zan. Orain, “el batua” orren “Zuzendaritza Nagusia” biurtu da. Nolabait esateko, “Batu” bereizi edo “konkretu” orren “Buru batzarra”. Zail eta neketsu izango zaigu gaurgero “batu” bereizi ori atsegin ez zaigunoi Euskaltzaindia Euskera orokorraren Akademitzat onezagutzea.

“Ez dut orain eta emen, errua norena danik esango. Euskaltzaindiarena? Gurea? Ez naiz epaille. Auzikide naizelarik ezin bait nindeke epaille izan. Baña au bera gertatzen zaio Euskaltzaindiari, Euskaltzaindia ere auzi ontan auzikide bait da..

“Bedi beraz, gu guztion epaille, Euskalerra guztia.

“Utsune onen ondorioak mingarriak litezke:

“—Euskera, inglandera eta beste izkuntza asko bezela, Akademirik gabe utzi?

“Beste Akademi bat sortu? “Real Academia de la Lengua Vasca” edo “Erregearen Akademiaren” alboan “Erriaren Akademi” bat eratu?”

Kardaberaztarrek ezezik, bere-egin zuten idazki ori Euskerazaleek danak ere —“moraliter omnes”—. Ez alper gaiztoan, arranoak ez bait die euli landerrei jaramonik egiten! “Euskerazaleak eta “Kardaberaz

Bazkuna” ez eze, amen besoetan Euskera ikasi duten Euskalerriko jende euskaldun guztiak ere, “euli” isekagarri ote dira Euskaltzaindiarentzat?”

Arrokeria ez baiña, “eulirik eiza nai ez duan arrano” orren buru barnean ez ote dago bildurra?; arrazoa falta zaiolaren susmoz, Euskalerraren aurrean aurpegi-emateko bildurra?, parregarri geldituko dalaren kezka? Oroi Euskaltzaindiak egindako itzulpen irri-garriak!!!

Ortan gañera, ba-dugu Euskaltzaindiaren aurka beste salakizun bat: Akademi baten aurka izan ditekian aundiarena: Amar urte auetan “el batua”ri ats ematen ari izan dan bitartean, arrotasunez edo lotsaz edo bildurrez, “urrundu” egin dala; bere iritzikoak ez diran guztiengandik bereizi; euskaldunengandik aldendu.

Euskal Erritik iges eginda, soilki bere gurtzailleez eta jarraitzalleez inguraturik, sasi-alderdi bat, “sekta” bat, biurtu dala.

Sasi-alderdi itxia. Amar urte oietan ez bait du iñoren iritzirik entzun nai izan, ez bait dio iñori laguntzarik eskatu. “Solus sanctus, solus dominus, solus altissimus” bere ustez, bakarrik eta ixillean, azpilanean lez, ari izan da, illunpean gorderik.

“El batua”zaleen sektakeri guzia irentsi du eta bere-egin du Euskaltzaindiak: Baiona’n eta Eibar’en “el batua”ren gurutzada edozein eran aurrera eramateko zinketa bat egiteraño iritxi ziran “gurutzadu” aien sektakeria.

Zin-egite ori, "sekta" guztien lenen ekintza izan oi da, eta naiz izkuntzari buruzko arazoetan ortaraño iristea gauza parregarria izan ("eso parece hasta ridículo")(15), ederki erakusten digu "el batua"zaleak "sekta" bat dirala eta aiekin batera baita Euskaltzaindia ere: "sektaren" altzoan "Sekta".

"Sekta" eta "sekta" itsua, illuna, itxia biurtutako Euskaltzaindi ori, izan al diteke Euskeraren eta euskaldun guztion Akademi? Ez da beintzat Azkuek-eta sortu zuten Akademia. 1968'an, Arantzazu'n ill zan Akademi ua. Oraingo au ez da lengo ua. Ez da "Akademi" ere. "Sekta" eta "Akademi" alkarrekin bateratu ezin diran itzak —eta gauzak—, bait dira.

Egiaren billa ibilli bear du beti Akademi batek; sortua ere ortarako izaten bait da sortua; egia, zuzentasuna, egokitasuna, idorotzeko. Egia, eta zuzentasuna, eta egokitasuna lortzeko ordea, ez dira geiegizkoak munduko laguntza guztiak. Egiaren maitalea laguntza oien billa ibilli oi da gelditzeke; egiaren bidea zaila eta labaiña dala jakiñik, ez bait da bere buruaz fiatzen. Euskaltzaindiak ordea bere buruan bakarrik du bere uste guztia, eta ez da besteren laguntzarik eskatzera makurtzen.

Euskaltzaindiak, Euskeraren akademi izan balitz, pozik eta leiatsu eskatuko zituan euskaldunen aburuak

(15) A. Urrestarazu "Umandi", "Euzkera", 33 or. Maiz darabilzki "sektarismo" eta "sekta" itzak Urrestarazu'k. Ikus 32'gn, 33'gn eta 34'gn orriak.

—zenbat eta aburu geiago bildu, obe!—; arretaz eta eraspenez aztertuko zituan aburu oiek; beti galdezka eta beti eskean, aburu eta iritzi eskean, ibilliko zitzai-gun; astiro, patxadaz, benetasun osoz ari izango zan lanean.

Ez du Euskaltzaindiak orrelakorik egin. Alderantziz, laisterka ta iraduz ibilli zan Arantzazu'ko billeran 1968'garren urtean, an aurkeztu zitzazkion iritzi mardul bikaiñei arretarik egin gabe; eta, gero, amar urteen epean, ixilik, bakarrik eta izkutuan ari izan da, iritxi zaizkion eskari yakintsuak aintzat artu gabe. Era berean jarraitzen du gaur egun ere.

Alde-bakarkeri edo sektakeri orrek eraginda, Izkuntz-Erakunde bezela ez baiña Politika-Erakunde bezela ari izan da Euskaltzaindia, agian euskaltzain batzuek oartzeko, Arantzazu'ko Billera ezkeror, amar urte auetan. Ori adierazi nai duala dirudi A. Villasante Euskaltzaindiko Lendakariak Arana Goiri'tar Sabiñ'eri buruz erabilli oi duan izkerak. Ori, Euskaltzaindian geiena igitzen diran euskaltzaiñek Sabiñ'eri (eta Sabiñ' 'en Alderdiari eta Euskerari) dieten gorrotoak; eta Euskaltzaindiak sabindar izandako euskal-idazle aundiak (Orixe, Lauaxeta, Lizardi, Altube, Kanpion bera) ezertarako kontuan ez artzeak. Ez ditu aipatu ere egiten. Sabiñ-ezkeroko idazle danak, euskerak izan dituan idazlerik onenak, milla eta milla bidēr onenak, ez dira sekulan jaio erē egin Euskaltzaindiarentzat.

Idazle auek denak sabindarrak izaki!!! (16).

Sabiñ'en izena aztuarazi nai dute "el batua"zaleek, eta, aiekin, Euskaltzaindiak; Politikaren arloan eta izkuntzaren arloan Sabiñ'ek egin zuan lana desegin.

"Jelkide-Abertzaletasuna desegiteko asmorik bizenak sortarazi eta indartu zuala "el batua" idatzi zuan Gaztañaga'tar Yosu'k, eta "erreboluzioaren sinbolo plastikoa dan H'a indarrez ezartzeko borroka bizia dabillega gaur oraindik gure artean, ETA'ko "Frente kulturalak" eraginda, elkarte ontako borrokalariek argi ta garbi aitortu dutenez". Eta "joku ortan erori dala Euskaltzaindia". Gaztañaga'renak dira lerro auek ere: "Euskaltzaindia joku ortan erori ez danik, eta eragin oien menpe ez dagonik, ez dago esaterik iñola ere". "Euskaltzaindia, azken-urte auetan, ez dabil izkuntzalorreko iritzi zabal eta jakintzazko edo zientifikoetan oiñarritua; politika-eragiñen menpean dabil baizik" (17).

Ez da Gaztañaga bakarrik, Euskaltzaindiaren politikerira erortze ori ikusten duana: "¿Cuál y cómo es la dirección que rige este movimiento?" —galdetzen du Urrestarazu'k—. "¿Es verdaderamente la actual Euskal-

(16) "Euskaltzaindia se ensaña en destruir la obra lingüística de Sabino de Arana, el más genial restaurador que jamás ha conocido nuestro idioma", idatzi du Labayen'dar Andoni'k ("La Voz de España", 18-I-79).

Antonio Tovar izkuntzalariak, berriz, auxe esan digu: "El batua funciona como un instrumento político" ("El Diario Vasco", 26-VI-79).

(17) Donosti'ko Gotzaiari egindako eskutitza. Ikus gutun ori, idazkiño onen azkenean.

tzaindia quien da esa dirección? A pesar de que desde 1969, a partir de la asamblea de Aránzazu, se declaró en ese sentido y de que, a los diez años, plazo más que suficiente para una posible experiencia que se hubiese querido hacer, en la otra asamblea de Eibar se ratificó en aquella posición adoptada, nos repugna pensar que los actuales dirigentes de la organización, entre los que hay personas de mucha valía y donde contamos con buenos amigos, acepten plenamente ese proceder del "euskera batua". ¿Podría haber, tal vez, otra dirección distinta que no se manifiesta?; es de temer que sí, pero no lo podemos saber con certeza. Y hemos de juzgar por lo que aparece a la vista de todos (18).

Asko eta asko dira Euzkadi'n Gaztañaga'k eta Urrestarazu'k bezela pentsatzen duten abertzale sabin-darrak.

Guk, izkuntza-arlotik mintzatzuaz auxe esaten diogu Euskaltzaindiari: Politika-Erakunde biurtu dala. Politika-modu baten serbitzura ari dala. Euskalherri osoaren konfiantzarik eta uste onik ez duala arrezkero.

★ ★ ★

Ta orrela, gure Euskera, salbamenik gabe eriotzara dijoa.

Zer pentsatu genezake? Aipatutako Latxaga'ren tesi-liburuko, itz auek datorzkit oroimenera: "Nous nous trouvons en face de l'absurde et de la déraison": "Zentzugabekeri eta arrazoigabekeri utsaren aurrean gaude".

(18) "Euzkera", 26 or.

“Déraison?” “Erokeria?” Gaur-egun Bizkaierak eta Euskera osoak duan idazlerik bikaiñenetako batek, Kerexeta’k, auxe esan zuan asko ez dala, Bilbo’ko irratitik: Franko’ren diktadurak baiño gaitz aundiagoa egin diola euskerari “el batúa”k! Ori egia ba’da, “el batúa”ren atzean Euskaltzaindia bait dago, egia izango da baita’re, Euskaltzaindiak Franko’ren diktadurak baiño gaitz aundiagoa egin diola Euskerari.

★ ★ ★

Euskaltzaindiari expediente bat egiteko eskatu zuan 1968’garren urtean, Bergara’n Euskaltzaindiak bildutako Batzarraren ondorean, gaurko euskal-idazlerik onenak.

Expediente ori egitea erabaki zuan orduantxe bertan Kardaberaz Bazkunak.

Idazkiño au ez da orduan eskatu zan eta egitea erabaki zan expedientea. Expediente izateko laburregia da eta azkarregi idatzia izan da. Eginen diogu oraindik Euskaltzaindiari astiro eta sakonki, orduan eskatutako ikerketa zeatza: expedientea.

Bitartean, naikoa dala uste degu idazkitxo au euskaldun oro Euskaltzaindiaren jokaeraz jakitun egiteko: euskaldun oro; euskeraz mintzatzen dan erri guzia: Euskalerrria bakarrik izan bait diteke Euskerari-buruzko arazoetan Epaille Nagusi.

Irakurle: Zu ere, euskaldun zeralako, Euskalerrri zera. Ba-duzu Euskaltzaindia epaitzeko eskubide beta

maiozu ba, irakurle, Euskaltzaindiari, zure epaitza.

## ERASKIÑAK

## GAZTAÑAGA'tar YOSU'k DONOSTI'ko GOTZAIARI EGINDAKO ESKUTITZA

Errezil'dik 1979'go Urrillaren 23'an  
Setien'dar Jose Maria, Gotzai jaunari  
Donosti'ra

Gotzai jaun agurgarria:

Euskera ta bera bateratzeko arazoa dala-ta, orain-  
go au ez duzu nere lenengo eskutitza: 1974'go azillaren  
11'n eta 1977'go otsaillaren 25'ean idatziak dizkitzut bi.  
Ortaz gaiñera, 1979'go jorraillaren 14'ko GOIZ-ARGI,  
433-433 zenbakian idatzi nuana, "ELIZA TA EUSKE-  
RA: NOLAKO EUSKERA ERABILLI", zuzen-zuzenean  
gai oni buruzkoa zan, irakurri bide-duzenez.

Parroki-liburuak dirala-ta, onela nion aldizkarian:  
"Ba-dira gutxienez AMAR URTE BEINTZAT agiri oiek  
euskeraz idazten asi giñala apaiz batzuk: bai parroki-  
liburuetan eta bai liburuetatik atera bearreko aldaki ta  
laburpenak; zer esanik ez, ezkontzarako argibideak ere  
baietz.

"...Ontan ere zera gertatuko ote zaigu: erabilliko ez  
dituztenak ezarriko dizkigutela errietako apaizok pa-

rroki-lanean erabilli bear izango ditugun liburuak, beren egitura ta beren idazkera... auskalo nolakoan?"

Etkezaretar Eustasio'k gauza erabakitza eman zuan Bergara'n, gero "Aldizkari Nagusia" 340'gn alean idatzirik datorrenez: "...Eliz artxiborako parroki-liburu-etan erabilliko den euskara-moldea ere euskara "batua" izango da". Eta ziurki jakin dudanez, egiñik daude ta bereala datoz ia, dalako "batu" ortan eginda.

1'go: Ainbeste urtez egindako lanak alde batera utzirik, ainbeste urtez erabillitako bidea bazterturik, beste bide bat artzeko, nere iritiz, ez da naikoa **ogei laguneko talde batek** artutako erabakia:

- a) Ez dakigu **nortzuk diran** ogei lagun oiek.
- b) Leendik urte luzez eta **lanik zailenak egindako zenbait lagun baztertu** ta beste norbaitzuk **erdi-ixilka** edo erdi-izkutuan jarriak dira.
- c) Euskeratzaille-taldea leendik izanik, "**iritzi desberdiñekin lana egitea oso zail dala**" (Al. Na. 336, orrial. 329) idaztea ere, ez da arrazoi sakona ta baliozkoa, artu dan jokabidea artzeko.
- d) Eta "talde ori" **alde bakarreko** lagunez bakarrik ornitza, ez da zuzeneko bidea, **alde-bakarkeria baizik**.

2'gn: "Aldizkari Nagusia"n 1975'go urrillekoan, 306'gn alean, idatzirik azaldu ziran iritzi ta arrazobide

egokiak ez ditu aintzat artzen oraingo jokabideak.

3'gn: Araba-Bizkai-Gipuzkoa-Naparroa'ko **erri euskaldunaren iritziak alde batera utzirik**, bortxaz edo **indarrez** bestelako asmakeriak eta zailtasunak ezartzen dituztenen bideak artzea da jokabide ori, Ipar-Euskal-errikoen idazkera aitzakitza artuta.

4'gn: Izkuntzaren —eta beraz Euskeraren— barneko joera jator eta **betikoaren aurkako jokaera darama Euskaltzaindia'k**, askotan argibidetu dugunez, eta okereko bide ortan sartzea da, oraingo aldaketa au egitea.

5'gn: "Jelkide-Abertzaletasuna" desegiteko asmorik bizienaz sortu ta indartua "batua" dalakoa, "frente kulturalak" eraginda, eta orrela, **erreboluzioaren sinbolo plastikoa dan H**" ori bortxaz ezartzeko borroka dabil gaur oraindik ere Euskalerrian, beraiek argi ta garbi, aitortu dutenez. **Joku ortan erori da Euskaltzaindia, ta Joku berean Eliza ere** erortzen ez danik ez dago esaterik oraingo aldaketa au orrela eginda dagola ikusita (1).

6'gn: Orrelako zailtasunak ezartzea -idazkeran, e.a.— "**burgeskerrizat**" salatu izan dituzte ezkertiarrek Alemania'n, ikastun burgesek bestek, ongi ikasi eziñeko arau ta zailtasunak diralako. Emen, zailtasunak ezartzen ari dira, begien aurreko ta begietarako ezau-garrizat H artuta (2).

7'gn: Beste zenbait lurraldetan, erreboluzioa egitekoan, izkuntza alde guztietatik erraztu ta bertakotzeko

(1), (2) Oarrak, urrengo orrialdean.

joera artu izan dute: ikus Errusia'n eta Txina'n egin dutena. Emen, ordea, alderantziz: idazkera zaildu ta naastu, erdalkeri arrotz eta mordoillokeriaz bete dute. Zergatik? Erraztea, argitzea eta garbitzea, euskaldunagotzea, Arana Goiri izeneko "burges" batek egin zualako ta ori desegin bearrekoa dalako.

8'gn: Euskaltzaindia joku ortan erori ez danik, eta eragin oien menpe ez dagonik, ez dago esaterik iñola ere. Era berean, jokabide ori jarraitzea, joku berean erortzea ez danik ere ez dago esaterik, Euskaltzaindia

(1) Emen Gaztañaga euskal-idazle bikain ospetsuak adierazten digun lez, "el batua"ren azpian marxi-lenindar-politika dabillega argi ikusi du Urrestarazu "Umandi"k ere. Ona zer dion Eibar'ko sasi-ziñegiteari buruz: "De todos modos no es poco lo que nos ha hecho pensar el juramento de quienes suscriben el documento (kosta-ala-kosta "el batua" erabiltzera beren buruak beartzen zituztenen dokumentua). Primeramente nos parece que no guarda proporción la decisión de seguir una orientación determinada **para la escritura** del Euskera con el juramento que hicieron de hacerlo así; creemos que una decisión como la señalada tiene en sí muy poca importancia para tratar de reforzarla con un juramento y, en consecuencia, **nos hace sospechar** que haya podido haber **algún otro motivo mayor** que no se ha juzgado **conveniente** manifestar, y que pudiera hasta no ser conocido **ni siquiera** por una buena parte de los firmantes; pensamos sobre todo en nuestro buen amigo Tauer al decir eso; (ni ere arritu nindun Norbert Tauer'en izena zerrenda artan ikusteak) (...) No obstante, lo que sí parece claro, por lo menos, aunque ello tampoco merecería comprometerse a ejecutarlo con juramento, es que esos señores están decididamente dispuestos a **imponer a todo trance** en el País el "euskara batua", discriminando a todo y a todos los que opinamos que esa orientación es un **completo error**, perjudicial tanto para nuestro idioma como para la vida misma de nuestro Pueblo" ("Euzkera", 33'gn or.).

(2) Alemani'n ez eze, Zataraiñ'ek bidali-berri didan txosten batean agiri danez, Noruega'n, Grezi'n eta Txekoslovakia'n ere al duten guztia izkuntza errezten ari izan dirala, edo ari dirala, gogoarazi nai diot Gaztañaga euskal-idazle bikain eta kementsuari. Izan ere ori bait da, erreztasuna, gaur egungo izkuntza danen joera!

ta aren nortasuna aitzakitza eta babesgarritza artuta ere.

9'gn: **Ez da zuzeneko jokabidea, Lekuona'tar Manuel eta beste zenbait lagun baztertzea, ta orde, jokaera bakarreko beste batzuk artzea —ain juxtu ere Euskaltzaindia'k egin zuan gauza bera!—, aldebakarke-ria dalako ta Euskeraren kaltean dalako.**

10'gn: **Euskaltzaindia'ren alderdikeria, jauntxo-keria, Euskerarentzako begiruneik eza, nola-naiko euske-raldrebasa erabiltzea, elkar-izketarik nai eza, Euskera osoa babesteko orde alde bakarrekoen "batua" baka-rrik zaintzea ikusirik, eta Euskaltzaindia berari garbiro adierazi ondoren, beste Akademia bat, EUSKERA-ZAINTZA edo Euskeraren Erri-Akademia sortu bearra gertatu da Euskalerrian. Orregatik, Euskaltzaindia'ren okerreko bideak bakarrik jarraitzea —aldaketa egitean artuta dagon bideak adierazten duanez— ez da zuzene-ko bidea.**

11'gn: Esandako guztia dala-bide, "batu" ori auke-ratu ta ezartzea, ez da soil-soillik izkuntza-maillako jokaera bakun eta kutsugabea.

12'gn: **Euskaltzaindia azken-urte auetan ez dabil izkuntza-alorreko iritzi zabal eta jakintzako edo "zientifikoetan" oiñarrituta, politika-eragiñen menpean dabil baizik, gorago ere esan dugunez (3). Elizak ere Euskaltzaindia'ri jarraitzen dion aiñean, politika-mailla-ko indarrerri jarraitzen die, izkuntzaren kaltean.**



13'gn: Jakiñeko "batu" ori aukeratzean, Elizak zein eratako politika-bideri laguntzen dion, ez da gauza zailla ikusten eta ulertzen.

14'gn: Nere iritziz, bein eta berriz azaldu izan dudana iritzi sendoz, "batu" ori artzea, politika-aukera edo autapen bat egitea da. Eta, jakiña, politika jakin baten aldeko autapena edo aukera ezartzea, berriz, ez dut onartzen, eta ezin dut iñola ere onartu. Jarraitu ere, beraz, ez dezaket jarraitu, nere burua erabaki orren bidez beartutzat ez daukadalako.

(3) Ikus nola azaltzen duan iraultzalarien jokabidea Mokoroa'k, oraintxe bertan —1981'ko Dagonillaren 3'an—, eman didan orri batean: "**Táctica de los conjurados**":

—"1º: Sofocar el espíritu de la lengua genuina, so capa de **kultura** y de **actualización** ("aktualizapena"?). Y ello, valiéndose de la lengua misma, desfigurada, como de señuelo y cebo para embaucar a incautos, con la maquiavélica consigna de "EUSKARA CULTO" y "BATASUNA". Resultado, el mítico engendro del EUSKARA UNIFICADO.

—"2º: **Emblema** y **banderín**: la "H", "símbolo plástico" de la revolución cultural (¡qué curioso! La letra de esta figura, en el alfabeto griego, tiene por nombre HETA...).

—"3º: **Juramento** laico, y **Bendición**, por decirlo así, franciscana, del P. Villasante, y **Aval** del doctor Michelena en representación de la Ciencia Titulada.

—"4º: **Toma de la Bastilla**". Los conjurados asaltan Euskaltzaindia y destituyen al presidente Lekuona a pesar de las condescendencias de éste con aquéllos. ("Condescendencias" dio Mokoroa'k. Bai noski. Pakea lortzearren al zuan guztia eman bait zuan amore Lekuona zaarrak. Ez zuan, ala ere, ez pakerik, ez ezer lortu; soilki, iraindua izatea, eta Euskaltzaindiko lendakartzatik era zakarrean jaurtia!

—"5º: **Consolidación de la victoria**: Los juramentados se apoderan de las ikastolas y se infiltran en periódicos y revistas, y en las instituciones públicas y privadas del país. (Euskaltzaindiaren izenak eman die ortarako babes. Nola ez ba onartu edozer gauza "en nombre de la REAL Academia" zetoztenei?).

Esandako guztiaren ondorioz, Gotzai jauna, alde zurretik jakiñean jartzen zaitut, politika-autapen edo aukera ori jarraitzea ez didala nere barrenak agintzen. Eta ziur egon, ez naizela bakarra izango.

Jakiñean jartzen zaitut, gaiñera, Euskalerriko beste Gotzai jauneri ere eskutitz onen aldaki bana bidaliko diedala.

Arazo ontan garbi azaldu izan dizut nere jarrera, nik idatziz esandakoak ezertan aintzat artu gaberik gelditu diran arren.

Eta besterik ez gaurkoz. Zerbait nai duzunerako, ba-dakizu non aurki nazakezun.

Izenpea  
Gaztañaga'tar Jesus

Oarra:

Ikusi aal izan duzu, irakurle, Gaztañaga'ren iritzia bere eskutitz ontan. Gaztañaga, Gipuzkerazko idazlerik onenetakoa eta "Goiz-Argi"ren zuzendaria, ez da edozein gaur-egun Euskalerrian, Euskerari, euskopolitikari, eta Euskadi'ko bizierari buruzko gaietan.

Orain, aren iritziaz jabetu zeralarik, galdera bat egin nai nizuke nik, "el batua" zorigaitzoko au dala-ta; "el batua"zaleek izketa-modu zipotz au sortu-aurretik bai bait zan Euskalerrian Euskera "Batu" bat, Azkue'ren Euskera Osotua euskaldun guztiek, bat egiñik, pozik eta gustora ontzat artu zutena.

—Esan al dizu, irakurle, esan al dizu beñere norbaitek, **zergatik** izan zan Azkue'ren Euskera Osotu ori, itxu-itxuan baztertua? Esan al dizu...Euskaltzaindiak?

Baita jakintsuek eta baita errikoseme txiro landerrek ere gozoro onetsi zuten Izkera bat bazterrera botatzeko, bear-bearrezkoak dira arrazoi mardulak.

—Aipatu al dizu sekulan iñork arrazoitxorik bakarrena? Aipatu al dizu Euskaltzaindiak?

Zerbait uzten danean zerbait ortan oker nabarmenak aurkitu oi dira, eta oker oiek eraginda utzi oi da "zerbait" ori.

—Mintzatu al zaizu iñoiz norbait Azkue'ren Euske-

ra Osotuan aurkitu aal izan dituan okerkerietaz? Mintzatu al zaizu Euskaltzaindia?

Azkue'ren Euskera Osotuaren aurka ez da sekulan salaketarik izan. Ez zaio okerrik beñere aurkitu. Ez dio iñoiz iñork ere egokitasunik ukatu. Euskalerrri osoak izan du beti maite.

Alatagutziz, leengo Euskaltzaindi bikain aren alzoan sortutako Euskera Osotu ori gaurko Euskaltzaindi petral onek gaitzetsia izan da. Arantzazu'n gaitzetsia. Epaietarik gabe; aipatua ere izan gabe.

Orrela joka dezakean gizakume-talde batek Akademi izenik merezi al du?

## BATUAREN KEZKAK

(Idazlan bikain au, Arantzazu-inguruko ARENDUI baserriaren izena izengoitizat erabilliaz, Aita Joxeluis Zurutuza frantziskotarrak 1978'ko Uztaillean "Arantzazu" aldizkarian idatzia da.)

Aurten betetzen dira amar urte, Euskaltzaindiak antolatuta, Arantzazun batzar sonatu ura ospatu zala. Amaika eztabaida ta esames sortu duan batzarra! An "begi onez ikusitakoak" arrera txit desberdiña euki du euskaldun batzuen naiz besteen artean.

Idazle sail ugariena <sup>(1)</sup> —erabaki osoz batzuk, joerari amor emanez beste zenbait— andik asi ta "euskara batuaren" bideetan abiatu da. Beste idazle talde batek ez ditu euskera biziaren zuztarrak eten nai izan; euskalkiak euki ditu gogoan, eta aietatik geiegi urrundu gabe, poliki poliki jo du euskera baturantz. Gipuzkerazko idazleetan garbi nabari diteke joera au. Eliz euskeran ere (meza-liburu ta orduen liturgian, pastoral idazki askotxotan ere bai) azken bide auxe

(1) "Ugarietak", dio emen Arenduik. Ugarietak? Bai noski izparringi eta aldizkarietan euskera zikintzen ari zaizkigun "el batua"zale oiek danak idazletzat artzen ba'ditugu. Ez ordea bestela, idazlerik onenak, geienak, erri-euskeraren aldekoak bait dira.

aukeratu da geienbat.

Erriak zein postura artu duan bi euskera mota auen aurrean? Bere-berea duan euskera ematen zaionean, ez dago zer esanik. Jatortasuna berealaxe ezagutzen du ta poz-eztitan irakurriko dizu eta batez ere entzungo; entzule da gure erria, irakurle baiño geiago.

Euskara batua dalakoaren aurrean, berriz, nor ausartuko litzake erriak gogo onez artu duala esaten? Ortografi berriak zaildu egin dio irakurtzea; aditz batuaren zenbait forma nekez ulertzekoak dira erriarentzat irakurri-ala utsean; bere aditz jokurik erabillienak itxuraldatu egin dizkiote...

Ori zailtasunen asiera besterik ez da. Esaerak, berak —erriak— ezagutzen ez dituan modura josiko dizkiote, erdalkeriz kutsatuta geienetan. Iztegiaren istilluak ez du berriz azkenik: ipar euskalkietatik frantses musajez artutako itzak metatu dituzte ezin gain eman aal izateraiño. Nola asmatu orrela, irakurgaien esanaia!

Bein esan: erri xeeak ezin irentsi du sarritan eskeiñi oi zaion euskera-naiko naaspilla ori. Eta oso ondo egiten du ez irakurriaz, bestela botaka egiteko zorian jarriko litzake-ta.

Erri xeearen ondoan, jarri itzazu beste ainbat pertsona eskolatu. Geure inguruan ezagutzen ditugu danok, eta ez bat eta bi: asko. Neurri-gabeko euskara batu txar ori ikusi orduko diote: Uutik, ez da neretzat egiten dana; zuentzat ori, euskeran maixu zeratenon-

tzat... leenago zakurraren zerera bidaltzen ez badizute!

Arritzekoa al da orrela periodikoetan euskera geiago ez sartzea? Norentzat baiña, euskerarik ez dakitenaz gaiñera, dakianak ere ezin irakurri du-ta euskera berri zarpaillu ori. Alderdi politikoak gero ta leku txikiagoa ematen diotela euskerari beren zabal-kunde lanean? Garbi dago: tresna batek —modako euskarak— euskaldunontzat ere balio ez duanean, zokora bota ta kito. Gauzak ulerterrez emateko ortxe daukate erdera.

Liburu geienak batuan argitaratzen dirala-ta, or ibilliko zaizkizu kontuak ateratzen <sup>(2)</sup>. Ezin eman izan dutena, eta eman ezingo dutena, zera da: liburu guzti oiek zenbat euskaldunek **irakurtzen** dituzten. Nik dakitala, gurean liburu berririk geientsuenak lo gozoan daude liburutegiko apaletan. Numeroez arrotzeko bes-tetarako balio ote dute?

<sup>(2)</sup> Libururik geienak batuan agertzen dirala, esaten du, —edo, beintzat, ontzat ematen du—, emen Arendui'k. Egia ote da? "Bai", ta "ez". "Bai", ikastoletako liburuak kontuak artzen ba'ditugu, ikastolak iraultzalarien eskuetara jausiak bait daude. "Ez", ordea, —umeak naitanaiez erosi bear dituzten ikasketa-liburu oiek utzita—, euskeraz mintzatzen dan erriarentzat argitaratzen diran liburuak bakarrik kontuan artzen ba'ditugu. Euskaltzaindiak berak ere aitortu zuan Bergara'n egin zuan "Biltzarrean" euskerazko liburu aundiak, liburu mardulak, erriko euskeran agertzen zirala. Zer esan nai du orrek? Euskaldunek "el batua"-rik ez dutela irakurtzen; euskaldunek erriko euskera bakarrik irakurtzen dutela. Ori orrela ez ba'litz ez bait lirake argitaratzal-leek, dirua alperrik galduaz, euskalkietan, —eta euskalkietan bakarrik—, ain liburu mardulak, —liburu garestienak—, argitaratzen ariko!

Bada batu gaiztoaren bidegabekeri guzti auek, goragokoai —nolabait esateko— erasten dizkienik (3). Ezin, ordea, emen guztiz iritzi ortakoak izan. Izkerazuzendarien artean ez datoz danak bat, ezta gutxiagorik ere, euskeraren gaurko egoera narratx'onekin. Ori bai, komeniko litzake jakitea aietatik zenbatek eta zeintzuk on-irizten dieten bide berriai.

Bide berri auetan, bestalde, eginkizunik nagusia idazlearen esku gelditzen da. Araurik onenez gaizki idatzi diteke, ez ain onez euskera txit irakurgarria eman diteken bezelaxe. Zuzendaritzari gagozkiola, errua ontantxe arkituko genduke batez ere: sasartera bultzatu dan euskerari bide zuzena erakutsiaz geixeago ez laguntzean. Nork atera du txintik... euskalkiak bigarren maillan jartzeko ez baldin bada?

(3) Egia da emen Arendui'k diona. "Goragoko" oien artean, Mitxelena'ri erantsi oi zaizkio "el batua"ren berrikeriak. Baña Mitxelena'k berak ere "gorago" jotzen du: antziñako idazle iparreuskaldunen liburu zarretara; idazle aiek, Axular bereiziki, izan omen dira "el batua"ren iturburu. Orrela oi dagite "el batua"zale guztiak. Gure izkuntzaren eredu ez da, ordea, liburuetako idazketa, erriko izketa baizik. Liburu-idazleak, antziñako ipartar aiek bereiziki, erderakeriz kutsaturik daude geienak. Idazle danak, baita onenak ere, erderaz eskolatuak bait dira! Salamanka'ko Unibertsitatean ikasi zuan Axular'ek ere. Orregaitik Axular berak Salamanka'ko erdera dario baztar guztietatik. "Eskolatuak, geyenak euskeraz baiño erderaz obeki dakitela!", eta orregatik, (eskolatuok) "gure irudipenen arauz eta gure gustora euskera aldatzen asteko eskubiderik ez degula!" "Eskoladunek erderaz pentsatu oi dute eta euskerazko itzekin ere erderakadak sortu". "Gure eginkizunik bearrenetakoa euskeraz ikastea degu. Euskera gure ezjakiñaren neurrian aldatu nai degulako sekulako astakeriak irakurtzen ditugu batzutan" ("Euskera". 1968; 165 eta 167 or.). Arantzazu'ko billeran esan zituan itz auek Zatarain'ek, baiña billera artako "eskolatuek", —Mitxelena buru zutela—, ez zioten jaramonik egin, eta, euskera aldatu ez eze azpikoaz gora biurtuaz, "el batua" anker au sortu ziguten.

Pozez bete gaitu "Bai Euskerari" ekiñaldiaren arrakastak (4). Oraindik ito ez duten Euskalerrriak biotz barrutik erantzun dio bere izate-muiñ duan izkeraren aldeko irrintziari. Klean nai du euskera, eskolan, lantegietan... eta ez aaztu: sukalde txokoan, ementxe batez ere, **ez dago beste iturburu jatorrik eta**. Magalean ezpaiñetaratu dan euskerak barne-muiñetaraiño ikutzen du giza biotza eta bein betirako suz bezela markatzen. Sukaldeetatik zabalduko da beste barruti guztietara (edota bestela, ez da zabalduko), iñork ez itzaltzeko eran, euskeraren aldeko sua. "Bai" osoa, geure izate-muiñ degun euskerari.

Baiña... ez oker uste izan: baietza euskera biziari eman dio erriak; euskerari ezpaiñetan bizitzen lagunduko dion euskera idatziari, ez liburuetan orituko dan idazkera traketsari. Berdin esan bear: baietza ez diola zuzenean alako erakunderi eman, gutxiago oraindik euskara batu jakin bati. Baietza erriak bere euskerari eman dio, euskera jatorraren bizi naiari.

Batasuna bear du euskerak biziko bada; leenik, idatzirako batasun egokia. Bateratzea ez da baiña berez sortzen; bestek egin duan bezela, aalegin bizkorrak egin bear ortarako. Bearbada ementxe dago batu kaxkarra ezesten degunon akatsa: saio bakarren bat kendu ezkerro, ez da batasunerantzko araubide oso ta

(4) Ekiñaldi ori, azpikeririk gabe, "Bai Euskaltzaindiari" edo "Bai el batuari", ikurtzat artuta egiña izan ba'litz..., orrelako arrakastarik izango ote zuan? Arendui'k berak erango digu idazlan ontan erantzuna.

pentsatu bat moldatu. Buru-gordeaz bezela egiten diran eskabideak ezer gutxi lortuko dute, idazleai aldabide zeatz eta obe bat eskuratzen etzaien bitartean (5).

Arantzazuko batzarretik amar urte betetzera dijoazen ontan, Euskaltzaindiak berriz aztertu nai ditu — Bergaran oraingo ontan— orduan artutako erabaki edo aolkuak (6). Egia esan, ezin aukera oberik arkitu ziteken. Katalanerari jarraituaz, euskera ere erri eskoletan sartu zorian dago oraintxe. Sozial komunikabideetan ere (telebixioan bereziki) arrera askoz zabalagoa izango du luzarora gabe gure izkuntzak autonomi agintarien eskutik.

Oraingoan ere nork bereari gogor eutsiaz jokatu ote da, izkuntzalarien lana, bizitza aurre-aurrean euki gabe, laboratoriorio eginkizun bezela artuaz? Ez, milla bider, badaezpadako esperimenduai! Pausoak azkarrengi emanaz, etziko edo auskaloko euskera erabilliaz,

(5) Euskerak Batasun berri baten bearrrik ez duala, gogorazi nai nuke nik emen oster. Euskerak bere Batasuna ba-duala; beti izan duala! Bere Batasuna; betikoa; bere-berea: BATASUN LAUKOITZA. Grezi'ko izkuntzak izan zuanaren antzekoa. Euskeraren Batasuna, auxe besterik ez dala: Euskaldun bakoitzak bere Euskalkia ondo erabiltzea eta beste Euskalkiak errez ulertzea. Ortan dagola Euskeraren edertasun guzia! Barkatu bezait Arendui'k nere luma-sartze au. Badakit bera ere gai ontan nere aburuko izanen dala.

(6) Ori uste-genduan guk ere: Arendui'k dion bezela Euskaltzaindia "Arantzazu'n artutako erabakiak aztertzer" zetorrela Bergara-ra, eta uste ortan erabaki zuan "Kardaberaz Bazkunak" bere ordezkariak Biltzar artara bidaltzea. Baña entzun dezu zer esan zingun an Mitxelena'k: Euskaltzaindia ez zala Bergara'ra "betroi saltzera" edo "betroi erostera" etorri.

liburu irakurrigabeak pillatzen jarraituko ote degu? Eskola-mutikoari erriaren bizitzarekin zerikusirik ez duan euskera-mundu arrotz bat emango ote zaio? Euskaldun berriak noiz arte sentitu bear du bitxi bere burua, euskaldun berezkoak ez darabilen izketaz azaltzen zaigunean? Orra batu gaiztoak sortzen dizkigun kezkek.

Euskera su izkutuzko uso zuri bezela ondoratu zaigu. Alaxe ikusten degu geure izkera, Jainkoak egin duan bezelakoa danean. Bela beltz zatarrak erasotzen ba-dio —asmakerizko sasi euskerak—, ez ote digu izan ziranen goi-zeruetara uxatuko?

Euskerak betiko erri zuztarretik, aritzaren sustraietatik, azi ta sendotu bear du: euskal txapelez jantzi-garbi plazara azaldu, ta ez milla koloretako adabakiz jazten dan mari-sorgin bezela. Parregarri gelditu, ta gaiñera iltzeko? Ez!

ARENDAUI

E.A.J.'ko Oñatibia'tar Dunixi'k  
bere alderdikoei egindako  
E S K U T I T Z A

Jeltzale adiskidea:

Euskeraren arazoetan ere, Arana Goiri'tar Sabin goi-goi mallako maixu jakintsua genula danak aitortzen dute, ta berak antolatutako euskeraren idazarauak, oso onak eta egokiak izan ziran. Orrengaitik, lenengo Euskaltzaindiak, Azkue bizkaitar jakintsua lendakari zala, Sabin'en erakutsietan oñarritutako, "Gipuzkera Osotua" aukeratu zuan, ta bide ortatik jarraituaz, ba-zetorren Euskararen egizko batasuna ta ia lorturik arkitzen zan, danok ainbeste nai degun bat egite ori.

Bañan tamalgarriz eta zorigaiztoko egun beltz batean, Bayona'n, 1964 gn.urte inguruan, Sabin'en arerioak, ETA'zaleak, Abando'ko Alderdiaren sortzaileari zioten gorrotoak eraginda, ta Sabin'en erakutsi bikañak ankazpean lertzeko asmoak bultzata, or sortu zuten dalako Euskera "batua"; batasuna, arrazoi gabeko aitzaki ustela aurrean jarrita.

Alde batetik arrazoi guztiak, erri-Euskeran oñarritutako Sabin'en idazkera ta Euskera jatorraren alde

daude; ta beste aldetik, arrazoi jator bat bakarrik ere ez da arkitzen ETA'zaleak sortutako sasi-Euskeraren alde.

Ara beraz, bi jokabide ez-berdiñen aurrean gure Alderdia nola arkitzen dan.

Batere zalantzarik gabe esan leike, Arana Goiri'tar Sabiñ'en jarraitzaileak, au da Alderdi Jeltzaleak, bere sortzaileak utzitako urratsen atzetik zuzen-zuzen jarraitzea bidezkoa dala; batez ere jokabide batetik bestera ze aldia dagoan ikusi ezker, ta "batua"ren sortzaileak nortzuk diran jakin-ta gañera.

Zein dan bidezko jokabidea?

Argi ta garbi egon arren, Alderdiko burukideak, ikusirik alde batetik gaurgo Euskaltzaindia Sabiñ'en arerioak sortutako Sasi-Euskeraren alde dagoala, ta bestetik, batukeriak Euskerari dakarzkion kalte ikaragarriak ikusten ez dituztelako, ta azkenik "progre" ta ETA'ko ezkertiarren aurrean ongi gelditzearen nuntz bait, or ikusten dugu Alderdi bera ere "batua"ren alde jarrita; sinistu eziña benetan.

Alderdi burukideak "batua"ren alde jartze orrek zer adierazten digu? Alde batetik uko egiten ari dala, berak, Alderdiak, erakunde bezela artutako garrantzi aundiko erabaki bateri; ba Iruña'ko Batzar Nagusian, 1977'ngo Epaillean artutako erabakia "Gipuzkera Oso-tua"ren aldekoa izan bait zan, ta erabaki ua, gaur oraindik indardun jarraitzen dualako; ta beste aldetik,

baita ere uko egiten ari dala Alderdia Sabin berari, onen erakutsietan oñarriturik arkitzen dan "Gipuzkera Oso-tua" baztertzen duan ezker, erri-Euskeraren kaltean.

Ageri-agerian dago, betiko joeratik atera-ta, Alderdi Jeltzaleak, ez daramala Euskeraren arazoa, Sabin'ek eta Agirre'tar Joseba Andoni'k eraman zuten bidetik.

Alderdiaren elburua, Euzkadi erriaren alde jokatzea da, ta aberriaren ezaugarri bikaiñ ta berezia Euskera dan ezker, baita ere erri-Euskeraren alde jokatzea.

Euskera, erri-Euskerak edo errian sustraituta arkitzen diran Euskalkiak osatzen dute; bañan orain sortutako "batua" oñarriz arrotz egiten da, errian sustraituta arkitzen ez dalako.

Alderdi burukideak, antz emanik erakunde barruan Euskerari buruz kezka eta naigabeak sortu zirala, ta nundik nora jo erabakitzearren, izendatu zuan batzorde berezi ta egoki bat, gizon jakintsu auekin: Araba'tik: Aita Baztarrika, Mitxelena'tar Koldo ta Oñati-bia'tar Iñaki apaiza; Bizkaitik: Aurrekoetxea'tar Txomin, Ezkurdi'tar Xabier ta Zubiri'tar Iñaki; Gipuzkoa'tik: Oregi'tar Yosu, Yurramendi'tar Felipe ta Zatarain'dar Anbroxio; ta Naparroa'tik: Agorreta'tar Eli, Atxa'tar Yosu ta San Roman'dar Mikel.

Batzorde onek. GBB'ko aretoan, luzaroan ta billera askotan lan ugari egin ondoren, amaitu zuan bere txostena, ta baita ondoren Alderdiko burukideei itzuli



ere. Txosten orren mamia auxe izan zan: "Alderdiak, Gipuzkera Osotua edo erri-Euskera erabilli bear du". Alderdiko burukideak izendatutako batzordeak, erabaki ori artu zuan ezkerero, ta Sabin'en erakutsietan oñarriturik gañera, ez al zan bidezkoa, Alderdiak txosten ori aztertu ta onartuz aurrera eramatea? Erriarekin sustraituta dagon erri-Euskera aurrera eramana?

Batzorde ark eratutako txostena, norbaiten gogozkoa ez dala-ta bear dan bezela aztertu gabe, era bat baztertuz zokoratua izango ba'litz, zuzenki jokatzeari izango al litzake? (1).

Alderdia dugu gaur egun, Euskaltzaindiak egin ditun okerkeri aundiak zuzendu lezazken erakunde bakarra; itz batean, ta aukera bakar ontan ill zorian arkitzen dan Euskera salbatu edo gaizkatu lezakena.

Alderdikideak, beetik gora jokatzuz, ta artutako erabakiak aurrera eramaten jakiten ba'dugu, orduan bai beteko dugula bear dan bezela gure eginkizuna.

(1) Bâ..., orixe egin dute Alderdiko burukideek: eskutitz ontan Duxi'k diona: Batzorde arek eratutako txostena baztertu, eta batzorde berri bat osatu, batzorde berri onek txosten berri bat, burukide oiei atsegiñagoa lezaiekan txosten berri bat eratu dezan. Ortarako, batzorde berri ontan lau "el batua"zale sartu dituzte, eta bi bakarrik Erri-Euskeraren zaleak: Zubiri'tar Iñaki eta Aurrekoetxea'tar Txomin. Zer arrazoi eman duten burukide oiek, bederatzi euskaltzaleek osatutako aurreneko batzorde aren txostena gaitzetzeko? Ez dute batere arrazoirik eman!!! Zer esango ote luke Sabin'ek gaur burukide oien jokabidea ikusiko ba'lu? Gañera..., ori dana, Alderdiaren Oñarriaren, "Basearen", iritzirik jaso gabe egin dute, Oñarriari ezertxo ere esan gabe. Ori al da Sabin'ek Alderdiarentzat nai izan zuan jokaera?

Euskeraren arazo latz ontan, Euzkadi'ren ta Euskeraren aurrean, erantzunkizun aundi ta astuna Alderdiaren sorbaldaren gañera erortzerik ez ba-dugu nai, jakingo al dugu zuzen eta jator jokatzuz?

Batukeriak, Euskeraren eriotza dakarkigula, izkuntzalari guziak ao-batez aitortzen dute; ta Euskera ill-zorian arkitzen dala danok dakigu, ta bere larri aldi estu ontan, karraxiz deadarka laguntza eske ikusita, bidezkoa al da bein da berriz bizkarra jasoaz entzungor egitea, Alderdiko burukideak egiten ari diran bezela? Ekintza jator eta sakon batean asteko garaia ez da oraindik iritxi?

Euskaltzaindiak eta bere kidekoak egiten ari diran okerkeri guziak zuzendu lezazken erakunde bakarra, len esan bezela, Alderdia dala agirian dago, agintaritza bere eskuetan bait dauka; ta zuzenketa ori egin al izan, ta egin gabe gelditzen ba-da, ta geiago oraindik, okerkeriei aizea ta laguntza ematen jarraitzen ba-du, azkeneko aukera ontan, ez al du mundu guziak Alderdia epaituko esanaz, bera dala errudunik aundiena?

Erakundeak ere gaurkotu egin bear dirala egia da, bañan, gaurkotze ori aitzaki artuta, bear-bearrezko ez diran aldakuntzak egitea ori besterik da, ta onartu eziña gañera, orain bertan Euskerarekin gertatzen ari dan bezela; ta egiak, etxe barruan eta etxetik kanpora, gizon eta erakunde guzien gaindik egon bear du beti.

Alderdi-burukideak Euskeraren kaltean, batukeri kaltegarri ortan murgildurik dabiltz, ta oien setakeri ta itsukeriak dirala-ta, gaurko bideetatik jarraitzen badute, burukide oiek, ez al dabiltz, Alderdi barruan zatiketa-azia ereiten?

Oñatibia'tar Dunixi'k

## GURE ATHENAS'EN

A. ZUBIKARAI (1)

Erderaz ba dago esanbide bat: globo sonda.

Guk, arrantzale errietan, amua luzatu, txikota jaurti edo antzerakuak erabilten doguz.

Bizkaieraz berba egiten dogun errietako esnatzeagaz, ba dirudi Irakaskintza saila konturatzen asia dala.

Konturatzen asia dala, baita, jaurlaritza, agintza aiña banakaritza (aministrazioa) dala. Eta banakaritza baten, emontzaile guztiak dirala era batera edo besteña ondasunen partaide.

Beste eskubide guztiak alboan laga barik.

Ba dirudi Euskadi'ko Athenas'en, Gasteiz'en, bizkaiera beste edozein euskeraren eskubideen duin dala aitortu eta eskatzen dogunon asarreak, benetako asarreak, besterik ezean, kezka batzuk sortzen asi dirala.

(1) "El batua" Bizkai'ko euskera jatorra iltzera datorrela ikustarazi nai dio Zubikarai'k erriari 1981'ko Azillaren 24'eko "Deia"n argitaratutako idazlan bikain ontan. Iñor gutxi egingo zuan iñoiz bizkaieraren alde Zubikarai'k aiña lan ederrik. Bijoia Ondarru'ko idazle dotore bikain onentzat Euzkadi guziko euskaldun guztion esker ona.

Ez dira lau katu, jaurlaritzako inkesta batzuk ezagutzean, bidebakokeri batzukaz laster konturatu eta jaubetu diranak: Labairu Ikastegia, Izkuntz-eskola, Derio'ko irakasle eskola, Euskerazaintza, Eleiz Ikastola Batza, Euskerazaleak... izkuntza kontuan Bizkaian arduratsu igarten diranak, batzarrak egin eta egiteko ditue. Eta katea luzatuko da. Ba dakigu.

Nork pentsatuko eban gure jaurlaritza batek, "gureak", bizkaierarentzako ain ezaupide gitxi agertu bear ebanik?

Bizkaiera problema dela? Zergaitik? Bizkaia ez al da Euskadi'ko erri? Ala ondasunetarako bakarrik al da?

Eta bizkaiera erabilten dogunok ez al daukagu gure Jaurlaritza-zeregiñetan eskubiderik? Ez bakarrik dirutan eta ondasunetan, bai eta goietan arduradunen eta zuzendarien artean bestien pare egoteko eskubiderik, eta guri dagozkiguzan neurrietan, geurea aztertu, zuzendu eta legeztatzen egoteko eskubiderik? Ala agotak al gara bizkaitarrok edo bizkaiera erabilten dogunok?

Zabala nazala, estu baten irudia emoten nabil.

Anaitasunik onena inor mindu barik zaintzen dala esaten da. Baiña gu mindu egin gara. Origaitik gagoz asarre. Eta asarre gagozan lez, urduri gagoz asarre au indartu eta itsutu barik, baretu eta ondutea nai dogulako.

Zuzena danai eutsiko dautsagu. Bidezko leikenari errie emon. Baiña gure berbetako era, berezko eta

legezko eskubide lez aldeztuteko kontzientziko eska-bidea dogu. Bizkaia'n euskera indartuko ba da, eta geiago esanda, euskerak Bizkaia'n iraungo ba dau, (mingarri dan arren alaxe esan bear da, "iraungo ba dau"), bizkaierari eutsita izango dala ziurtasun osoa dogulako.

Orretarako nai ta ezko da irakaskintzan bizkaierari aterik luzeena zabaltzea.

Ez dogu ori ukatu leikenik egongo danik.

Euskera bizitik etorriko da euskeraren indartzea, berba egiten dan euskeratik, etxekotik.

Eta lengora jota: Aideko pelotak artu nairik: Nor asi da zabaltzen, Arratia'n, Mungia'n, Durango, Markiñalde eta abaretan bizkaiera erakusten lagako ba da be, Bilbo, Barakaldo ta inguruetan bizkaierarik ez dala erakutsiko?

Bizkaiko errietatik Bilbora joandako gurasoak ez al dira bizkaitarrak, eta bilbotar umeak ez al dira bizkaitarren semeak?

Gasteiz'ko Athenas'en zer dakie ontaz? (2).

(2) Arazo ontan euskaldun guztiontzat auxe da arazorik mingarriena: gure Jaurlaritza, Euzkadi'ko Jaurlaritza, ari zaigula Euskadi'ko Euskerarik bikañenetako bat, BIZKAIERA, erailtzen.

Ikus: Euba'ko Aita Permiñ'ek ogeita bi milloi ta zazpiren mila peztako diru-laguntza eskatu dio Eusko-Jaurlaritzari, Ikastoletarako liburuak Bizkai'ko Euskeraz idazteko. Ogeita bi milloi oiek ez dute Jaurlaritza ikaratu; beste gauza batek kezkatu du gure Jaurlaritza; Bizkaieran ere "el batua"ren ortografia H ta guzti indarrez ba'da ere sarrerazteak kezkatzen du gure Jaurlaritza. Izango duzu gure laguntza —erantzun dio Gasteiz'tik Aita Permiñ'eri—, izango duzu gure laguntza baiña Bizkaierazko liburu oiek, H ta guzti, Euskaltzaindiaren "ortografiaz" idazten ba'dituzu. Eusko Jaurlaritzaren erantzun ori, 1981'ko Urrillaren 28'koa da.

## AMAIA

Apaiz agurgarri baten izena gogora erakarriaz amaitu nai nituzke orri auek. Bizkaitarra bera, Markiña' 'ko semea, baiña Gipuzkoa'n, Arrasate'n ain zuzen lan bikain mardula burutu zuana. Nori egiten zaio arrotz Euskalerrian Arizmendiarieta'tar Joxemari'ren izena?

Arrasate'ko Lanbide-Ikastetxearen Zuzendari eta erri jator ortan sortu zaizkigun ainbeste lantokien eragille eta guraso, gure Euskera zarraren, Erri-Euskeraren, maitale gartsua izan zan Arizmendiarieta maitagarria.

Gutxik jakingo dute "Kardaberaz Bazkuna"ren ikurra berak asmatua eta berak marraztua dala.

Oñatibia'tar Dunixi'ren laguna izan zan; eta baita nerea ere, Lanbide-Ikastetxeetako eginkizun batek berak alkartzen bait giñun biok: bera eta ni. Orre-gaitik dakit ongi, —eta baita Dunixi'k ere, ba-daki—, Euskeraren arazoetan nola pentsatzen zuan berak.

Ain zuzen, orain dala seiren bat urte "el batua"ren akatsak argira atereaz eta "el batua"k Euskerari egin lezaiozkean kalteak azalduaz, txosten bat idatzi zuan Dunixi'k; eta Arizmendiarieta'ri bidali zion, beste askori bezala, txosten aren ale bat.

Laister jaso zuan Arrizmendiarieta'ren erantzuna:

"Pozik irakurri diat ik bidalitako liburuxka, —zion arek—, eta beste batzuei be emateko, fotokopi batzuk atera dizkiat; ba-dek ordua gure arteko iskanbilla eta "zirriborro" batzuei uko egiteko-ta!"

1976'ko Otsaillaren 17'an idatzi zituan itz oiek Joxemari'k. Maitasunarik aundienarekin gordetzen ditu —adizkidearen oroigarri—, Oñatibia'tar Dunixi'k (!).

(<sup>1</sup>) Il zitzaigun Arizmendiarieta, baña berak gaitzetsi zituan "iskanbilla" eta "Zirriborroak" bizirik dauzkagu oraindik, eta —dirudinez—, bizirik jarraituko dute oraindik luzaroan. Idazkiño ontan ikusiko duzun lez, Euskaltzaindiari ez zaio naiko "el batua"ren bidez Euskera ondatu izatea; Euskalkiak ondatu naiean dabil orain, H'a ren bidez Gipuzkoeraren eta batez ere Bizkaieraren ikasketa zaillagoa biurtuz. —Irigaray Euskaltzain osoak salatu digu Villasante —eta Villasante lendakariarekin (Euskaltzaindia—, Bizkaieran "el estrambote de la H" sartu nai duala. (Irakurri ezazu ostera liburutxo onen 180 gn. orrialdea). —Eusko Jaurlaritzak Euba'ko Aita Permiñ'eri diru-laguntza emateko baldintza edo kondizio bat bakarra ipiñi dio: Ikastoletarako liburuak. Bizkaieraz idatzitako liburuak, H eta guzti, Euskaltzaindiak "el batua"rentzat asmatutako "ortografian" idaztea.

Zubikarai'k jakiñarazi digunez, Etxenike'k esan omen dio, es duala Ikastoletarako H'rik gabeko libururik onartuko. Bizkai'ko Ikastoletan ere Bizkaiko umeentzat Bizkaieraz idatzitako liburuak, H'az idatzitakoak izan bearko dutela, onartuak izateko. "Iparraldekoak ez dute "el batua"rik artu; aiek Laburdi'n, Beneparroa'n eta Zuberoa'n len bezela jarraitzen dute", esan zidan 1981'ko Abendu ontan, Aita Akesolo'k, "kardaberaztarrren" Billeran. Aiek gizon izan dira Euskaltzaindiaren aurka beren Euskera salbatzeko. Ez ote gera izango gu gizon, emen gurea salbatzeko? Zutik euskaldunak! Batez ere —Bizkaiera bait da geiena mintzatzen dan Euskera—...; ...erne... ta...zutik Bizkaitarrak!!!

Tolosa'n, 1981'ko Abenduaren 31'ean.

## GAIEN ARKI-BIDEA

ARANA GOIRI'TAR SABIN: 27, 28, 147, 149, 235.

ARANA GOIRI'REN AURKA DABILTZ "EL BATUA" ZALEAK  
ETA EUSKALTZAINDIA: 15, 16 oarra, 17, 30, 32, 38, 80-81,  
125, 211-212, 219, 220, 222.

AZKUE'REN EUSKERA OSOTUA: 24-25, 67, 81, 92, 117-118,  
134, 139, 144, 174-175, 224, 235, 236.

EUSKERAK BERE BATASUNA BETI IZAN DU: 170 oarra,  
232 oarra.

BATUA: "EL BATUA" SORTU AURRETIK EUSKERA BATU  
BAT BA ZAN: 25-26, 28, 36-37, 89, 91, 125, 143, 148, 168,  
189, 235.

BATUA: BATERATZE BIDEA: 67, 68, 69, 118, 121, 122 oarra,  
137 urrengo orrialdeak, 152.

BERGARA'KO BILTZARRA: 77-78, 85, 113 oarra, 146-147, 171-  
172, 196, 232 oarra.

"EL BATUA", ASMAKIZUN UTSA BESTERIK EZ DA: 103,  
117, 124, 163, 170, 190, 232, 237.

"EL BATUA", ALPERRIKAKOA: 98, 107, 142-143.

"EL BATUA", ARRAZOIRIK GABEKOA: 61-62, 150-151, 186,  
189, 229, 233, 235-236.

"EL BATUA", ERRIAK UKATUA: 93, 112, 143-144, 152, 167,  
172, 173, 174, 178-179, 195, 228, 229.

"EL BATUA", GAITZ-ITURRI: 71, 128, 129, 130, 131, 132,  
136-137, 143, 146, 148, 149, 154, 159, 160, 161, 166, 187, 219.

"EL BATUA", EUSKERA MORDOLLOA: 42, 43, 55, 75-76, 81,  
111, 120, 122, 125, 126, 127, 130, 132, 156, 157, 158, 164-165,  
169, 187-188, 206 oarra, 220, 228, 246.

"EL BATUA", INDARKERIZ EZARRIA: 41-42, 53, 112, 121,  
135-136, 151-152, 179-180, 222.

"EL BATUA", ANTZIÑAKERI USTELEZ KUTSATUA: 45, 81, 93 oarra, 113.

"EL BATUA", GEIEGIZKO AMORE-EMATEAREN ERRUZ SARTUA: 38, 39-40, 222, 227, 236.

"EL BATUA", POLITIKERIAK SORTUA: 17, 18, 31, 34, 37-38, 41, 60, 112, 117, 125, 128, 150, 211, 212, 213, 214, 221.

"EL BATUA", EUSKALERRIA ZATITZERA ETORRIA: 16-17, 18, 26, 36, 73, 83-84, 118, 121, 148, 160, 168, 190, 227, 230, 240, 242.

"EL BATUA", ULERTEZIÑA: 118, 119, 127, 135, 156, 157, 158, 159, 173 ta urrengo orrialdeak, 180, 227.

"EL BATUA"REN JAIOTZA: 15, 18, 32, 33, 34.

"DEIA": 175, 177, 178, 235, 237.

"EGIN": 177.

EUSKALTAINDIA, NORK ERABILIA?: 19, 35, 41, 42, 43.

EUSKALTZAINDIA EZ DABIL AKADEMI LEZ: 39 oarra, 63, 75, 77, 83, 105, 107, 121, 132, 181, 191, 195, 201, 204, 206, 207, 208, 221, 224, 230.

EUSKALTZAINDIA, ERRIAREN ESKUBIDEEN AURKA: 63, 65, 72, 73, 74, 76, 80, 100, 103, 123, 127, 197, 200, 206-207, 209, 219.

EUSKALTZAINDIA ETA "EL BATUA"ZALEEK SASI-ALDERDI ZIPOTZA: 19, 78, 79, 80, 83, 84, 85-86, 88, 113 oarra, 118, 149, 153, 160, 161 oarra, 162, 171, 177 oarra, 184, 195, 209-212, 218, 221.

EUSKALTZAINDIAK EZ DARABILKI JOKU GARBIA: 37, 43, 192-193, 194, 196, 197, 200, 202-204, 206, 218, 225, 231, 237-238, 243.

EUSKALTZAÏÑEN AUTAKETA EZ DA GARBIA: 64, 74, 78, 142 oarra 169.

EUSKALTZAINDI AU, LENGU EUSKALTZAINDIAREN AURKA: 32 oarra, 36, 39 oarra, 43, 84, 88, 92, 113, 127, 163, 190, 225.

EUSKALTZAINDIRA JOATEN EZ DIRAN EUSKALTZAIN OSOAK BA-DIRA: 74, 85, 184.

EUSKALTZAINDIAK GAITASUNIK EZ DU: 75, 83, 142, 159, 165, 167, 181-182, 183, 186 oarra, 192.

EUSKALTZAINDIAK ETA "EL BATU"ZALEEK INDARKE-RIA DARABILKITE: 56, 59, 64, 72, 77, 87, 128 oarra, 142, 217, 218.

EUSKALTZAINDIA, BERE "EL BATUA"REN BIDEZ, EUSKALKIEN ERAILLE: 94 oarra, 97, 101, 102, 103, 104, 106, 109, 110, 111, 117, 120, 133, 138, 153-154, 169, 230, 243, 246.

EUSKALTZAINDIA, BAITA EUSKERAREN ERAILLE ERE: 93-94, 108, 123, 124, 214, 231, 233, 238, 239, 243.

EUSKALTZAINDIAREN ARANTZAZU'KO BILLERA ETA "EL BATUA"ZALEEN BAIONA'KO BILLERA, BIAK BAT: 32 oarra, 39, 40.

EUSKERAZAINTZA: 13, 14, 39, 63, 78 oarra, 78-79, 82, 113 oarra, 120, 164, 183, 184, 185, 221.

ATXEA, POLITIKERIZKO IKURRA: 16, 17, 18, 34, 36.

ATXEA, ALPERRIKAKOA TA ARRAZOIAREN AURKAKOA: 19, 21, 22, 24, 45-46, 49, 51, 55, 56-57, 61, 75, 78, 90, 91, 100, 111, 114, 115, 146, 172.

ATXEA, KALTEGARRIA: 52, 54, 61, 72, 74, 75, 79, 91, 101, 113, 114, 126, 134, 144, 145, 160.

ATXEA, EZ DA EUSKALDUNA: 45, 58, 59, 88-89, 90.

## ATAL-BURUEN ARKI-BIDEA

ITZAURREA .....	9.
EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA .....	13.
“EL BATUA”REN JAIOTZA .....	15.
ANTZIÑAKO EUSKALTZALEEN IRITZIAK .....	21.
ARANTZAZU’KO BILLERAREN GIROA .....	27.
“EL BATUA”ZALEEN ARRAZIOIAK:	
1. <sup>a</sup> : Antziñakoen Oitura .....	45.
2. <sup>a</sup> : Bokalen Berezi bearra .....	49.
3. <sup>a</sup> : Esan-Nai Ezberdiñeko itzak bereizteko ..	51.
4. <sup>a</sup> : Iparraldekoen oitura .....	53.
5. <sup>a</sup> : Gazteen joera izatea .....	61.
6. <sup>a</sup> : Euskaltzaindiak ala agindu duala .....	63.
7. <sup>a</sup> : Euskalkiak garestiak izatea .....	67.
EUSKALTZAINEN IRITZIAK .....	71.
ERRI-EUSKERAREN ERIOTZA .....	93.
LEJONA’RA ETORRITAKO IZKUNTZALARI	
ARROTZEN IRITZIAK .....	105.
GAZTELERAZKO IDAZLE BATZUEN IRITZIAK	111.
EUSKADI’KO IDAZLE EZAGUN BATZUEN	
IRITZIAK .....	117.
“EL BATUA” ULERTU-EZIÑA DA .....	173.
EUSKALTZAINDIA ERRUDUN .....	181.
ERASKIÑAK:	
GOTZAI JAUNARI .....	217.
BATUAREN KEZKAK .....	227.
EUZKO ALDERDI JELTZALEKOEI .....	235.
BIZKAIERAREN ALDE .....	241.
AMAIA .....	245.

## IZENEN ARKI-BIDEA

## A

AGIRRE: 80.
AGIRRE, J. B.: 143.
AGORRETA’TAR, ELI: 237.
AGUD QUEROL: 117.
AKESOLO AITA: 56, 120, 122, 144.
AIZARNA’TAR, XANTI: 118.
ALONSO: 29.
ALTUBE: 39, 181, 211.
ALTUNA’TAR, PATXI AITA: 43.
ALLERES: 106.
AMATIÑO: 99.
ANABITARTE’TAR, AGUSTIN: 52.
ARANA GOIRI’TAR, SABIN: 16, 17, 18, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 30, 32, 33, 38, 91, 109, 147, 148, 149, 161, 211, 220, 235, 236.
ARENAZA’TAR, YOSU: 15, 38.
ARENDUI: 94, 102, 173, 174, 178, 179, 188, 227, 231, 232, 233.
ARESTI: 35, 42, 43, 44.
ARIZMENDIARRIETA’TAR, JOSE MARIA AITA: 245, 246.
ARRANDIAGA’TAR, M. AITA: 167.
ARREGI’TAR, J. L.: 123.
ARRINDA’TAR, ANASTASIO AITA: 124.
ARRUE’TAR, A.: 134, 191.
ARRUE’TAR, I.: 124.
ARRUE’TAR, G.: 92, 142.
ARZALLUS’TAR, J. M.: 202.
ARZELUS’TAR, AMALE: 127.
ATAUN’GO AITA BONIFAZIO: 125.
ATXA’TAR, YOSU: 237.
AURREKOETXEA’TAR, TXOMIN: 237.
AXULAR: 229.
AYERBE’TAR, JOSE: 127, 128.
AYERBE’TAR, JUAN JOSE: 22.
AZKUE’TAR, R. M. AITA: 16, 22, 23, 24, 25, 28, 32, 37, 39, 67, 80, 84, 88, 91, 92, 102, 113, 147, 161, 181, 183, 185, 210, 224, 225, 235.
AZURZA’TAR, J. J.: 15, 37, 42, 54, 128.

## B

BARANDIARAN'DAR, J. M. AITA: 130, 177, 191, 203.  
 "BASARRI". EIZMENDI'TAR, IÑAKI: 129, 180.  
 BAZTARRIKA AITA: 237.  
 BELLO. ANDRES: 29.  
 BIBAR'KO "ZID" ERRUI DIAZ: 46.  
 BILBAO'TAR, J. R.: 176.  
 BETTSCHNEIDER: 64, 105.  
 BROUSSAIN: 22, 37, 39, 88, 181.

## C

CAMPION'DAR, ARTURO: 24, 37, 39, 80, 103, 181, 183, 185, 211.  
 CARO BAROJA: 114.  
 CASTELLANOS: 34.  
 CERVANTES: 11, 46.

## D

DAVANT EUSKALTZAIÑA: 94.

## E

EGUZKITZA: 24.  
 ELEIZALDE: 24, 37, 39, 80, 181.  
 ELOSEGI'TAR, YOSU: 130.  
 ERREXIL'DAR, J. M.: 65.  
 ESTORNES LASA: 15.  
 ETXABURU, "KAMIÑAZPI": 133.  
 ETXENIKE. EUZKO JAURLARITZAN EZIKETA- ARDURA-  
 DUNA: 25, 246.  
 ETXEZARRETA'TAR, EUSTASIO AITA: 218.  
 EZKIAGA: 203.  
 EZKURDIA'TAR, XABIER: 237.

## G

GALVEZ: 29.  
 GARATE'TAR, JUSTO: 130.  
 GAZTAÑAGA'TAR, YOSU AITA: 15, 17, 131, 152, 212, 213,  
 217, 220, 223, 224.  
 GERRIKO: 143.

## H

HARANBURU ALTUNA: 33, 34, 186, 189.

## I

INTZA'TAR DAMASO AITA: 88, 89, 113, 191, 203.  
 INTZAGARAY AITA: 24.  
 IRAIZOZ AITA: 64, 85, 191, 203.  
 IRATZEDER AITA EUSKALTZAIÑA: 56, 57, 58.  
 INSAUSTI'TAR, JOSEBA AITA: 169.  
 IRIGARAI'TAR AINGERU. EUSKALTZAIÑA: 85, 87, 112, 113,  
 129, 142, 161, 186, 203.  
 ITURRIOZ'TAR, J. M.: 132.

IZETA: 132.

## J

JACOBSEN, IPARAMERIKANO: 106.  
 JIMENEZ, J. R.: 29.

## K

KARDABERAZ AITA: 21, 58.  
 KEREXETA AITA: 214.  
 KINTANA: 32, 33, 42, 43, 44, 189.  
 KNOR'TAR ENDIKA: 169, 198.  
 KRUTWIG: 32, 33, 35, 131.

## L

LABAYEN'DAR, ANDONI: 15, 33, 34, 42, 47, 61, 75, 78, 80,  
 85, 113, 173, 178, 182, 187, 189, 191, 192, 195, 202, 203, 212.  
 LACONBE: 88.  
 LAFITTE. EUSKALTZAIÑA: 54.  
 LANDERRETXE: 88.  
 LARDIZABAL: 21, 143.  
 LARRAMENDI AITA: 21, 25.  
 LARRE'TAR EMIL: 87.  
 LARRETXE: 24.  
 LASA TA APALATEGI'TAR, JOSEBA: 104, 121.  
 LATIEGI'TAR, BIXENTE: 7, 35, 100, 134, 153, 171, 204, 205.  
 "LATXAGA". SAN SEBASTIAN'DAR, JOSE MARIA: 15, 17, 201.  
 LAUAXETA: 26, 211.



LEKUONA'TAR, MANUEL: 15, 17, 19, 26, 36, 37, 41, 42, 43, 71, 74, 75, 85. 113, 120, 177, 178, 183, 191, 193, 201, 203, 207, 221, 222.  
 L'SCOP, IVON: 122, 213.  
 LETAMENDIA: 182.  
 LHANDE PIERRE AITA: 24, 39, 80, 88.  
 LIZARDI: 26, 211.  
 LIZARRAGA: 81.  
 LIZUNDIA: 32, 42, 56, 156, 189.  
 LOIDI, J. A.: 85, 87.  
 LOJENDIO, EUSKALTZAIÑA: 65, 71, 85, 191, 203.  
 LOPEZ MENDIZABAL, IXAKA: 91.  
 LOPEZ, JUAN CARLOS: 112.

## M

M. I. P.: 141.  
 MAC MURRAUGH, IPARAMERIKANO: 107.  
 MARAGAL: 122.  
 MARTINET, PRANTZESA: 106.  
 MAURO AITA: 113.  
 MENDAUR: 142.  
 MENENDEZ PIDAL: 39, 102, 103, 104.  
 MITXELENA'TAR KOLDOBIKA: 19, 32, 33, 39, 40, 44, 61, 72, 98, 99, 101, 102, 109, 150, 161, 169, 171, 196, 197, 198, 199, 201, 202, 222, 232, 237.  
 MOKOROA'TAR, JUSTO AITA: 63, 73, 97, 142, 144, 151, 201, 222.  
 MOLL: 114.  
 MORENO GALVAN: 9.  
 MUÑOZ: 29.  
 MUJIKI PLAZIDO: 144.  
 MURUA: 145.

## O

OLABIDE: 24.  
 OLASKOAGA: 146.  
 OLAZAR'TAR, MARTIN: 146, 147, 150.  
 ONAINDIA'TAR, XANTI AITA: 71, 151, 154, 178, 202, 203.  
 OÑATIBIA'TAR, DUNIXI: 155, 235.  
 OÑATIBIA'TAR, IÑAKI: 237.  
 OÑATIBIA'TAR, MANU: 161, 176, 177.  
 OÑATIBIA'TAR, YON: 100, 107, 159.  
 OREGI'TAR, YOSU: 237.  
 ORIXE: 39, 118, 211.  
 OTEIZA'TAR, GORKA: 9, 11, 24, 31, 160, 161, 162.

## P

PALACIOS: 29.  
 PAUL RESHIG: 79.  
 PELAY OROZKO'TAR, MIKEL: 15, 92, 179, 189.  
 POPESCU: 145.

## R

RAMIRO VALDERRAMA, MANUEL: 114.  
 ROTAETXE'TAR, KARMELE: 108.

## S

SAIZARBITORIA: 19.  
 SALZEDO, PEDRO J.: 164.  
 SAN MARTIN'DAR, YON: 38, 99, 131, 166, 189, 204, 205.  
 SAN ROMAN'DAR MIKEL: 237.  
 SANTAMARIA'TAR, KARLA: 94, 123.  
 SANTA TERESA DE AVILA: 122.  
 SARASOLA: 98, 187.  
 SATRUSTEGI, EUSKALTZAIÑA: 101, 102, 109, 110, 169, 200.  
 SETIEN'DAR, J. M. GOTZAI JAUNA: 212, 217.  
 SOLAUN'DAR YOSU, ALDERDI JELTZALEAN, EPAI-SALLE-KO BURU: 30.

## T

TAUER NORBERT: 220.  
 TOVAR ANTONIO, EUSKALTZAIÑA: 111, 112, 212.  
 TRASK, INGLANDERRA: 52, 61, 106.  
 TXILLARDEGI: 16, 18, 32, 35, 42, 43, 60.

## U

"UMANDI". URRESTARAZU: 16, 59, 108, 109, 212, 220.  
 UNAMUNO'TAR, MIGUEL: 111, 113, 122.  
 UNZUETA: 9.  
 URKILJO: 24, 80.  
 URKIRI'TAR, TIMOTEO AITA: 165.  
 "UXOLA". URRUZOLA'TAR EXTANIX: 168.

## V

VILLASANTE AITA: 19, 27, 30, 31, 32, 35, 102, 110, 131, 168,  
173, 185, 186, 211, 222.  
VIZCAINO CASAS: 163.

## X

XARRITON: 158.

## Y

YURRAMENDI'TAR, FELIPE: 176, 237.

## Z

ZABALA: 191.  
ZARAGÜETA: 29.  
ZARATAIN'DAR, ANBURTZI: 15, 33, 35, 56, 57, 122, 169, 172,  
176, 220, 230, 237.  
"ZELETA", GARMENDIA'TAR, YON: 172.  
ZUBIKARAI'TAR, AGUSTIN: 175, 241.  
ZUBIRI'TAR, IÑAKI: 15, 102, 176, 237.